


eman ta zabal zazu



Universidad Euskal Herriko  
del País Vasco Unibertsitatea

**Attachment and Facial Emotion Recognition in Patients with  
Borderline Personality Disorder /**

**Atxikimendua eta Aurpegi-Emozioen Antzematea Mugako  
Nortasunaren Nahasmendua duten Pazienteetan**


**Iker Zamalloa Díaz**

Bilbao, 2021

**Attachment and Facial Emotion Recognition in Patients with  
Borderline Personality Disorder /**

**Atxikimendua eta Aurpegi-Emozioen Antzematea Mugako  
Nortasunaren Nahasmendua duten Pazienteetan**

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco      Euskal Herriko  
Unibertsitatea

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA (UPV/EHU)  
MEDIKUNTZA ETA ERIZAINNTZA FAKULTATEA  
NEUROZIENTZIAK SAILA

**Egilea:**

Iker Zamalloa Díaz

**Zuzendariak:**

Miguel Ángel González Torres

Ana Catalán Alcántara

Bilbao, 2021

Doktorego tesi hau Eusko Jaurlaritzako ikertzaile ez doktoreen prestakuntzarako doktoratu aurreko laguntzaren bitartez burutu da.

**Ikerketa egonaldiko unibertsitatea:**

University College London (UCL)

**Erakunde kolaboratzaileak:**

Basurtuko Unibertsitate Ospitalea (Osakidetza)

Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarea (Osakidetza)

IMQ AMSA

*Aitari eta amari*

## *Esker onak*

Tesian parte hartu duzuen pertsona guztioi eta urte hauetan zehar ibilbide honetan lagundu didazuenoi eskerrak ematea gustatuko litzaidake.

Ezer baino lehen, tesiaren zuzendariei, Miguel Ángel eta Ana, hasieratik nigan jarritako konfiantzagatik eta doktoregoan zehar eskaini didazuen laguntzagatik.

Ikerketako laginaren parte izan zareten partaide guztioi, zuen denbora eta lanagatik elkarrizketak eta frogak egiterakoan, zuen ekarpena proiektu honen oinarria delako.

Euskal Herriko Unibertsitateko Neurozientziak Saileko ikerketa taldeko kideei, bereziki Leire eta Maider, zuen laguntza eta elkarlanari esker ikerketa proiektu hau burutzea posible izan delako. Deustuko Unibertsitatean eta Altxako formakuntzan izan ditudan irakasle eta kideei. Ikerketa arloan bereziki mila esker Ioseba, master amaierako lanean ibilbide hau zurekin hasi nuelako eta geroztik beti laguntzeko prest egon zarelako.

I would like to thank Patrick, from the Psychoanalysis Unit of UCL, for your support during my research stay in London and your recommendations on this dissertation.

AMSAko Eguneko Ospitaleko kideei, Nortasunaren Nahasmenduei buruz dudan interesa zuekin arlo klinikoan emandako lehenengo urratsetan sortu zelako. Baita ere, ikerketa proiektu honetan zehar zuen laguntza ezinbestekoa izan delako: Claudio, Andrés, Andrea, Iñaki, Vanesa eta María.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendekotasunaren eta Desgaitasunaren Balorazioko Ataleko kideei, zuen eguneroko laguntzagatik, zuei esker tesiaren amaiera eta lana aldi berean egitea posible izan delako.

Eskerrik asko, nola ez, aita, ama eta Ander, beti eman didazuen laguntzagatik eta behar izan dudan momentuetan aurrera jarraitzeko emandako indarregatik. Eskerrik beroenak nire familia osoari.

Ohiana, zure laguntzagatik eta beti entzuteko prest hor egon zarelako. Ibilbide honetan hor egon zareten lagun guztioi, bereziki ikerketan parte hartu duzuenoi. Charlotte eta Aitziber, testuaren zuzenketan eskainitako lanagatik. Lagun talde osoari, ikerketaren mundutik kanpo zuen laguntza ere ezinbestekoa izan delako.

## Index / Aurkibidea

<i>Acronyms / Akronimoak</i> .....	<i>viii</i>
<i>List of Tables / Taulen zerrenda</i> .....	<i>ix</i>
<i>List of Figures / Irudien zerrenda</i> .....	<i>xi</i>
<b><i>PART ONE: Introduction / LEHENENGO ATALA: Sarrera</i></b> .....	<b><i>1</i></b>
<b><i>1. kapitulua: Nortasunaren Nahasmenduak</i></b> .....	<b><i>2</i></b>
1.1. Nortasunaren Nahasmenduen historia eta definizioa .....	3
1.2. Diagnostikoa: Sailkapen sistemak .....	4
1.2.1. Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapena (ICD) .....	5
1.2.2. Gaixotasun Mentalen Diagnostiko eta Estatistikako eskuliburua (DSM) .....	5
1.3. Prebalentzia .....	7
1.4. Etiopatogenia .....	8
1.5. Koerikortasuna .....	9
1.6. Ebaluazio instrumentuak .....	11
1.7. Tratamendu nagusiak .....	15
1.7.1. Tratamendu psikofarmakologikoak .....	15
1.7.2. Tratamendu psikoterapeutikoak .....	15
1.8. Kurtsoa eta prognosia .....	17
<b><i>2. kapitulua: Mugako Nortasunaren Nahasmendua</i></b> .....	<b><i>19</i></b>
2.1. Definizioa eta garapen historikoa .....	20
2.2. Ezaugarri nagusiak eta sintomak .....	23
2.3. Eredu teorikoak .....	25
2.3.1. Mugako nortasunaren organizazioaren eredua .....	25
2.3.2. Diserregulazio emozionalaren eredua .....	25
2.3.3. Hausnarketaren (mentalizazioa) disfuntzioaren eredua .....	26
2.3.4. Pertsonen arteko hiper-sentsibilitatearen eredua .....	27

2.3.5. Izaera hiperbolikoaren eredua .....	27
2.3.6. Pertsonen arteko disforiaren eredua.....	28
2.4. Prebalentzia .....	29
2.5. Etiopatogenia .....	30
2.5.1. Ahultasun genetikoa .....	30
2.5.2. Neurotransmisoreen asaldurak .....	31
2.5.3. Disfuntzio neurobiologikoak.....	31
2.5.4. Faktore psikosozialak.....	31
2.5.5. Atxikimenduaren prozesua.....	32
2.6. MNNren instrumentu espezifikoak .....	32
<b>3. kapitulua: Atxikimenduaren Teoria.....</b>	<b>34</b>
3.1. Atxikimenduaren teoriaren garapena .....	35
3.2. Atxikimendua helduaroan .....	36
3.2.1 Garapenaren eredua .....	37
3.2.2 Nortasunaren eredu soziala .....	38
3.3. Atxikimenduaren ebaluazioa .....	40
3.3. 1. Strange situation, “Egoera Arrotza” .....	40
3.3.2. Atxikimendua helduaroan neurtzeko instrumentuak .....	41
3.4. Atxikimendua helduaroan eta Mugako Nortasunaren Nahasmendua.....	45
<b>4. kapitulua: Kognizio Soziala .....</b>	<b>48</b>
4.1. Definizioa .....	49
4.2. Kognizio sozialaren seinale inkontzienteak .....	49
4.3. Kognizio sozialaren seinale kontzienteak .....	52
4.4. Azpi-arloak .....	53
4.4.1. Adimenaren teoria (Theory of Mind, ToM).....	54
4.4.2. Pertzepzio soziala .....	54
4.4.3. Ezaguera soziala .....	55

4.4.4. Atribuzio kausala .....	55
4.4.5. Prozesamendu emozionala .....	56
4.5. Kognizio sozialaren egitura neurologikoa.....	56
4.6. Instrumentuak .....	57
4.7. Kognizio soziala eta Mugako Nortasunaren Nahasmendua .....	62
<b>5. kapitulua: Aurpegi-Emozioen Antzematea.....</b>	<b>66</b>
5.1. Definizioa eta kontzeptuaren garapena .....	67
5.2. Aurpegi-emozioen antzematea neurtzeko frogak .....	68
5.3. Aurpegi-emozioen antzematea eta Mugako Nortasunaren Nahasmendua.....	71
<b>PART TWO: Research Project / BIGARREN ATALA: Ikerketa Proiektua .....</b>	<b>75</b>
<b>Chapter 6: Problem Statement .....</b>	<b>76</b>
6.1. Problem Statement .....	77
6.2. Objectives .....	78
6.3. Hypothesis .....	79
<b>Chapter 7: Methods.....</b>	<b>80</b>
7.1. Participants .....	81
7.2. Design.....	82
7.3. Instruments .....	83
7.4. Procedure.....	86
7.5. Statistical Analysis .....	87
<b>Chapter 8: Results.....</b>	<b>88</b>
8.1. Description of the total sample .....	89
8.2. Clinical features in a subsample of the BPD group .....	91
8.3. Personality measures in a subsample of the BPD group.....	93
8.4. Differences between BPD and HC in parental bonding.....	96
8.5. Differences between BPD and HC in adult attachment .....	98
8.6. Differences between BPD and HC in facial emotion recognition .....	99



8.7. Errors in facial emotion recognition in BPD and HC .....	101
8.8. Association between parenting and adult attachment .....	102
8.9. Association between parental bonding and facial emotion recognition and association between adult attachment and facial emotion recognition .....	104
8.10. Association between clinical features and facial emotion recognition in BPD.....	105
8.11. Association between interpersonal problems and facial emotion recognition in BPD.....	106
<b>Chapter 9: Discussion .....</b>	<b>107</b>
9.1. Description of the total sample .....	108
9.2. Clinical features and personality dimensions .....	108
9.3. Differences in parental bonding between BPD and HC.....	110
9.4. Differences in adult attachment between BPD and HC .....	113
9.5. Differences in Facial Emotion Recognition between BPD and HC .....	114
9.6. Association between parental bonding and adult attachment.....	116
9.7. Association between attachment measures and FER.....	117
9.8. Association between clinical features/personality dimensions and FER in BPD.....	119
9.9. Limitations of the study and future research suggestions .....	121
<b>Chapter 10: Conclusions.....</b>	<b>124</b>
<b>REFERENCES.....</b>	<b>127</b>
<b>Appendices / Eranskinak.....</b>	<b>153</b>
Appendix A. Participant Information Sheet and Consent Form: BPD group version and HC group version .....	154
Appendix B. Self-report instruments.....	159
Appendix C. Translation into basque of the chapters 6, 9 and 10.....	167

*Acronyms / Akronimoak*

**AAI:** Adult Attachment Inventory

**AEA:** Aurpegi-Emozioen Antzematea

**AFHS:** Arreta-Faltaren eta Hiperaktibitatearen Sindromea

**APA:** American Psychiatric Association

**BD:** Bipolar Disorder

**BPD:** Borderline Personality Disorder

**CIE:** Clasificación Internacional de Enfermedades

**CLPS:** Collaborative Longitudinal Personality Disorders Study

**DSM:** Manual Diagnóstico y Estadístico de los Trastornos Mentales

**ECR:** Experiences in Close Relationships

**FER:** Facial Emotion Recognition

**HC:** Healthy Controls

**MASC:** Movie for the Assessment of Social Cognition

**MBT:** Mentalization-based treatment

**MNN:** Mugako Nortasunaren Nahasmendua

**NB:** Nahasmendu Bipolarra

**NN:** Nortasunaren Nahasmendua

**PBI:** Parental Bonding Instrument

**PD:** Personality Disorder

**RME:** Reading the Mind in the Eyes

**SUD:** Substance Use Disorders

**ToM:** Theory of Mind

## *List of Tables / Taulen zerrenda*

### **Part One: Introduction / Lehenengo Atala: Sarrera**

1. taula. Nortasunaren nahasmendu orokorra diagnostikatzeko irizpideak (DSM-5)
2. taula. Nortasunaren nahasmenduen ebaluazio instrumentu nagusiak
3. taula. Mugako Nortasunaren Nahasmenduaren sailkapena (DSM eskuliburuak)
4. taula. Ezegonkortasun emozionalaren nortasunaren nahasmendua (CIE-10)
5. taula. Atxikimenduaren sailkapenak
6. taula. Atxikimendua helduaroan ebaluatzeko tresna nagusiak
7. taula: Kognizio soziala ebaluatzeko instrumentu nagusiak
8. taula: Aurpegi-Emozioen Antzematea ebaluatzeko instrumentu nagusiak

### **Part Two: Research Project / Bigarren Atala: Ikerketa Proiektua**

Table 9. Resume of the instruments used to assess the main variables of the study

Table 10. Sociodemographic and clinical variables

Table 11. Clinical variables analyzed in a subsample of the BPD group

Table 12. Differences between groups in personality dimensions and comorbidity with other PD, measured with IIP-64 and SCID-II

Table 13. Differences between groups in parental dimensions (Care and Overprotection) and differences in parental styles measured with PBI instrument

Table 14. Differences between groups in adult attachment dimensions (Anxiety and Avoidance) and differences in adult attachment styles, measured with ECR-R instrument

Table 15. Differences between groups in Facial Emotion Recognition, measured with DFAR task

Table 16. Errors in Facial Emotion Recognition, differences between BPD and HC groups in the percentage of subjects' attribution when they failed in DFAR task

Table 17. Correlation coefficients among dimensions of parental bonding (PBI) and adult attachment (ECR-R). BPD group  $n=108$

Table 18. Correlation coefficients among dimensions of parental bonding (PBI) and adult attachment (ECR-R). HC group  $n=203$

Table 19. Partial correlation coefficients among dimensions of parental bonding (PBI), adult attachment (ECR-R) and measures of facial emotion recognition (DFAR). BPD group  $n=108$

Table 20. Partial correlation coefficients among dimensions of parental bonding (PBI), adult attachment (ECR-R) and measures of facial emotion recognition (DFAR). HC group  $n=203$

Table 21. Partial correlation coefficients among clinical features and measures of facial emotion recognition (DFAR). BPD group  $n=76$

Table 22. Correlation coefficients among personality dimensions (IIP-64) and measures of facial emotion recognition (DFAR). BPD group  $n=65$

Table 23. Summary of results presented in the research project

*List of Figures / Irudien zerrenda*

**Part One: Introduction** / Lehenengo Atala: Sarrera

1. Irudia. Bartholomew eta Horowitz-en eredua
2. Irudia. Kognizio sozialean eragina duten egitura neuronal nagusiak (Firth & Frith, 2007)
3. Irudia. MNN-n aurpegi-emozioen antzematearen eredua (Daros, Zazkanis & Ruocco, 2013)

**Part Two: Research Project** / Bigarren Atala: Ikerketa Proiektua

Figure 4. Stimuli of DFAR instrument: male and female actors displaying four different conditions

***PART ONE: Introduction /***  
***LEHENENGO ATALA: Sarrera***

## ***1. kapitulua: Nortasunaren Nahasmenduak***

### 1.1. Nortasunaren Nahasmenduen historia eta definizioa

Nortasunaren Nahasmenduen (NN) historian zehar garai ezberdinetan indarrean egon diren teoria nagusiak aipatzen dira atal honetan, teoria klasikoak deskribatzeko psikopatologiaren eskuliburua jarraitu delarik (Pelechano, Miguel, & Hernández, 2008).

NNen lehen urratsak aztertzeke Grezia klasikoko Hipocrates-en (K. a. 460-K. a. 370) deskripzio medikoetara jo behar dugu: Izaeren Teoriara, hain zuzen ere. Teoria honetan, lau izaera mota bereiztu ziren, garai artan indarrean zegoen humoreen teorian oinarrituta: odola, behazun beltza, behazun horia eta flema. Ondoren, Erroma klasikoan, Galeno-k (129-200) teoria hau garatu eta sistematizatu egin zuen. Humore bakoitza lau elementu klasikoekin (airea, lurra, sua eta ura) eta hauen ezaugarriekin (beroa/hotza eta hezea/lehorra) elkartuz hurrengo sailkapena lortu zuen: odol-bizia, melankoniatsua, suminkorra eta flematika.

XIX. mendeko bigarren erdialdeko Alemanian, Gresinger eta Kraepelin autoreek sindrome kliniko nagusiak deskribatzea bilatzen zuten, nagusiki aurrekari premorbidoetan eta gaixoek aurkezten zituzten sintometan oinarrituta. Kraepelin-ek “nortasun autista” terminoa aipatu zuen “erotasun goiztiarra”-ren aurrekari bezala. Kretschmer-ek, berriz, continuum bat proposatu zuen eskizofreniatik psikosi maniako-depresibora, tartean “nortasunak” kokatzen zituelarik. Nortasun hauen larritasun maila, bi poloekiko hurbiltasun edo urruntasunak azaltzen zuen. *Autore klasiko* hauek, aipatutako patologia garatzeko aurretiko joera baten ideia defendatzen zuten, kanpoko gertakariak patologia hauen agerpena suposatuz. Jaspers-ek 1913. urtean, NNak psikosia bezalako entitate nosologikoak ez zirela baieztatu zuen, hala era, psikosiaren agerpena ekarri ahal zutela uste zuen eta buruko nahasmenduen adierazgarriak zirela, norbanako eta besteekiko sufrimendua suposatuz.

*Eredu psikoanalitikoak* garapen pertsonaleko asalduran oinarritutako nortasunaren eta psikopatologiaren teoria aurkezten du, garapen psiko-sexualaren fase bakoitzeko gatazkekin harremana izanik: fase orala, uzkiaroa, zakilaroa (Edipo konplexua), latentzia fasea eta fase genitala. Eredu honetan nortasunaren egiturak aztertzen dira, bi egitura nagusi aipatzen direlarik: psikosi egitura eta neurosi egitura. Egitura hauek 1) *Ni*-aren egituran. 2) defentsa mekanismo moten erabileran eta 3) errealitatearen frogan, oinarritzen dira bereizketa nagusi hau egiteko. Urte batzuk geroago, “borderline” egitura garatu egin zen, Otto Kernberg (1967) autorearen



lanagatik nagusiki, psikosi eta neurosi sailkapenean sartzen ez diren pertsonak sailkatzeko. Gaur egun indarrean dagoen nortasunaren teorietako bat, Millon-en (1981) nortasunaren teoria, NNak ulertzeko ideia honetan oinarritzen da, larritasunaren “continuum” bat osatuz.

XX. mendeko lehen herenaren ostean, *gizarte eredura* hurbiltzen ziren teoriak garatzen hasi ziren. Teoria hauen ekarpen garrantzitsuenak, NNak besteenganako ondorio negatiboak (biolentzia, sexu-erasoak, heriotza, etab.) sortzen zituztela eta besteen ekintzen aurrean sortzen zirela izan ziren. Sozializatzearen prozesuko akats bat bezala ulertzen ziren NNak eredu honetatik, besteekiko kaltearen eragina sortuz, eta aldi berean, arazo biologikoen agerpena beharrezkoa ez zela baieztatzen zuten.

Eredu ezberdin hauek badira komunean dituzten ezaugarri batzuk, NNen egungo definizioan islatzen direnak. Definizio hau DSM-III-an (American Psychiatric Association, 1980) lehenengo aldiz aipatzen da eta gaur egun DSM-5ean (American Psychiatric Association, 2013) indarrean jarraitzen du:

*“A personality disorder is an enduring pattern of inner experience and behavior that deviates markedly from the expectations of the individual’s culture, is pervasive and inflexible, has an onset in adolescence or early adulthood, is stable over time, and leads to distress or impairment”* (APA, 2013).

Aipatutako definizioak hurrengo ekarpen teorikoen bilduma dakar: nortasuna *ezaugarrietan* (hautemateko, pentsatzeko eta harremantzeko joera iraunkorrak, giroarekin zein norberarekin eta testuinguru pertsonal eta sozial anitzetan) oinarrituta dago, egitura finkoak dira eta eraldatzeko zailak, nerabezaroan edo haurtzaroan hasten direnak eta bizi ziklo osoan jarraipena dutenak. Ezaugarri hauek zurrunik eta desegokiak izan behar dira, asaldura funtzionala (lanekoa, soziala, etab.) edo sufrimendu subjektiboa suposatuz. Definizio honek egungo autore gehienek onarpena dauka, hala ere NNen sailkapen sistema kategorialak kritika ugari jaso ditu, aditu gehienak errealitate klinikora gehiago moldatzen den eredu dimentsionalaren edo eredu hibridoaren alde aurkezten direlarik (Morey & Hopwood, 2019).

## **1.2. Diagnostikoa: Sailkapen sistemak**

Diagnostikoen erabilerak psikologia klinikoan eta psikiatrian eztabaida ezberdinak sortu ditu, alde batetik, osasun mentalak duen naturaltasun subjektiboagatik

eta bestetik, gaixotasun bezala eta normaltasun bezala gizarte eta kulturarekin harreman zuzena daukatelako. Arlo klinikoan, diagnostikoaren beharra defendatzen duten hurrengo arrazoiak aipatu ditzakegu (Paris, 2015): 1) profesionalen komunikazioa errazten du; 2) pazienteei beraien sufrimendua gaixotasun baten ondorioa dela adierazten die, bere kausaren azalpen bat eskainiz eta arazoaren ebazpen posible bat aukeratzea posible egiten du, batzuetan prognosia ere erraz dezake; 3) ikertzaileek zientziaren garapen teorikoarekin jarraitzeko beharrezkoa den tresna izan daiteke eta tratamendu egoki bat ezartzea suposatuz dezake. Diagnostikoa egiteko, klinikoek zein ikertzaileek sailkapen kategorial sistemetan oinarritzen dira.

Gaur egun nortasun nahasmenduak diagnostikatzeko bi sailkapen sistema dira nagusi: Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapena (International Classification of Diseases, ICD-10), Osasunaren Mundu Erakundeak (OME, 1992) proposatutakoa eta batez ere Europar mailan erabiltzen dena eta Gaixotasun Mentalen Diagnostiko eta Estatistikako eskuliburua (Diagnostic and Statistical Manual of Mental Disorders, DSM-5), American Psychiatric Association-ek (APA) proposatutakoa, Estatu Batuetan nagusi dena eta Millon-ek garatutako sistema multiaxialean oinarrituta dagoena.

### ***1.2.1. Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapena (ICD)***

Eskuliburuaren egungo bertsioak, ICD-10ek, hiru nortasunaren nahasmendu talde bereizten ditu “F60-F69 Helduaren nortasunaren eta portaeraren nahasmenduak” taldean barneratzen direnak:

*F60. Nahasmendu espezifikoak:* paranoidea, eskizoidea, antisoziala, mugakoa, histrionikoa, obsesibo-konpulsiboa, saiheskaria, menpekoa eta “zehaztu gabekoa”.

*F61. Nahasmendu mistoak:* nortasunaren nahasmendu mistoa eta nortasunaren bariazio problematikoak.

*F62. Nortasunaren bilakaera iraunkorrak:* esperientzia traumatikoen osteko nahasmenduak, gaixotasun psikiatrikoen osteko nahasmenduak, zehaztugabeko nortasunaren beste eraldaketak.

### ***1.2.2. Gaixotasun Mentalen Diagnostiko eta Estatistikako eskuliburua (DSM)***

DSM-III-a nortasunaren nahasmenduak aipatzen zituen eskuliburuaren lehen bertsioa izan zen. DSM-IV-ak diagnostiko sistema penta-axiala barneratu zuen,

nortasunaren nahasmenduak II. ardatzean kokatzen zituelarik, garapenaren nahasmenduekin batera eta buruko nahasmendu nagusiekin (I. ardatza) desberdintasun argia ezarri. Hiru gune desberdintzen zituen eskuliburu honek, proposatzen ziren hamar nortasun nahasmenduak haien ezaugarrien arabera multzokatuz: *A cluster-a*, norbanako arraro eta eszentrikoak (paranoidea, eskizoidea eta eskizotipikoa); *B cluster-a* nortasun alderraiak, emozionalak eta teatralak (histrionikoa, antisoziala, nartzisista eta mugakoa) eta *C cluster-a*, norbanako beldurriak, antsietate handikoak (menpekoa, obsesibo-konpulsioa eta saihezkaria).

Badago laugarren gune bat, mistoa eta ezohikoa bezala ezagutzen dena, aipatutako taldeetan sailkatzen ez ziren norbanakoentzat. Nahasmendu espezifikoen irizpideak betetzen ez zirenean baina, hala ere, norbanakoak aurkezten zituen ezaugarriek ondorez kliniko nabarmena eragiten zutenean, nortasunaren nahasmendu zehaztugabearen kategoria erabiltzen zen.

Eskuliburuaren azken bertsioak, DSM-5-ak (American Psychiatric Association, 2013), ohiko sistema kategorialaz gain (bost ardatzen desagerpenarekin) nortasun nahasmenduetarako sistema dimentsional berri bat proposatzen du (III. sekzioa). Sistema berri honetan sei nortasunaren nahasmendu espezifiko agertzen dira: eskizotipikoa, antisoziala, nartzisista, mugakoa, obsesibo-konpulsioa eta saihezkaria. Horrez gain, ezaugarrien bidez zehaztutako nortasunaren nahasmendua barneratzen da, bost arlotan oinarrituta: afektibitate negatiboa, atxikidura eza, antagonismoa, desinhibitzea eta psikotizismoa.

DSMak proposatzen duen diagnosi dimentsionalak aldaketa kualitatibo handia suposatzen du, klinikoak buruko nahasmenduen errealitate handiago batetara hurbiltzea suposatuko luke sistema dimentsionalean oinarritzea, hala ere badaude zenbait arrazoi sistema kategorialetik sistema dimentsionalera aldatzeko zailtasunak azaltzen dituztenak (Paris, 2015): sistemaren aldaketa bermatzen duen aurkikuntza enpiriko berrien beharra dago; klinikoek zailtasunak diagnosi kategoriala alde batera uzteko; koerikortasuna altua da ez bakarrik nortasunaren nahasmenduetarako; dimentsioek sintoma azpi-klinikoak besterik ez dituzte deskribatzen; erabilgarritasun kliniko eza; eta bere konplexutasunagatik kliniko gehienek ez dute ezagutzen edo ez dute kontuan hartzen.

<b>1. taula. Nortasunaren nahasmendu orokorra diagnostikatzeko irizpideak (DSM-5)</b>
A. Barneko esperientzia eta jarreraren jokabide-eredu iraunkorra, norbanakoaren kulturatik alderatzen dena. Jokabide-eredu hau arlo hauetatiko bitan (edo gehiagotan) aurkezten da: 1- Kognizioa (norbera, beste pertsonak eta gertaerak hautemateko erak) 2- Afektibitatea (erantzun emozionalen maila, intentsitatea, labilitatea eta egonkortasuna) 3- Pertsonarteko funtzionamendua 4- Bulkaden kontrola
B. Jokabide-eredu iraunkorra moldaezina da eta gertaera pertsonal eta sozial askotara hedatzen da.
C. Jokabide-ereduak ondoeza klinikoki esanguratsua edo aktibitate sozial, laboral edo beste arlo garrantzitsuetan hondatzea eragiten du.
D. Jokabide-eredua egonkorra eta iraupen handikoa da, eta bere hasiera nerabezaroan edo adin nagusi goiztiarrean kokatzen da
E. Jokabide-eredua ez da beste buruko nahasmendu baten agerpenagatik azaltzen.
F. Jokabide-eredua ez da sustantzia batek (adib. droga edo medikamentu bat) eragindako efektu fisiologikoen ezta gaixotasun mediku (adib. burezur-garuneko traumatismoa) baten ondorioa.

### 1.3. Prebalentzia

Lehenengo eta behin, aipatzekoa da nortasunaren nahasmenduen epidemiologiaren inguruan dagoen desadostasun handia. Honen arrazoiak nahasmendua beraren naturaltasuna, erabilitako ebaluazio metodoak eta ikerketako populazio mota izan daitezke. Honen ondorioz, nortasunaren nahasmenduen epidemiologiari buruzko datuak eskasak dira estatu mailan. Arlo honetan garatutako ikerketak estatu batuar populazioan oinarritzen dira batik bat. 1960-1986 tarteko datu epidemiologikoekin egindako meta-analisi batean (Casey, 1988), prebalentzia % 2,1 eta % 18 artean zegoela aurkitu zuten. Analisi honetan, pazientearen tratamendu mailak eragina zeukala ikusi zuten NEn prebalentzian, era honetan, populazio orokorrean portzentai baxuagoa aurkitu zuten, lehen mailako osasun-atenzioa jasotzen zuten pazienteetan ugariagoa zen eta azkenik ospitaleratuen pazienteen artean maila altuena aurkitu zuten.

Torgersen-en arabera (2009), nortasunaren nahasmenduekin egindako ikerketa gehienen laginak ez dira adierazgarriak, nahiz eta prebalentziaren emaitzetan joera orokor bat aurkezten den % 7,3 eta % 15,7 bitartean, % 10,3-ko batezbesteko batekin. Aztertutako ikerketa hauetan, nortasunaren nahasmendu prebalenteena obsesibo-kompulsiboa izan zen, pasibo-agresiboa, saiheskaria, mugakoa eta histrionikoa

jarraitzen zutelarik. Ikerketa honetan ezagutarazi zen datu nabarmen bat, ikertutako populazio gune ezberdinek erakutsi zituzten desberdintasunak izan ziren: eskandinaviar herrialdeetan badirudi barnerako joera duten nahasmenduen (saiheskaria, menpekoa eta eskizoidea) prebalentzia altuagoa ematen dela eta kanporako joera (mugakoa eta antisoziala) duten nahasmenduen prebalentzia, berriz, baxuagoa; Erresuma Batua, Alemania edo Estatu Batuekin konparatuta.

#### 1.4. Etiopatogenia

Eredu biologiko-medikuak nortasunaren nahasmenduek beraien agerpena azaltzen duen osagai biologiko sendo bat dutela proposatzen du. Azken urteotan badira nortasunaren nahasmenduak *faktore genetikoekin* erlazionatu dituzten ikerketak (Blasco-Fontecilla et al., 2014; Gutknecht et al., 2007; Kendler et al., 2008). Horrez gain, badira *mekanismo-neuronalak* nortasunaren nahasmendu espezifikoekin erlazionatu dituztenak, mugako nortasunaren nahasmenduarekin hain zuzen ere (Chanen & Kaess, 2012; Chanen et al., 2008; Ruocco, 2005).

Beste alde batetik, gizarte ereduak nahasmendu hauen agerpena interakzio sozialen eta beraietan oinarritutako ikasketan kokatzen dute. Nortasunaren nahasmenduekin erlazionatutako gertaeren artean: trauma sexuala, jazarpen psikologikoa eta sustantzien kontsumoa daude. Gaur egunera arte argitaratutako literatura zientifikoa kontuan hartuta, bi faktore multzo nagusiak (biologia eta giroa) ontzat hartzen dira, genetika eta giroaren arteko interakzioan nortasunaren nahasmenduen agerpenaren gakoa ezarriz (Millon, 1981; Skodol et al., 2002).

Eredu hau jarraituz *temperamentu* kontzeptuaren garrantzia aipatzekoa da, hau da, nortasunaren jatorrizko aldea, jaiotze momentuan haur bakoitzak bakarra duena. Hortaz, temperamentua heredatu egiten den ezaugarri bezala ezagutzen dugu. Normala ez den temperamentu batek ez dauka zergatik helduaroan NN bat eragin behar, baina arrisku faktore baten moduan jokatu dezake. Erlazio hau gauzatzeko nortasunaren ezaugarrien eta giroko estresoreen arteko interakzio konplexu baten bitartez eman daiteke (Paris, 1998).

Urteetan zehar, eredu psikoanalistako kliniko ugarik zoritxarreko haurtzaro baten emaitza bezala ikusten zituzten NNak. Haurtzaro goiztiarraren esperientziak arrisku faktore bezala kontsidera genitzake, baina ezin dugu baieztatu esperientzia

traumatikoak jasaten dituzten haur guztiek helduaroan arrastoak izango dituztenik. Zaintzaileen eraginak ere NNaren agerpenarekin lotura izan dezake, Mugako Nortasunaren Nahasmenduaren (MNN) kasuan adibidez, gurasoen psikopatologia larriarekin erlazionatzen da.

Linehan-ek (Linehan, 1993) MNNren garapenean temperamentuaren ahultasun bat (ezegonkortasun emozionala) azpimarratzen du eta arazoa ulertzeko gurasoen hutsegitea (baliogabetze giroa) dagoela proposatzen du. Atxikimendu ez segurua arazo honekin erlazionatu da, eta NNez gain beste buruko nahasmendu batzuekin ere erlazionatu da, adibidez, depresioarekin.

*Eragin soziala* ere kontuan hartzeko beste faktore garrantzitsu bat da. Sostengu soziala erresilientzia faktore nagusienetako bat da psikopatologiaren aurrean. Nahiz eta temperamentu motak urteetan zehar berdin mantentzen diren, nabaritu daiteke pertsonak jasaten dituzten NN moten aldaketa ematen dela gizarte zein garai ezberdinetan zehar. II. Mundu Gerraren ostean, MNNren areagotzea nabaritu zen. Aurkikuntza honen azalpen arrazional bat proposatzen dute Paris eta Lis autoreek (Paris & Lis, 2013): “ezaugarri disfuntzional berdinak era ezberdinetan aurkezten dira historiako garai ezberdinetan zehar”.

Gaur egun nagusi diren *eredu integratzaileen* arabera, ez dago NN baten garapena bermatuko duen faktore bakar bat honen kausa zuzena izango denik. Aipatutako zenbait faktoreen interakzio konplexuaren eraginean egongo liteke NNen garapenerako kausaren gakoa.

### **1.5. Koerikortasuna**

NN baten diagnostikoa egiterako orduan sistema kategorialek jasotzen dituzten kritiketako bat, NNen artean gainezartzeko joera da. Arlo klinikoaren errealitatean ez da ohikoa izaten NN garbiak aurkitzea, soilik kategoria bakar baterako irizpideak betetzen dituztenak. Horrela, NN desberdinen arteko koerikortasuna altua izaten da (Critchfield, Levy, Clarkin, & Kernberg, 2008). Koerikortasun altuena erakusten duen NNnetako bat mugako nortasunaren nahasmendua dugu, nortasun paranoide, saiheskaria eta obsesibo-kompulsiboarekin erlazio handia erakusten duenak (Nysaeter & Nordahl, 2012).

NNen artean dagoen koerikortasunaz gain, badago erlazio handia NNen eta buruko nahasmendu nagusien artean ere (DSM-IV-ko I. ardatza). Estatu Batuetako

*National Comorbidity Survey*-k (NCS) egindako ikerketa batek NNen eta I. ardatzeko nahasmenduen arteko asoziazio positiboa aurkitu zuten, B cluster-eko nahasmenduak koerikortasun altuena aurkeztuz, nahasmendu distimikoarekin, nahasmendu bipolarrekin, nahasmendu aldizkako-leherkariarekin eta arreta-faltaren eta hiperaktibitatearen sindromearekin (AFHS) (Lenzenweger, Lane, Loranger, & Kessler, 2007).

*Antsietate nahasmenduak* NNekin erlazionatu dira sarritan. 1980-2010 urte artean burututako meta-analisi batek (Friborg, Martinussen, Kaiser, Øvergård, & Rosenvinge, 2013) NNen eta antsietate-nahasmendu ezberdinen arteko lotura hauteman zuen: ikara nahasmenduak, fobia soziala, antsietate orokortuaren nahasmendua, nahasmendu obsesibo-konpulsiboa eta trauma-osteko estresak eragindako nahasmendua. C cluster-eko nahasmenduak antsietate nahasmenduekin koerikortasun altuena aurkeztu zutenak izan ziren, hurrengo ordenan: saiheskaria, obsesibo-konpulsiboa eta menpekoa. Fobia sozialak NN saiheskariarekin espezifikotasuna aurkeztu zuen.

Emakumeen lagin bat garapenaren hiru momentu ezberdinetan aztertu zuen ikerketa batean, *sintoma depresiboen* eta NN-en presentziaren arteko erlazioa baieztatu zen (Enfoux et al., 2013). C cluster-eko nahasmenduak sintoma depresiboen agerpenarekin erlazionatu ziren. Garapenaren momentuak kontuan izanda, NN antisoziala eta MNNren presentzia altuagoa hauteman zen emakume gazteetan.

*Elikaduraren nahasmenduak* NNekin koerikortasun maila altua duten buruko nortasunak dira. Meta-analisi batean (Friborg et al., 2014), bi patologia hauen arteko koerikortasuna aztertzen zuten 30 ikerketa aztertu ziren. Hauen ondorioen artean, elikadura nahasmendu zehaztugabea eta betekadagatiko nahasmendua gutxienez NN baten presentziarekin erlazionatzen da. Hala ere, ez zuten NN espezifikoekin erlazio nabarmenak aurkitu.

*Nahasmendu bipolarrak* (NB) ere lotura sendoa aurkezten du NN-ekin, batez ere B cluster-eko nahasmenduekin. Bi patologia hauek batera agertzen direnean (NB+NN-B) sintoma larriagoen presentziarekin (diserregulazio emozionala, suizidio saiakeren larritasuna, ospitaleratze psikiatrikoak eta auto-lesioak) erlazionatzen dira, horrez gain gertakari luzeagoekin erlazionatuta dago, egoera eutimiko laburragoekin eta

gaixotasunaren hasiera goiztiarrago batekin. Arazo hauek bereziki nabarmenak dira MNNren kasuan (Apfelbaum, Regalado, Herman, Teitelbaum, & Gagliesi, 2013).

### 1.6. Ebaluazio instrumentuak

NNak ebaluatzeko instrumentuen artean: aipatutako sailkapen sistema kategorialak, elkarrizketa egituratu eta erdi-egituratuak, auto-informeak, hirugarren pertsoneri egindako galdeketa eta teknika proiektiboak erabiltzen dira.

*Elkarrizketetan* zehar, klinikoak egoera jakin baterekin lotutako arazo eta nortasunaren ezaugarrien arteko bereizpena egin dezake. Ezaugarriek denboran eta egoera ezberdinetan zehar finko jarraitu behar dute NNetan. NNak diagnostikatu ahal izateko ohiko akatsen artean hurrengo hauek aipatzen dira: halo efektua, atribuzio funtsezko akatsa eta informazioaren distortsioa. Beste alde batetik, elkarrizketak pazientearen behaketa zuzena errazten du.

NN-etarako elkarrizketa erabiliena DMS-IV eskuliburuko irizpideetan oinarritzen dena da: *Structured Clinical Interview for DSM-IV Axis II Personality Disorders* SCID-II (First, Gibbon, Spitzer, Williams, & Benjamin, 1997). Elkarrizketa hau, eskuliburuak aurkezten dituen 11 NN ezberdinen diagnostikoa egiteko baliogarria da. Lehendabizi, parte hartzaileak autoinforme bat bete behar du, “screening” moduko froga baten moduan jokatzeko duena (Egia/Gezurra). Ondoren, positiboak izan diren NN-etarako elkarrizketa egiten da, era honetan diagnosis egiaztatu daiteke. Arlo kliniko zein ikerkuntzan erabiltzen den beste elkarrizketa bat *International Personality Disorder Examination* (IPDE; (Loranger et al., 1994)) da. Elkarrizketa honek aplikazio prozedura antzeko bat dauka, auto-informe erako galdeketa batean eta ondorengo elkarrizketa batean datza.

Elkarrizketez gain, informazioa *auto-informe* ezberdinekin osatzea gomendagarria da datu objektiboak eskainiz. Hauen artean nortasun normala ebaluatzen duten instrumentuak aurki ditzakegu: *Sixteen Personality Factors Fifth Edition* (16PF-5 (Cattell, Cattell, & Cattell, 1993)), *Minnesota Multiphasic Personality Inventory* (MMPI (Hathaway & McKinley, 1943)) eta bere bigarren bertsio berrikusia (MMPI-2 (Butcher, Dahlstrom, R., Tellegen, & Kreammer, 1989)). NN-ak ebaluatzeko instrumentu erabilienak: *Millon Clinical Multiaxial Inventory*, gaur egun bere laugarren



bertsioan (MCMI-IV, (Millon, Grossman, & Millon, 2015)) eta *Personality Diagnostic Questionnaire-4+* (PDQ-4+ (Hyler, 1994)) dira.

Bost Handien ereduak galdeketa berri bat proposatzen du: NEO Personality Inventory (NEO-PI; (Costa & McCrae, 1985)), gaur egun bere hirugarren bertsioan dagoena (NEO-PI-3; (McCrae, Costa Jr, & Martin, 2005)). 240 item-ez osatuta dago, Likert eskalan bost aukeren bitartez erantzuten da eta bost faktore nagusiak ebaluatzen ditu: Neurotizismoa, Kanporakoitasuna, Irekitasuna, Adeitasuna eta Erantzukizuna. Faktore bakoitza sei fazetaz osatuta dago, horrela 35 puntuazio ezberdin lortuz.

Era paraleloan, faktore psikobiologikoetan oinarritutako eredu bat garatu zen. Eredu hau Eysenck (1992) eta Zuckerman (1992) autoreek funtzionamendu neurologikoko eta genetikako ikerketetan oinarrituta dago: Bost Faktore Alternatiboaren ereduak. Eskala autoaplikatu berri bat garatu zen nortasunaren bost dimentsio berri hauek neurtzeko. *Zuckerman-Kuhlman Personality Questionnaire (ZKPQ-III;* (Zuckerman, Kuhlman, Joireman, Teta, & Kraft, 1993)). Hauek dira neurtzen dituen dimentsioak: neurotizismo-antsietatea, aktibitatea, gizartekoitasuna, inpulsibitatea eta sentazioen bilaketa eta agresibitate-etsaitasuna.

DSM-5-ak proposatzen duen eredu dimentsionalean oinarrituta *Personality Inventory for DSM-5* (Krueger, Derringer, Markon, Watson, & Skodol, 2012) instrumentua aurki dezakegu. Eskala honek, nortasunaren ezaugarrien 25 fazetak ebaluatzen ditu.

Pazienteari buruzko informazio baliagarria eskuratzeko beste era bat hirugarren pertsonen egindako galdeketak dira. Helburu honetarako, kalifikazio eskalak erabiltzen dira, adibidez: *Personality Assessment Schedule (PAS;* (Tyrer, 1988)).

Auto-informe hauek badituzte muga ezberdinak, galdeketetan orokorrean dauden isuriez gain, normalean galdeketek pazienteek emandako erantzunak handitzen dituzte, joera hau faktore ezberdinengatik azaltzen da: egoerako faktoreak, onarpen isuria eta sintomak handitzeko joera norberak deskribatzen dituenean. NNak diagnostikatzeko sistema kategorialean oinarritutako instrumentuek kritika gogorrak jasan dituzte, epaileen arteko fidagarritasun baxuagatik eta sistema hauek dakarten zailtasunengatik: normalitate eta anormalitatearen arteko ebaki-puntuak ezartzeko zailtasunak, barne sendotasun eza, nahasmendu ezberdinek sintoma berdinak aurkeztea,

nortasun nahasmendu anitzak diagnostikatzeko aukera eta I. ardatzeko sindromeekin gainjartzea. Horrez gain, oso baliagarriak izan daiteken adierazle objektiboak dira, bai klinika arloan zein ikerketarako.

Azkenik, nortasuna neurtzeko eredu psikodinamikoan oinarritutako klinikoak *teknika proiektiboez* baliatzen dira. Teknika hauen ezaugarri nagusia, informazioaren anbiguotasuna da. Era honetan pazienteak aurkeztutako materialari zentzua eman behar dio, bere nortasunaren alde inkontzientea material honetan proiektatuz. Teknika proiektiboen artean, instrumenturik erabilienetariko bat Rorschach-en Test-a (Rorschach, 1964) dugu, *Exner Comprehensive System*-aren (Exner, 1974) bitartez neurtua. Moldatutako bertsio honek, administratzeko eta puntuatzeko metodo berri bat proposatzen du, instrumentuaren baliotasun maila hobetuz. Beste alde baterik *Thematic Apperception Test*-a (TAT; (H. A. Murray, 1943) dugu, zuri-beltzean inprimatutako 30 irudiz osatuta dagoena. Egoera anbiguo ezberdinak aurkezten ditu, parte hartzaileak istorio bat garatu behar du aurkezten zaion informazioarekin.

<b>2. taula. Nortasunaren nahasmenduen ebaluazio instrumentu nagusiak</b>			
<b>Akronimoa:</b>	<b>Izen osoa:</b>	<b>Autoreak:</b>	<b>Mota:</b>
<b>SCID-II</b>	<i>Structured Clinical Interview for DSM-IV Axis II of Personality Disorders</i>	First, Gibbon, Spitzer, Williams , & Benjamin, 1997	E
<b>IPDE</b>	<i>International Personality Disorder Examination</i>	Loranger et al., 1994	E
<b>16PF-5</b>	<i>Sixteen Personality Factors Fifth Edition</i>	Catell, Catell, & Catell, 1993	G
<b>MMPI-2</b>	<i>Minnesota Multiphasic Personality Inventory-2</i>	Butcher, Dahlstrom, Graham, Tellegen, & Kreammer, 1989	G
<b>MCMII-IV</b>	<i>Millon Clinical Multiaxial Inventory-IV</i>	Millon, Grossman, & Millon, 2015	G
<b>PDQ-4+</b>	<i>Personality Diagnostic Questionnaire-4+</i>	Hyer, 1994	G
<b>NEO-PI-3</b>	<i>NEO Personality Inventory-3</i>	McCrae, Costa, & Martin, 2005	G
<b>ZKPQ-III</b>	<i>Zuckerman-Kuhlman Personality Questionnaire</i>	Zuckerman, Kuhlman, Joireman, Teta, & Kraft, 1993	G
<b>PID-5</b>	<i>Personality Inventory for DSM-5</i>	Krueger, Derringer, Markon, Watson, & Skodol, 2012	G
<b>PAS</b>	<i>Personality Assessment Schedule</i>	Tyler, 1988	G
—	<i>Rorschach Inkblot Method (Exner's comprehensive system)</i>	Rorschach, 1964; Exner, 1986	TP
<b>TAT</b>	<i>Thematic Apperception Test</i>	Murray, 1943	TP

E = Elkarrizketa    G= Galde-sorta    TP= Teknika Proiektiboa

## **1.7. Tratamendu nagusiak**

Tratamenduak bi talde nagusitan sailka ditzakegu: alde batetik tratamendu psikofarmakologikoak eta bestetik tratamendu psikoterapeutikoak. Naturaltasun biologiko eta psikologikoak desberdintasun argia erakusten dute bi tratamendu mota hauen artean, hala ere, NNak jasaten dituzten paziente gehienetan bi tratamendu mota hauen konbinazioa erabiltzen da, nahasmendu hauen sintomen larritasuna eta nahasmenduek aurkezten duten koerikortasun altuaren ondorioz.

### ***1.7.1. Tratamendu psikofarmakologikoak***

Badaude buruko nahasmendu espezifikoenzat garatutako farmakoak (psikosia, nahasmendu bipolarra eta depresio melankoniatsuak). NNen kasuan, berriz, ez dago farmako espezifikorik, psikofarmako barietate ugaria jasotzen dute sintoma komorbidoei aurre egiteko. Hauen artean ohikoena: antidepressiboak (distimiarekin edo depresio nagusiarekin koerikortasuna dagoenean), gogo-aldartearen egonkortzaileak (aurkezten duten ezegonkortasun emozionalari aurre egiteko) eta antipsikotikoak (paziente larrietan dosi baxuetan erabiltzen dira, adib. MNNren kasu larrietan krisi egoeretan ematen diren eldarnioak bezalako sintoma psikotikoak tratatzeko). Poli-medikazioa maiz ematen da NNak duten pazienteetan, sintoma komorbidoak oso ohikoak baitira.

### ***1.7.2. Tratamendu psikoterapeutikoak***

Badira psikoterapia mota ugari buruko nahasmenduak tratatzeko orduan erabiltzen direnak. Hala ere, hauetatik bakar batzuek baino ez dute hauen efikazia ebidentzia enpirikoaren bitartez frogatu, ausazko kontrol frogen bitartez. NNen tratamendurako, azken bi hamarkadetan terapia integratzaileak garatu dira, eredu psikologiko klasikoaren ezaugarrietan oinarrituta. Tratamendu espezializatu hauek, buruko nahasmenduak dituzten pazienteen eskaeraren gorakadarengatik eta psikoterapia klasikoek hobekuntzarako erakutsi dituzten zailtasunengatik sortuak izan dira. Psikoterapia berri hauek, MNN duten pazienteak tratatzeko efikazia frogatu dute, eraginkorrak diren interbentzio eta osagaietan ardatzen dira, tratamenduen osagai iatrogenikoak murrizten dituzten bitartean.

a) *Psikoterapia psikodinamikoa*: 90. hamarkadara arte NNetarako psikoterapiarik erabiliena izan zen. Tratamenduaren efikaziari buruzko ikerketa gehien dituen psikoterapia mota da (Dixon-Gordon, Turner, & Chapman, 2011). Eredu honetako kliniko ugariak beste psikoterapia ereduak teknikez baliatzea erabaki zuten NNak tratatu ahal izateko, horrela NNetarako psikoterapia espezifikoak sortu zituzten, adibidez: Peter Fonagy eta Anthony Bateman (MBT) edo Otto Kernberg (TFP).

b) *Terapia kognitibo-konduktuala*, “Cognitive Behavioral Therapy”; CBT: konponbideen bilaketan ardazturiko psikoterapia mota da. Arazoak konpontzera eta hauei aurre egiteko gaitasunak lortzera bideratuta dago. NNak tratatzeko ebidentzia frogatu du (Verheul & Herbrink, 2007). NNen tratamendurako eskuliburu espezifiko bat aurki dezakegu (Beck & Freedman, 1990).

c) *Eskemen terapia*, “Schema-focused therapy”, SFT: Jeffrey Young-ek garatutako psikoterapia integratzailea da. NNak, depresio kronikoak eta norbanako eta bikoteen arteko beste arazo batzuk tratatzeko sortua izan zen. Terapia kognitiboko, konduktualeko, harreman objektalen teoriako eta Gestalt terapiako elementuak barneratzen ditu. Ikerketa batek NNak tratatzeko eskemen terapiaren aldeko datuak lortu zituen, errentagarritasun handiagoa lortuz, azalpenetara orientatutako psikoterapia eta ohiko tratamenduarekin konparatuta (Bamelis, Arntz, Wetzelaer, Verdoorn, & Evers, 2015).

d) *Terapia dialektiko konduktuala*, “Dialectical Behavioral Therapy”; DBT (Linehan, 1993): MNNrako ebidentzia lortu zuen lehen tratamendu psikoterapeutikoa izan zen, bere efikazia saio kliniko ezberdinetan lortuz (Linehan, Armstrong, Suarez, Allmon, & Heard, 1991; Linehan, Comtois, Murray, & et al., 2006). Terapia kognitibo-konduktualaren moldaketa bat da, beste eredu psikologikoen interbentzioekin konbinatu egiten dena. Terapia mota hau bereziki diseinatua izan da diserregulazio emozionala eta portaera oldarkorrek tratatu ahal izateko.

e) *Transferentzian ardaztutako psikoterapia*, “Transference Focused Psychotherapy”; TFP (Clarkin, Yeomans, & Kernberg, 1999): Otto Kernberg psikoanalisten teorian oinarritutako terapia da. Beste psikoterapia espezializatuen artean bereizten da harreman terapeutikoan jartzen duen garrantziagatik, hots, saio klinikoetan ematen diren terapeuta eta pazientearen arteko harreman arazoetan. Ebidentzia enpirikoa lortu du bi

saio klinikoetan zehar (Clarkin, Levy, Lenzenweger, & Kernberg, 2007; Doering et al., 2010).

f) *Mentalizazioan oinarritutako terapia*, “Mentalization Based Therapy”; MBT (Bateman, & Fonagy, 1999). Atxikimenduaren teoriarik eta eredu kognitiboan oinarrituta dago. MNN duten pertsonen mentalizatzeko arazoak dituztela baieztatzen du: emozioen antzematean (bai norberarenak zein beste pertsonenak). Psikoterapia indibiduala eta taldekoa konbinatzen ditu, tresna kognitiboak erabiltzen ditu emozioak hauteman, jasan eta era egokituago batera moldatu ahal izateko. Ebidentzia enpirikoa frogatu du, sortu izan zen ospitaleratze zentroan burututako ikerketetan (Bateman & Fonagy, 2001, 2009).

g) *Terapia kognitibo analitikoa* (Cognitive analytic therapy; (Ryle, 1975)): bi eredu psikologiko nagusietan oinarritutako terapia da (kognitiboa eta psikodinamikoa). Harreman objektalen teoriak garrantzia hartzen du terapia mota honetan. Nerabe populazioa kontuan hartuta frogatua izan da, datu arrakastatsuek islatuz (Chanen & McCutcheon, 2013).

### **1.8. Kurtsoa eta prognosia**

Osasun mentalaren arloan, NNak nahasmendu kronikoak, iraupen luzekoak eta aldaketa itxaropen gutxikoak bezala ikusten dira, sarritan “*tratatu-ezinak*” bezala deskribatuak izan direlarik. Egia da NNko kasu larrietan, adibidez MNN kasu jakin batzuetan, tratamendu luzeak jasaten dituztela, ospitaleratzeak beharrezkoak izaten direla eta suizidioa bezalako zorigaitzeko ondorioak ager daitezkeela. Hala eta guztiz ere, iraupen luzeko ikerketa longitudinalek paziente hauen gehiengoak denborarekin hoberantz egiten dutela frogatu dute eta hauen pronostikoa beste buruko nahasmenduetan baino hobea izan daiteke (Paris, 2015).

NN duten pazienteen eboluzioaren ikerketan 80. hamarkadan ospitale publiko zein pribatuetan egindako aurkikuntzak azpimarra ditzakegu (McGlashan, 1986; Paris, Brown, & Nowlis, 1987; Stone, 1990). Hauen artean, 15 urteko ikerketa longitudinal batek pazienteek 40 urteko pazienteek funtzionamendu psikosozial hobea zutela eta gehienek ez zutela tratamenduan jarraitzen aurkitu zuten.

*National Institute of Mental Health*-ek beste ikerketa longitudinal bat finantzatu zuen, *Collaborative Longitudinal Personality Disorders Study* (CLPS) izenekoa. 10

urteko iraupeneko ikerketa honetan MNN, NN esquizotipikoa, NN saiheskaria eta NN obsesibo-konpultsiboa zuten pazienteak aztertu egin ziren. Ikerketa honetan parte hartu zuten pazienteek, kategoria ezberdinetan, denborarekin funtzionamendua hobetu egin zuten, maila normaletara helduz (Gunderson et al., 2011).

*Longitudinal Study of Personality Disorders* (Lenzenweger, 1999) ikerketan ere joera berdina ikusi zen, denboran zehar parte-hartzaile unibertsitarioen helduaroraino jarraipena egin zieten, sintomen desagerpena hauteman zutelarik. MNN zuten parte-hartzaileek ere hoberrantz egin zuten. NN-en bilakaera ikertu zuen beste talde garrantzitsu bat *McLean Study of Adult Development* izan zen (Zanarini, Frankenburg, Reich, & Fitzmaurice, 2012). Ikerketa honek pazienteen 20 urteko eboluzioa islatzen du eta gaur egun garapenean jarraitzen du. CLPSeq lortu zituen emaitza berdinak erdietsi ditu, sintomen desagerpena emaitza ohikoena dela aurkituz. Hala ere, badago gutxiengo bat funtzionamendu psikosozialeko arazoak aurkezten dituenak.

Emaitza hauek NN duten pazienteak denborarekin hoberrantz egiten dutela frogatzen dute, nahiz eta kasu batzuetan arazo psikosozialak mantendu egiten diren, hala nola: lanean edo pertsonen arteko harremanetan azaltzen direnak.

## ***2. kapitulua: Mugako Nortasunaren Nahasmendua***



## 2.1. Definizioa eta garapen historikoa

Mugako Nortasunaren Nahasmendua (MNN) pertsonen arteko harremanetan, afektibitatean eta auto-irudian ematen den ezegonkortasunagatik bereizten den jokaera iraunkorrean datza, bulkaden kontrol ezarekin ematen dena (American Psychiatric Association, 2013). Gaur egun aurkezten diren definizio osoenatariko bat Leichsenring eta kolaboratzaileena (2011) dugu:

*“Borderline personality disorder is a common mental disorder associated with high rates of suicide, severe functional impairment, high rates of comorbid mental disorders, intensive use of treatment, and high costs to society.” (Leichsenring, Leibing, Kruse, New & Leweke, 2011, 74. or.)*

Eredu biopsikosozialean oinarritzen den definizio honetan aipatzen den bezala, sintoma larriak aurkezten dituen nahasmendua da, hala nola: autolesioak (Bohus et al., 2000) eta suizidio saiakerak (Fyer, Frances, Sullivan, Hurt, & Clarkin, 1988). Eztabaida handia aurki dezakegu MNN kontzeptuaren inguruan, nahasmenduaren naturaltasun heterogeneoagatik eta nortasunaren teoria ezberdinek nahasmenduaren ezaugarrien azalpen ezberdinak ematen dituztelako.

MNN definitzeko “muga” (*borderline*) terminoa erabili zuen lehen autorea Adolph Stern (1938) izan zen, ikuspuntu psikoanalitikoan oinarritutako argitalpen batean, alde psikotiko edo neurotikoan sailkatu ezin ziren pazienteak izendatzeko “*neurosiaren mugako taldea*”. Geroago, MNN zuten pazienteak termino ezberdinekin izendatuak izan ziren, adibidez: “*eskizofrenia anbulatorioa*” (Zilboorg, 1941), “*eskizofrenia pseudoneurotikoa*” (Hoch & Polatin, 1949) edo “*izaera psikotikoa*” (Frosch, 1964).

Kontzeptua Otto Kernberg autoreak garatu zuen eredu psikodinamikoan oinarrituta (Kernberg, 1967, 1975). Paziante hauetan defentsa mekanismo primitiboak (eszisioa), objektu harremanen internalizazio patologikoa eta Ni-aren identitate eza azpimarratu zituen, era honetan sailkapen talde berri bat sortu zuen “*nortasunaren borderline egitura*”, gaur egun ikuspuntu psikodinamikoko terapietan erabiltzen dena.

MNN lehen aldiz DSM-IIIan (American Psychiatric Association, 1980) ofizialki onartua izan zen, NNen kapituluaren barneratuta eta hainbat klinikoren eta ikertzaileen arreta izan zuen. DSM-IV-an irizpide berri bat barneratu zen (guztira bederatzi irizpide,

bost gutxienez bete behar dira diagnostikoa egin ahal izateko). Era honetan, MNN duten pazienteen heterogeneotasuna oso altua da, bere diagnostikoa egiteko irizpideen konbinazio ugari eman daitezkeelako.

### 3. taula. Mugako Nortasunaren Nahasmenduaren sailkapena (DSM eskuliburuetatik itzulita)

DSM-IV-TR (2001)	DSM-5 (2013)
<p>Pertsonen arteko harremanetan, auto-irudian eta afektibitatean ematen den ezegonkortasunez eta bulkada biziz bereizten den jokaera nagusia, helduaroko lehen garaietan hasi eta testuinguru ezberdinetan aurkitzen dena. Bost baieztapenetan (edo gehiagotan) agertzen da:</p>	<p>Nortasunaren nahasmendu baten ezaugarri nagusiak nortasunaren (self eta pertsonen artekoa) funtzionamenduaren zailtasunak eta nortasunaren ezaugarri patologikoen presentzia dira. Mugako nortasunaren nahasmendua diagnostikatzeko hurrengo irizpideak eman behar dira:</p>
<p>1. Abandonu erreala edo irudizkoa ekiditeko halabeharrezko ahaleginak (Oharra: Ez dira 5. irizpidean kontuan hartzen diren suizidio portaerak ezta portaera auto-lesiboak barneratzen).</p>	<p>A. Nortasunaren funtzionamenduaren zailtasun nabarmenak, hurrengoengatik adieraziak:</p>
<p>2. Pertsonen arteko jokaera ezegonkor gogorak, idealizazio eta debaluazioaren muturren arteko alternantziagatik bereizten direnak.</p>	<p>1. Self funtzionamenduaren zailtasunak (a edo b): a. Identitatea; b. Self-direkzioa; eta</p>
<p>3. Identitatearen asaldura: auto-irudiaren eta norbere zentzuaren ezegonkortasun handia eta iraunkorra</p>	<p>2. Pertsonen arteko funtzionamenduaren zailtasunak (a edo b): a. Enpatia; b. Intimitatea</p>
<p>4. Oldarkortasuna, auto-lesiboak izan daitezken bi arlo edo gehiagotan (adib.: gastuak, sexua, drogak, ausarkeriaz gidatzea, betekadak). (Oharra: Ez dira 5. irizpidean kontuan hartzen diren suizidio portaerak ezta portaera auto-lesiboak barneratzen)</p>	<p>B. Nortasunaren ezaugarri patologikoak hurrengo arloetan:</p>
<p>5. Suizidio portaera, jarrera edo mehatxu errepikariak edo jokaera auto-lesiboak.</p>	<p>1. Afektu negatiboa, hurrengoengatik bereiztua:</p>
<p>6. Ezegonkortasuna afektibitatean, gogoaldatearen erreaktibotasunak eraginda (adib.: disforia, suminkortasun edo antsietate gertaera biziak, orokorrean ordu batzuk irauten dutenak eta, oso gutxitan, egun batzuk</p>	<p>a. Labilitate emozionala; b. Antsietatea; c. Ziurtasun-gabezia banaketari lotuta; d. Depresioa</p> <p>2. Desinhibitzea, hurrengoengatik bereizten dena:</p>
	<p>a. Oldarkortasuna; b. Arriskuak hartzea</p> <p>3. Antagonismoa, hurrengoengatik bereizten dena:</p>
	<p>a. Etsaitasuna</p> <p>C. Nortasunaren funtzionamenduaren zailtasunak eta norbanakoaren nortasunaren ezaugarrien espresioa</p>

baino gehiago).	denboran eta egoeretan zehar egonkorak dira.
7. Huts sentsazio kronikoa.	
8. Haserre desegoki eta bizia, edo hira kontrolatzeko arazoak (adib.: jenio txarra sarritan aurkeztea, etengabeko haserrea, borroka fisiko errepikariak).	D. Nortasunaren funtzionamenduaren zailtasunak eta norbanakoaren nortasunaren ezaugarrien espresioa ez dira hautematen ohikoak bezala norbanakoaren garapen aroagatik edo giro soziokulturalagatik.
9. Ideia paranoide iragankorrak, estresarekin edo sintoma disoziatibo larriekin erlazionatuak.	E. Nortasunaren funtzionamenduaren zailtasunak eta norbanakoaren nortasunaren ezaugarrien espresioa ez daude soilik sustantzia (adib. droga edo medikazioa) baten efektu fisiologikoekin zuzenean lotuta edo kondizio mediku orokor batekin lotuta (adib. buruko trauma larria).

Sailkapen kategorial klasiko honez gain, DSM-5ak bere III. Sekzioan eredu hibrido bat proposatzen du, dimentsional-kategoria hain zuzen ere. Eredu honek NNak hurrengo hiru sailetan eragiten duen konstrukto bat bezala definitzen du: nortasunaren funtzionamenduaren *self*-arekiko (identitatea eta auto-norabidea) asaldura; pertsonen arteko ezaugarriak (enpatia eta harreman estuak); eta nortasunaren ezaugarri patologikoak (NN bakoitzak espezifikoak ditu).

MNNren kasuan identitatearen, auto-norabidearen, enpatiaren edo/eta harreman estuen asaldura proposatzen da, afektibitate negatiboa eta antagonismo edo/eta desinhibizio arloetako nortasunaren ezaugarri ez moldakor espezifikoekin. Eredu honek gaur egun ez du frogatu ebidentzia enpirikorik. Horregatik, ikerketa arlorako proposatzen da, bere baliotasuna frogatzeko.

CIE-10 eskuliburuan, *ezegonkortasun emozionalaren nortasunaren nahasmendua* barneratzen da bi azpi-motekin: oldarkorra (ezegonkortasun emozionala eta bulkaden kontrol eza dira nagusi, hirugarren pertsonetikiko biolentziarekin batera) eta mugakoa (ezegonkortasun emozionala, auto-irudikoa eta harreman sozialetakoa, autolesioekin eta suizidio saioekin batera dira nagusi).

**4. taula. Ezegonkortasun emozionalaren nortasunaren nahasmendua (CIE-10)****F60.30 Oldarkor mota**

- A. Nortasunaren nahasmendurako irizpide orokorrak bete behar ditu (F60).
- B. Gutxienez hurrengo irizpidetatik hiru, (2) irizpidea derrigorrezkoa izanik:
- 1) Ustekabean jokatzeko eta ondorioak kontuan ez hartzeko alde aurretiko jarrera
  - 2) Jarrera liskarzalea eta besteekin gatazkak izateko alde aurretiko jarrera, batez ere norbere ekintza oldarkorrek galarazi edo gaitzesten direnean.
  - 3) Haserrealdi bizietarako eta biolentziarako alde aurretiko jarrera norbere portaera leherkorrek kontrolatzeko ezgaitasunarekin.
  - 4) Zailtasuna bat bateko saria eskaintzen ez duten aktibitate iraunkorrek mantentzeko.
  - 5) Umore ezegonkor eta guratsua.

**F60.31 Mugako mota (*borderline*)**

- A. Nortasunaren nahasmenduetarako irizpide orokorrak bete behar ditu (F60).
- B. Goian aipatutako gutxienez hiru sintoma aurkeztu behar dira (F60.3), horrez gain gutxienez hauetariko bi:
- 1) Norbere irudiaren, helburu pertsonalen eta barneko lehentasunetan (lehentasun sexualak barne) asaldurak eta zalantzak.
  - 2) Erraztasuna harreman bizi eta ezegonkorretan sartzeko, sarritan sentimenduzko krisietan amaitzen dutenak.
  - 3) Gehiegizko ahaleginak abandonatuak izatea ekiditeko.
  - 4) Etengabeko auto-erasoak, mehatxuak edo ekintzak.
  - 5) Huts sentrazio kronikoak.

**2.2. Ezaugarri nagusiak eta sintomak**

*Ezegonkortasuna pertsonen arteko harremanetan:* NN-ak ulertzeko ezinbestekoa den gakoetariko bat pertsonen arteko harremanak dira. MNNren kasuan, arlo sozialak garrantzi handia izango du. Alde batetik, nahasmenduaren garapenean lehendabiziko harremanek (gurasoekin) jokatzeko duten papera funtsezkoa da. Bestetik, MNN duten pertsonen harremanak ezegonkortasunagatik bereizten dira, hots: idealizazioaren eta debaluazioaren arteko muturretan kokatzen dira. Muturretan kokatzeko joerara, psikoanaliaren ikuspuntutik, eszizioaren defentsa mekanismo primitiboaren agerpenarekin erlazionatzen da, hau da: norbanakoak ezin du objektua osotasun batean ulertu, bere alde positibo eta negatiboekin. Horregatik, pertsonak “onak eta txarrak” edo “zuri-beltzean” bezala ikusten dituzte.

*Ezegonkortasuna auto-irudian:* Nortzuk diren galderari erantzuteko zailtasunak izaten dituzte MNN duten pertsonak. Honek, haien interesak eta baloreak etengabe

aldatzen egotea eragin dezake. Identitatearen asaldura bezala deskribatu egiten da DSM-5ean.

*Oldarkortasuna (inpulsibitatea):* Nahasmendua definitzen duen sintoma nabarmenetako bat da. Oldarkortasunerako joera hau norbere osasunerako kaltegarriak diren ekintzetan isla daiteke.

*Beldurra abandonuaren aurrean:* MNNko ezaugarri nagusietako bat da, DSM-IV eskuliburuan irizpide bezala aipatu zena. Argitaratu berri den azterketa sistematiko batek (Palihawadana & Broadbear, 2019) ezaugarri honekin egin diren ikerketak aztertzen ditu MNN-n. Azterketa honen emaitzek, abandonuaren aurreko beldurraren garrantzia azpimarratzen du, honen eragina hainbat gertaerekin lotuz: harreman terapeutikoarekin, suizidio saiakerekin, autolesioekin, erabilera klinikoarekin eta prognosiarekin.

*Autolesioak eta suizidio saiakerak:* Erlazio handia duten bi sintoma dira. Kasu batzuetan, autolesioen agerpenak suizidioaren aurrekariak izan daitezke (Hamza, Stewart, & Willoughby, 2012). Autolesioak, literatura zientifikoan “suizidioa bilatzen ez duten autolesioak” (Nonsuicidal Self-Injury; NSSI) bezala aztertu izan dira hainbat ikerketetan, hurrengo definizioa kontuan izanik: norbere gorputzaren nahitaezko kaltetze zuzena da, intentzio hilgarririk gabe ematen dena. Sintoma hau MNN duten pazienteen % 50-80 arteko prebalentzian kokatzen da (Snir, Rafaeli, Gadassi, Berenson, & Downey, 2015). Autolesioen agerpenaren zergatia ikertua izan den gai bat da. Huen funtzioa multifuntzionala dela esan dezakegu, baina kasu gehienetan afektibitatearen erregulazioak garrantzia hartzen du (Armev, Crowther, & Miller, 2011). Suizidio saiakerak ohikoak dira MNN duten pazienteetan. Ikerketa batek MNN zuten pazienteen % 73ak jasan zituztela aurkitu zuten eta hauen arrisku faktoreak aipatu zituzten: nagusiagoak izatea, aurreko suizidio saiakerak izatea, nortasun antisoziala, inpulsibitatea eta gogo-aldartearen depresioa (Soloff, Lis, Kelly, Cornelius, & Ulrich, 1994). Beste ikerketa batzuk MNN duten pazienteen artean % 70-79an kokatu zuten suizidio saiakeren prebalentzia (Black, Blum, Pfohl, & Hale, 2004; Zonarini et al., 2008).

*Ezegonkortasuna afektibitatean:* Gogo-aldartearen etengabeko aldaketa izaten dute. Ezaugarri honen barne disforia gertaerak, huts sentazioa eta haserre desegokia koka ditzakegu.

*Idea paranoide iragankorrak:* Krisi momentuetan sintoma psikotikoak ager daitezke MNN duten pertsonetan. Sintoma hauek eldarnioak izaten dira, askotan ideia paranoideak, eta estres momentu jakinetan agertzen dira. Ez dira iraunkorrak izaten.

### **2.3. Eredu teorikoak**

Behin nahasmenduaren ezaugarri nagusiak aurkeztuta, MNN ulertzeko garatu diren eredu teoriko nagusiak deskribatuko dira: mugako nortasunaren organizazioaren eredua, diseregulazio emozionalaren eredua, hausnarketaren (mentalizazioa) disfuntzioaren eredua, pertsonen arteko hiper-sentsibilitatearen eredua, izaera hiperbolikoaren eredua eta pertsonen arteko disforiaren eredua.

#### ***2.3.1. Mugako nortasunaren organizazioaren eredua***

MNNren definizio eta garapen historikoan aipatu den bezala, mugako nortasunaren organizazioaren (edo egituraren) eredua MNN ulertzeko garatu zen lehenengo eredu teorikoa izan zen, Otto Kernberg-en lanetan oinarrituta (Kernberg, 1967, 1975). Nortasunaren organizazioaren kontzeptuak nortasunaren oinarritzko ezaugarriak eta funtzionamendu mailak barneratzen ditu. Era honetan, MNNrako irizpideak eta nortasunaren organizazio mota honek errepresentatzen dituen beste NN batzuk (nartzisista, histrionikoa, antisoziala, eskizotipikoa eta paranoidea), gainazaleko sintomak baino ez dute erakusten. Horregatik, mugako organizazioaren ereduak MNN baino gehiago barneratzen du. Kernberg-ek hiru organizazio mota bereizi zituen: neurotikoa, psikotikoa eta mugakoa. Mugako nortasunaren organizazioa hurrengo ezaugarriak izango lituzke: identitatearen asaldura, defentsa mekanismo primitiboen agerpena eta errealitate test osoa baina ahula. Mugako nortasunaren barnean, bi mota bereizi zituen: “funtzionamendu altukoak” (organizazio neurotikotik hurbil) eta “funtzionamendu baxukoak” (organizazio psikotikotik hurbil). Eredu teoriko hau TFP psikoterapiaren oinarria da, MNN bezalako nortasun nahasmenduak tratatzeko psikoterapia psikodinamikoa. Tesi honen 1.7. puntuan deskribatzen da psikoterapia mota hau.

#### ***2.3.2. Diseregulazio emozionalaren eredua***

Linehan eta kolaboratzaileek (1993) garatutako eredu teorikoa da. Diseregulazio emozionala MNNren funtsezko ezaugarria dela proposatzen du eredu honek, eta ezaugarri hau nahasmenduaren portaeren atzean dagoen funtsezko ezaugarria

dela, adibidez: suizidioa bilatzen ez duten autolesioen arrazoi bat izan daiteke. Eredu hau hiru osagaiez osatuta dago: estimulu emozionaletarako sentsibilitate zorrotzagoa, intentsitate handiko erreakzioak estimulu emozionalen aurrean eta atzerapena oinarri emozionalera bueltatzeko. Eredu honek, estimulu emozionalekiko hiper-sentsibilitateak testuinguru eta egoera askoren aurrean afektu negatiboak sor ditzakeela proposatzen du, portaera ez moldatuen agerpenetan bukatuz (adib.: autolesioak) afektu negatiboak moldatu edo murrizteko. Ikerketa ezberdinek diserregulazio emozionala aztertu dute MNN-n, pertsona hauen emozioen oszilazioa beldurra eta haserrearen artean mugitzen dela aurkituz, beste batzuk disforia eta haserrearen artean mugitzen dela aurkitu duten bitartean. Aurkikuntza hauek, diserregulazio emozionalak pertsonen arteko harremanetan duen eragin nabarmena azal dezakete.

Eredu teoriko hau DBT psikoterapia motaren oinarria dugu, MNN tratatzeko bereiziki sortu izan zena eta arrakasta handia frogatu duenak ikerketa ezberdinetan zehar. Tesi honen 1.7. puntuan psikoterapia mota honen deskribapena ikus daiteke.

### ***2.3.3. Hausnarketaren (mentalizazioa) disfuntzioaren eredu***

Fonagy eta kolaboratzaileek (1996) sortutako ereduak MNNren ezaugarri nagusia mentalizazioaren zailtasuna dela proposatzen du. Mentalizazio terminoa geure burua eta besteez jabetzean datzan prozesuari deritzo, inplizituki eta esplizituki, egoera mentalen eta prozesu mentalen bidez ematen dena. Mentalizazioko zailtasunak atxikimendu desantolatuaren historia batekin erlazionatzen dira, era berean afektuen erregulazio, atentzio eta auto-kontrol zailtasunak sortzen dituenak (Bateman & Fonagy, 2010). MNN duten pertsonak berdintasun psikiko (*psychic equivalence*) egoeran, sarritan oso zehatzak izaten dira giza harremanak ulertzean. Zehaztasun honek desesperazioa suposatzen du eszizio, disoziazio eta identifikazio proiektiboen erabilera bultzatuz. Defentsa mekanismo hauek haien burua haien *alien selfaren* pertsekuziozko ezaugarrietatik alde egiteko erabiltzen dituzte (Fonagy, Gergely, & Jurist, 2004). Eredu teoriko hau MBT psikoterapiaren oinarria da 1.7. puntuan deskribatzen dena.

Eredu honetan oinarritutako ikerketek MNN duten pertsonen mentalizazioko zailtasunak aurkitu dituzte, ez soilik mentalizazio eza (Bo & Kongerslev, 2017), baizik eta gehiegizko mentalizazio eran ere (Sharp & Vanwoerden, 2015). Kontzeptu hau bat dator atxikimendu desantolatua duten pertsonak besteak era negatiboagoan hautemateko

joerarekin, pertsona hauetan *hipermentalizaziorako* edo *pseudomentalizaziorako* joera aurkitu baita (Fonagy, Luyten, Allison, & Campbell, 2017).

#### **2.3.4. Pertsonen arteko hiper-sentsibilitatearen eredua**

Eredu honek gene-giro-garapen arteko interakzio konplexuan oinarritzen da MNN azaltzeko (Gunderson & Lyons-Ruth, 2008). Pertsonen arteko hiper-sentsibilitatea (*interpersonal sensitivity*) pertsonen arteko egoeretan ematen den gehiegizko erreaktibotasunean datzan joera psikobiologikoa da, esanguratsuak diren jokabidez bereizten dena: abandonatuak izateko beldurra, arbuiorako sentsibilitatea eta bakarrik egoteko tolerantzia eza. Pertsonen arteko sentsibilitatea garatzeko, aurrekari genetikoa eta haurren garapen goiztiarrean ematen diren harreman esperientzia negatiboen arteko interakzioa egon behar dela suposatzen du erredu honek. Interakzio hau gurasoen zaintza-kontrolatzailea edo zigor-kontrol portaerek bermatzen dute, mugako psikopatologia garatzeko lehen urratsak direlarik.

Pertsonen arteko sentsibilitatearen ereduak proposatzen dituen ideia nagusiak hurrengo ikerkuntza aurkikuntzek indartzen dituzte: pertsonen arteko estres maila altua, seinale sozialen aurrean afekzio erantzun zorrotzagoak eta sozialki nabarmenak diren estimuluen aurrean amigdalaren aktibazio handiagoa lortzen dituzte (Dinsdale & Crespi, 2013). Aurkikuntza hauek, “borderline empathy paradox” teoriaren adibideak dira. Honen beste adibide batzuk, MNN duten pertsonen emozio negatiboen aurpegi-espresioak antzemateko bizkortasuna eta aurpegi neutroetan emozio negatiboak ikusteko joera dira.

Era berean, egitura neurologikoak aztertu dituzten ikerketek erredu honen teoriak indartu egiten dituzte, pertsonen arteko estimuluen aurrean erantzun emozional sendoagoak aurkitu dituztelarik MNN duten pertsonetan. Eredu honek norbere interbentzio mota garatu du: “good psychiatric management” (Gunderson, 2014). MNNrako ebidentzian oinarritutako intentsitate baxuko interbentzioa da, era errazean ikasia izan ahal dena.

#### **2.3.5. Izaera hiperbolikoaren eredua**

Zanarini eta kolaboratzaileek (1994) garatutako eredua da, MNNren bi erredu barneratzen ditu: diseregulazio emozionalaren eta pertsonen arteko hiper-sentsibilitatearen ereduak hain zuzen ere. MNN izaera hiperboliko batez bereizten dela baieztatzen du erreduaren oinarri bezala. Izaera honetan barneko min bizia bizitzeko



joera ematen da (afektu negatibo sakonak, adibidez: amorrua, tristura, alhadura edo beldurra) pertsonen arteko dezeptzioa edo frustrazioa hautematean. Emozio negatiboak bizitzeko joerari, garapen prozesuan zehar ustezko edo errealak izan diren tratatu txarren esperientziak gehitzean, izaera mota hau garatu daitekeela proposatzen du eredu honek. Disposizio honek, aipatutako esperientziekin batera, emozio diseregulaziorako joera sortzen du, era berean besteek beraien min emozioak murrizteko eta balioztatze eta beraien emozioak erregulatzeko laguntza eske erako jokaera oldarkorak garatuz. Jokaera oldarkor hauek, askotan dramatikoak eta sozialki desagokiak direnak, besteen partetik pertsona honen emozioen baliogabetzea ekar dezake, diseregulazio emozionalera bueltatuz sorgin-gurpil eran. Era honetan, eredu honek hiru ezaugarri nagusi ezartzen ditu mugako psikopatologiaren ardatzean: diseregulazio emozionala, pertsonen arteko hiper-sentsibilitatea eta oldarkortasuna.

Eredu honen beste ekarpen nabarmen bat MNNren sintoma akutuak eta izaerako sintomen arteko bereizketa da. Lehenengo taldean, sintoma akutuetan, oldarkortasuna emozio negatiboek aurre egiteko saiakeran ematen diren sintomak (adib.: suizidioa bilatzen ez duten autolesioak) eta pertsonen arteko jokaera desagokiak barneratuko lituzke (adib: *acting*-ak era eskatzaile edo debaluatzailean). Bigarren taldean, izaerako sintometan, disforia kronikoarekin, pertsonen arteko menpekotasunarekin eta abandonatuak izateko beldurrarekin erlazionatzen diren sintomak sailkatzen dira (Yalch, Hopwood, & Zanarini, 2015).

### ***2.3.6. Pertsonen arteko disforiaren eredia***

Proposatu berri den eredu hau, psikopatologia era dinamikoan ulertzen duen eredu misto bat da eta indarrean dauden hainbat eredu teoriko barneratzen ditu (D'Agostino, Rossi Monti, & Starcevic, 2018). Azkeneko ikerketetan oinarrituta, disforia MNNren gakoa dela azpimarratzen du. Disforia egoera mental negatibo eta konplexu bat bezala definitzen da suminkortasuna, atsekabea, pertsonen arteko erresumina eta amore emategatik bereizten dena. MNNko testuinguruan disforiak nahasmenduaren psikopatologiari esan nahia ematen dio, “psikopatologiaren antolatzaile” bezala funtzionatzen duelarik.

Bi disforia mota bereizten dira: “disforia aurrekaria”, kronikoa eta etengabeko egoera mentala da MNN-n bizi izan diren esperientzietan nagusi dena; eta “egoera disforia”, estres zirkunstantzia jakin batzuen aurrean agertzen dena. MNNren sintomak

egoera disforiaren azala baino ez dutela erakusten proposatzen dute. Atariko ikerketek, eredu berri honen ebidentzia aurkitu dute, definitutako kontzeptuen baliotasun diskriminatzailea lortuz baina era berean neurritzko interkonexioa aurkezten dute, hau da bi disforia motak kontzeptu ezberdinak dira baina elkarren artean elkartuta daude.

#### 2.4. Prebalentzia

Gainerako NNetan bezala, MNNren kasuan datu epidemiologikoak aztertzea konplexua da. MNN identifikatzeko dauden instrumentuen aniztasunak eta bere koerikortasun maila altuak ikertzaileentzako zailtasunak suposatzen dituzte. Honen ondorioz, bariazio handia aurki dezakegu ikerketak egiten diren aro zein herrialde desberdinetan zehar. Argitaratu diren ikerketetan, MNN Nortasunaren Nahasmendu guztietatik prebalenteena dela aurkitu dute populazio klinikoa kontuan izanda, NNak dituzten pertsonen % 30-60 artean kokatuz. Populazio orokorreko % 1-2, paziente ambulatorioen % 11-20 eta psikiatria unitateetan ospitaleratutako pazienteen % 18-32 arteko prebalentzia estimatzen da (American Psychiatric Association, 2001).

EEBBetan, *National Epidemiologic Survey on Alcohol and Related Conditions* (NESAR) proiektuak burututako ikerketa batek lagin kopuru altua erabilia ( $n=34.653$ ), espero zena baino MNNren prebalentzia altuago bat aurkitu zuten, populazio orokorreko % 5,9an kokatuz (Grant et al., 2008).

S. Torgersen (2009) autoreak burututako meta-analisi baten arabera, NNei buruzko hamabi ikerketa epidemiologiko aztertuz, MNNren prebalentziaren batezbesteko estimazioa populazio orokorrean % 1,6koa izan zen.

Argitaratutako aurkikuntza epidemiologikoen artean sexuen arteko diferentzia aipatzen da, MNNrekin diagnostikatutako emakumeen proportzio altuagoa izanik 3:1 ko ratio batekin (American Psychiatric Association, 2001). Argitaratutako ikerketa berriagoek, ideia honen kontra argudiatu dute, MNN-n sexuen arteko diferentziarik ez dagoela baieztatuz (Grant et al., 2008). Argitaratu berri den beste ikerketa batek sexuen artean ematen diren diferentzia hauek emakumeetan eta gizonetan ematen diren nahasmendu komorbidoetan eta aurkeztutako sintometan daudela baieztatzen du (Sansone, Chu, & Wiederman, 2010). Horrez gain, emakumeek gizonek baino laguntza psikologiko edo psikiatrikoa eskatzeko joera handiagoa erakusten dutela aipatu zuten sexuen arteko diferentzia aztertzerako orduan kontuan hartzeko aldagai bezala. Sexu

ezberdinetan, MNN duten pertsonen sintoma ezberdinak aurkezteko joera zutela aurkitu zuten: emakumeen kasuan autolesioak eta suizidio saiakerak ziren nagusi eta gizonetan berriz, jarrera antisoziala eta substantzien erabileraren nahasmenduak. Sintoma hauen ondorioak hurrengoak izaten dira: MNN duten emakume gehiagok unitate psikiatrikoetan tratamendua jasotzea eta MNN duten gizonezkoek, berriz, espetxeetan edo kontsumoak tratatzeko unitate espezializatuetan tratamendua jasotzea.

## 2.5. Etiopatogenia

Nahasmenduaren konplexutasunagatik, oso zaila da eskuragarri dagoen ebidentzia guztia integratzen duen etiopatogenia eredu nagusi bat zehaztea. Ikerketa zientifikoek, MNNren garapenean faktore genetikoek zein giroko faktoreek eragina dutela baieztatzen dute, nahiz eta oraindik ezin den zehaztu bi hauen pisu zehatza zenbatekoa izan daitekeen (Zanarini et al., 2000; Zelkowitz, Paris, Guzder, & Feldman, 2001). DSM-IV-TR eskuliburuak haur abusua, etsaitasunezko gatazka eta gurasoen galera goiztiarra edo hauen arteko banaketa aipatzen ditu nahasmendua garatzeko arrisku faktore bezala. Horrez gain, nahasmendua garatzeko probabilitateak gora egiten du MNN lehen mailako senitartekoek jasaten dutenean.

Argitaratutako ikerketak eta azterketa klinikoak kontuan hartuta, faktore etiologiko nagusiak hurrengo arloetan sailkatu ditzakegu: ahultasun genetikoa, neurotransmisoreen asaldurak, disfunzio neurobiologikoak, faktore psiko-sozialak eta atxikimenduaren prozesua (Grupo de trabajo de la guía de práctica clínica sobre trastorno límite de la personalidad. Fórum de Salud Mental y AIAQS, 2011).

### 2.5.1. Ahultasun genetikoa

Bikiekin egindako lehenengo ikerketa batek, 0,69-ko hereditabilitate faktorea aurkitu zuten MNN-n (S. Torgersen et al., 2000). Gaur egun, genetikaren eragina eta giroaren arteko erlazioa ikertu egin da MNNrako irizpideak bete zituzten bikiekin, faktore orokor baten agerpena aurkituz ("*BPD factor*"), nahasmenduaren eragin genetikoaren % 55-a azaltzen duenak (Reichborn-Kjennerud et al., 2013).

Litekeena da oldarkortasuna eta diseregulazio emozionala bezalako izaeraren ezaugarriak izatea heredatu egiten direnak, nortasunaren nahasmendu osoa heredatu beharrean. Genetikaren arloan egindako ikerketen artean, azpimarragarriak dira sistema serotoninergikoko (5-HT) eta dopaminergikoko (DA) polimorfismo genetikoak ikertu

dituztenak. Gaur egunera arte lortutako ebidentzia zientifikoa kontuan hartuta, ezin dezakegu baieztatu MNN eragiten duen gene espezifikorik existitzen denik.

### ***2.5.2. Neurotransmisoreen asaldurak***

Neurotransmisoreen funtzionamenduak MNNren sintoma nagusietan eragina izan dezake, hala nola: bulkaden erregulazioan, agresibitatean eta afektibitatean. Ikertutako neurotransmisoreen artean serotonina aurki dezakegu, alderantzizko korrelazioa agertuz serotonina mailaren eta agresibitatearen artean, inpultso suntsitzaileak kontrolatzeko gaitasuna inhibituz. Katekolaminek (noradrenalina eta dopamina) afektibitatearen diseregulazioan duten eraginaren ebidentzia txikia aurki dezakegu baita ere. Aipatutakoez gain, MNN-n eragina izan dezakete: azetilkolinak, basopresinak, kolesterolak, azido koipetsuak eta ardatz hipotalamo-hipofiso-suprarrenalak.

### ***2.5.3. Disfuntzio neurobiologikoak***

Badaude ikerketak egiturazko defizitak eta defizit funtzionalen arteko erlazioa frogatu dutenak, afektibitatearen erregulazioan, atentzioan, auto-kontrolan eta funtzio exekutiboan parte hartzen duten gune zerebraletan. Gune zerebral hauek: amigdala, hipokanpoa eta alde orbitofrontalak dira. Kortex prefrontaleko, dorsolateraleko eta *cuneus*-eko gehiegizko aktibazioa aurkitu da MNN duten pertsonetan; eta aktibazio murriztagoa gorputz kailukararen aurreko eskumako saihebidetan. Horrez gain, amigdalaren gehiegizko aktibazioa hautematen da, emozionalki higuigarriak diren irudiak (Herpertz et al., 2001) edo aurpegi-emozionalak ikusten dituztenean (Donegan et al., 2003).

### ***2.5.4. Faktore psikosozialak***

MNN duten pertsonen familien ikerketek, nahasmendua garatzeko arrisku faktore psikosozialak daudela frogatu dute. Hauen artean: familiaren aurrekari psikiatrikoak aurki ditzakegu. Ikerketen azterketa batek, MNN zuten pazienteek oldarkortasuna edo MNNren familia aurrekari psikiatrikoak dituztenean (gurasoen diagnostikoa) nahasmendua garatzeko arriskuarekin harremantzen zela aurkitu zuten. Eskizofreniaren aurrekariekin ez zuten harreman zuzena aurkitu ikerketa ezberdinetan eta depresio nagusiaren aurrekarietara harremanaren aurkikuntzak ez dira gutiz sendoak (White, Gunderson, Zanarini, & Hudson, 2003). MNNrekin erlazioatuta dauden beste

faktore batzuk, zabartasuna eta gurasoen inplikazio emozional eza izan daitezke, haurren sozializazioan zailtasunak sortuz, gainera suizidio arriskuarekin harremana izan dezakete (Johnson et al., 2002). Argitaratu berri den ikerketa batek (Ruocco et al., 2018), MNN garatzeko arrisku faktore bezala gurasoen oldarkortasuna eta hauen emozio diseregulazioa proposatu ditu. Ikerketa honetan, MNN zuten pertsonen senideetan hurrengo nahasmendu psikiatrikoak agertzen zirela aurkitu zuten: depresioa, substantzien erabileraren nahasmenduak, trauma ondoko estresaren nahasmendua, antsietate nahasmenduak eta nortasunaren nahasmendu saihezkaria.

Kasu batzuetan familia arteko giroan abusu fisiko, psikologiko eta sexualak agertzen dira. Aipatutako abusuak, oso ohikoak izaten dira MNN duten pertsonen familietan. Ikerketa batean, MNN zuten pertsonen % 84ak tratu txar psikikoak eta zabarkeria deskribatu zituzten gurasoen partetik 18 urte bete baino lehen, atzera begirako galdetegi baten bidez (Zanarini et al., 2000).

#### ***2.5.5. Atxikimenduaren prozesua***

Zenbait ikerketek ebidentzia aurkitu dute atxikimendu prozesuaren eta MNNren arteko erlazioan, atxikimendu ez seguruarekin elkartzuz (Levy, Beeney, & Temes, 2011). Atxikimenduaren teoria eta MNNren arteko harremana 3. kapituluaren zehatzean deskribatzen da.

### **2.6. MNNren instrumentu espezifikoak**

NN ezberdinak ebaluatzen dituzten test eta elkarrizketez gain, 1. kapituluaren deskribatuak izan direnak, badira MNN diagnostikatzeko erabili ahal diren instrumentu espezifikoak. Hauen artean, hurrengoak nabarmentzen dira:

*Diagnostic Interview for Borderlines-Revised* (DIB-R; (Zanarini, Gunderson, Frankenburg, & Chauncey, 1989)). Ikuspuntu psikodinamikoko elkarrizketa erdi-egituratua da, MNNren diagnostikoa eta bere larritasun klinikoa zehazteko erabiltzen dena. Elkarrizketa 97 item-ez osatuta dago, azken bi urteetan norbanakoak dituen pentsamendu, emozio eta portaeretan oinarritzen da. Lau arlo nagusi aztertzen ditu: afektibitatea, kognizioa, oldarkortasuna eta pertsonen arteko harremanak.

*McLean Screening Instrument for Borderline Personality Disorder* (MSI-BPD) (Zanarini et al., 2003b). 10 item-ez osaturiko screening galdeketa da. Erantzunak dikotomikoak dira (egia/gezurra), bere ebaki-puntua 7 puntukoa delarik.

*Zanarini rating scale for borderline personality disorder (ZAN-BPD;* (Zanarini et al., 2003a)). 9 item-ez osaturiko elkarrizketa diagnostikoa da. MNNren sintomen larritasuna neurtzen du. Lau eskala bereizten ditu, 0-4 bitarteko puntuazioa lortuz: afektiboa, kognitiboa, oldarkorra eta pertsonen artekoa.

MNNren larritasuna neurtzen duten beste instrumentu batzuk *Borderline Symptom List-23* (Bohus et al., 2009) eta *Clinical Global Impression Scale for Borderline Personality Disorder Patients* (Perez et al., 2007) dira.

### ***3. kapitulua: Atxikimenduaren Teoria***

### 3.1. Atxikimenduaren teoriaren garapena

Atxikimendua, iraupen luzekoa eta sakona den lotura emozionala da, pertsona bat beste batekin konektatzen duena denboran eta espazioan zehar (Ainsworth, 1973; Bowlby, 1969). John Bowlby-k eta Mary Ainsworth-ek garatutako kontzeptua da.

Atxikimenduaren teoriaren sorrera John Bowlby hurren psikiatra eta psikoanalistari zor diogu. Kontzeptua azaltzen zuen lehenengo lana *International Journal of Psychoanalysis* aldizkarian argitaratu zen (Bowlby, 1958). Bowlby-k Londreseko *Child Guidance Clinic*-ean lan egin zuen haur psikiatra bezala, nahasmendu emozionalak zituzten hurren tratamenduan. Bere esperientziek, hurren eta haien amen arteko harremanak, haur hauen garapen sozial, emozional eta kognitiboan zuen garrantzia aztertzeraz bultzatu zuten. Haurtzaro goiztiarrean amarekiko banaketak ondorengo moldaketa txarrarekin lotura zuela uste zuen, era honetan bere atxikimenduaren teoria garatzen joan zen. Geroago *Tavistock Institute*-ean lanean aritu zen, ikerketarako unitate berri bat sortuz, hurren eta haien amen banaketen ondorioen behaketa egiteko.

Bere teoria garatzeko, Robertson-en (1953) eta Heinicke-ren (1956) hurren behaketetan eta Harlow-en (Harlow & Zimmermann, 1958) tximuen esperimenduan oinarritu zen Bowlby. Alde batetik, Robertson-ek, Anna Freud-ren Hampsted-eko (Londres) Haurtzaindegian hurren behaketak burutu zituen. Robertson, hurren behaketa naturalistan aditua izanik, Tavistock Institute-en Bowlby-ren ikerketan lan egin zuen, hurren portaeren zenbait film grabatuz. Bestetik, Harlow-ek *rhesus* tximu jai berrien eta haien amen arteko lotura ikertu zuen etologiaren arlotik. Kume hauek, beraien amenganako guztizko menpekotasuna erakusten zuten nutrizio, defentsa, erosotasun eta sozializazioa bilatzerako orduan. Harlow-en atxikimenduaren azalpena haurrak edo kumeak beraien amen “ukimen erosotasunagatik” atxikimendua garatzen zutela izan zen, jatorrizkoa den behar bat bezala finkatuz. Ikerketa azken hauek, nahiz eta atxikimenduaren teoriaren garapenerako funtsezko gakoetariko bat izan, kritika zorrotzak jaso zituen, ikerketa honek suposatzen zuten animalien tratamenduaren etika faltagatik.

Bowlby, *Attachment and Loss* obran (1969), nola eta zergatik aurretiko gertaera ontogenetikoek etorkizunean eragiten duten galdera konplexuari erantzuna ematen saiatu zen. Bere ustez atxikimenduaren prozesua ulertzeko hainbat arlo ezberdinen



ekarpenak behar ziren. Horrela, bere eragile intelektual nagusiak izan ziren autoreen ekarpenen bateratasunean oinarritu zen teoria hau garatzeko: Charles Darwin eta Sigmund Freud, etologia eta psikoanaliaren ekarpenak azpimarratuz. Haurren eta beraien amen arteko lotura eta honen aldentzea, etena edo galerak suposatzen duen asaldurak, momentu hartarako ulermen iraultzailea suposatu zuen. Geroago, Ainsworth-ek Bowlby-ren teoria indartu zuen bere metodologia aitzindariak, teoriaren oinarri empirikoak frogatuz (Ainsworth & Wittig, 1969). Ainsworth-en ekarpen nagusia atxikimenduaren teoriari, atxikimendu figura haurrak mundua esploratzeko beharrezkoa duen oinarri seguru bat bezala finkatzea izan zen. Horrez gain, haurren seinaleen aurreko “amaren sentikortasuna” (*maternal sensitivity*) eta haur-amaren arteko atxikimendu joerak garatu zituen (Bretherton, 1992).

Teoria garatzeko funtsezko behaketa bat, hurrek euren ametatik banatzen zirenean larritasuna erakusten zutela izan zen. Nahiz eta haur horiek beste zaintzaile batzuegatik elikatuak izan, hauen antsietatea mantendu egiten zen (Bowlby & Robertson, 1953). Ainsworth-ek haurren atxikimendua neurtzeko tresna berri bat sortu zuen: Egoera Arrotza (*The Strange Situation*), haurrak hiru multzotan banatuz (atxikimendu segurua, ekiditzailea/saiheskaria eta anbibalentea). Aurkikuntza honek momentuan indarrean zegoen atxikimenduaren teoria konduktuala ezeztatu egin zuen (Dollard & Miller, 1950), haurren eta beraien amen arteko lotura gutxiesten zuena. Teoria konduktualaren arabera, haurrak bere amekiko atxikimendua garatzearen arrazoia honen elikaduraren arduradunak izatea zela baieztatzen zuen.

### **3.2. Atxikimendua helduaroan**

Atxikimendua helduaroan definitzen dituzten bi teoria ezberdin aurki ditzakegu: garapenaren eredua eta nortasunaren eredu soziala. *5.taulan*, haurtzaroan eta helduaroan ematen diren atxikimendu motak aipatzen dira, eta hurrengo lerroetan sailkapenen sorrera eta kategoria ezberdinen azalpena ematen da.

<b>5. taula. Atxikimenduaren sailkapenak</b>	
<b>HAURTZAROAN</b>	<b>HELDUAROAN</b>
<b>Ainsworth</b>	<b>Main</b>
Segurua “ <i>Secure; type B</i> ”	Segurua “ <i>Secure-autonomous</i> ”
Ekiditzailea / saiheskaria “ <i>Avoidant; type A</i> ”	Atxikimenduaren balio-kentzaileak “ <i>Dismissing</i> ”
Anbibalentea “ <i>Ambivalent; type C</i> ”	Kezkatua “ <i>Preoccupied</i> ”
Desantolatua “ <i>Disorganized; type D</i> ”	Ebatzi gabekoa “ <i>Unresolved/Disorganized</i> ”
	<b>Bartholomew &amp; Horowitz</b>
	Segurua “ <i>Secure</i> ”
	Ekiditzailea edo saiheskaria “ <i>Dismissing</i> ”
	Kezkatua “ <i>Preoccupied</i> ”
	Beldurtia “ <i>Fearful</i> ”

### 3.2.1 Garapenaren eredia

Mary Ainsworth-ek atxikimenduaren teoria haurtzaroaren ostean behatzea erabaki zuen (1989). Helduetan ere, atxikimendu portaera joerak aurkitu zituen. Ainsworth-en haurren atxikimenduaren sailkapena kontuan hartuta, bere ikasleek helduen kasuak aztertu zituzten. George, Kaplan eta Main (1996) autore kliniko psikoanalistek *Adult Attachment Interview* garatu zuten hiru atxikimendu mota eratorriz: segurua, kezkatua eta ekiditzailea (Yárnoz, Sainz de Murieta, Plazaola, & Alonso, 1999):

A. *Segurua edo Atxikimendua Ebaluatzeko Askea* (“*Secure attachment*”). Subjektu hauek atxikimenduari balioa ematen zioten eta atxikimenduaren inguruko gertaerak eraginkorrak bezala ikusten zituzten. Bestalde, aske eta objektibo samarrak ziren gertaera edota erlazio konkretu bat ebaluatzerakoan. Erlaxatuak sentitzen ziren atxikimendu gertaerak gogoratzerakoan, eta oroitzapenak, oro har, baikorrak izaten ziren. Gertaera ezezkor bat bururatzekoan, subjektuak gauza ziren erlazioaren gain-begirada orokor bat eginez, bertan zeuden alde positibo eta negatiboak integratzeko.

B. *Atxikimenduaren balio-kentzaileak* (“*Dismissing*”). Atxikimendu erlazioei garrantzia kentzeko joera zuten, eta maiz zailtasunak izaten zituzten atxikimendu gertaera konkretuak gogorarazteko, edota gaur egungo jardueran, beren balorea mesprezitzen zuten. Gertaera zehatzez oroitzen zirenean, arbuioa edo arbuioa eta maitasun falta erakusten zuten gehienetan.

C. *Kezkatuak* (“*Preoccupied*”). Subjektu hauek atxikimenduaren inguruko jarreretan korapilatuak sentitzen ziren. Nahiz eta talde honetako partaideek haurtzaroko gertaerak maiz gogoratu, arazoak izaten zituzten esperientzia hauek eredu koherente batean integratzerakoan, eta nahaspilatsu samar agertzen ziren gurasoekiko erlazioaren ikuspegi negatiboez, oraindik ere gurasoen gogokoak izateko ahaleginak egiten zituztelarik.

D. *Ebatzi gabekoa*. Laugarren kategoria hau galera eta traumarekin harremantzen da eta goiko edozein hiru kategoriekin batera etor daiteke.

Elkarrizketa honetan, heldua den norbanakoari haurtzaroan izandako gurasoekiko esperientziei buruz galdetu egiten zaie. Instrumentuak garrantzia ematen dio norbanakoak zelan bizi eta ulertu izan dituen esperientzia hauek.

### ***3.2.2 Nortasunaren eredu soziala***

Beste alde batetik, nortasunaren psikologia eta gizarte psikologiaren eredu teorikoan kokatzen ziren autoreek helduaroko atxikimendua ulertzeko beste ikuspuntu bat garatu zuten. Eredu honetatik, autoaplikatuak ziren galdesortak erabiltzen zituzten atxikimendua aztertzeko eta garrantzia norbanakoaren eta berdinkide, lagun edo bikotearekiko harremanetan jartzen zuten. Bartholomew eta Horowitz-en (1991) ereduak, helduaroan ematen den atxikimendua ulertzeko lau talde ezberdin proposatzen ditu, pertsona baten self-irudia (positiboa edo negatiboa) eta besteekiko duen irudiaren (positiboa edo negatiboa) arteko konbinazioaz baliatuz. Eredu hau Bowlby-k garatu zuen self-irudian eta besteenganako irudian oinarritzen da lau kategoria sortzeko (*1. Irudia*).

**1. Irudia. Bartholomew eta Horowitz-en erudia (1991)**

		<b>SELF EREDUA</b>	
		<b>(Mendekotasuna)</b>	
		Positiboa	Negatiboa
		(Baxua)	(Altua)
<b>BESTEEN EREDUA</b> <b>(Ekiditeko joera)</b>	Positiboa (Altua)	<b>I. GELAXKA</b>  <b>SEGURUA</b> Intimitate eta autonomiarekin segurua	<b>II. GELAXKA</b>  <b>KEZKATUA</b> Harremanekiko kezkatuak
	Negatiboa (Baxua)	<b>IV. GELAXKA</b>  <b>EKIDITZAILEA</b> Intimitatea ekiditu ete kontra-mendekoak dira	<b>III. GELAXKA</b>  <b>BELDURTIA</b> Intimitatearen beldur dira. Sozialki ekiditzaileak

A. *Seguruak* (“*Secure*”). Norbere buruaz eta besteez duten irudia positiboa da. Intimitatearekin eta autonomiarekin ongi sentitzen dira.

B. *Kezkatuak* (“*Preoccupied*”). Norbere buruaz duten irudia negatiboa da eta besteez dutena positiboa. Eredue honen korrespondentzia haurretan “anibalentea” da, eta Main-en sailkapenean ere “kezkatua” da. Subjektu hauek harremanetan kezka eta dependetzia adierazten dute.

C. *Ekiditzaileak* (“*Dismissing*”). Beraien buruari buruzko irudi positiboa dute, eta besteez berriz, negatiboa. Bere buruaz duten irudi ona mantentzearen intimitatea ekidin eta atxikimendu sistema desaktibatzen dute.

D. *Beldurtiak* (“*Fearful*”). Bere buruaz eta besteez duten irudia negatiboa da. Ez dira besteekin erlazionatzen errefusatuak izateko beldurra dutelako.

### 3.3. Atxikimenduaren ebaluazioa

Aurreko lerroetan aipatu den bezala, atxikimendua ebaluatzeko zenbait instrumentu ezberdin aurki ditzakegu. Ikerketa klasikoak haurren eta beraien zaintzaile nagusien arteko interakzioaren behaketa naturalistan oinarritu ziren, geroago laborategi proba bezala eraldatuak izan zirenak. Beste instrumentu batzuk helduaroan egindako elkarrizketaz baliatzen dira, atzera begirako galderen bitartez, hauen eta berain gurasoen arteko harremana bilatuz. Azkenik, instrumentu psikometrikoen erabilerak atxikimenduaren teoria hurbilpen kuantitatibo batetik aztertzen dute.

Atxikimenduari buruzko azterketa sistematiko batek, 25 urteetan zehar egin ziren ikerketetan erabilitako instrumentu ezberdinen azterketa psikometrika aurkezten da (Ravitz, Maunder, Hunter, Sthankiya, & Lancee, 2010). Azterketa honetan, atxikimendua neurtzeko tresna erabilgarriena AAI elkarrizketa dela baieztatzen da. Horrez gain, galde sorta autoaplikatuen erabilera azpimarratzen du, hauen dimentsioen emaitzak ikerketarako aproposak bezala finkatzen dituelarik, emaitza kategorialak ematen dituzten instrumentuak arlo klinikora mugatuz.

Bi sailkapen mota egin ditzakegu atxikimenduaren ebaluazioa egiteko instrumentu ezberdinen artean, alde batetik norbanakoen adinean oinarrituta (haurrak edo helduak) eta beste alde batetik instrumentu motaren arabera (behaketa naturalista, laborategiko behaketa, elkarrizketa erdi-egituratua eta galde-sortak).

#### 3.3. 1. *Strange situation, “Egoera Arrotza”*

Ainsworth-ek haurren atxikimendua aztertzeko laborategiko prozedura bat garatu zuen: *Strange situation* edo “egoera arrotza”(Ainsworth & Wittig, 1969). Hasiera batean, proba honen helburua estres egoera baxu eta altu baten aurrean atxikimendua eta esplorazio jarreraren arteko oreka ikertzea zen. Egoera arrotza 20 minutuko iraupena duen drama txiki bat da, 8 gertaeraz osatuta dagoena. Prozedura honetan, haurra eta bere ama laborategi-gela batean sartzen dira. Ondoren haurarentzat arrotza den emakume bat elkartzen zaie. Pertsona arrotza haurrarekin jolasten den bitartean, ama gelatik irteten da denbora labur batez eta geroago, berriz sartzen da gelara. Bigarren banaketan haurra guztiz bakarrik gelditzen da. Azkenik pertsona arrotza eta ama gelara bueltatu egiten dira. Froga honekin lehen ikerketa bat egin zutenean, espero zen bezala, haurrak gela eta jostailuak indar gehiagorekin esploratzen zituen bere amarekin bakarrik zegoenean, pertsona arrotza ere aurrean edukita edo pertsona arrotzaren aurrean bakarrik gelditzen

zen bitartean baino (Ainsworth & Bell, 1970). Nahiz eta emaitza interesgarriak lortu, Ainsworth-en interes nagusia haurren eta amaren arteko elkartzean zegoen. Elkartze honetan, espero ez zituen portaera ezberdinak sumatu zituen haurretan. Erantzun ezberdin hauek, Robertson-ek (Bowlby & Robertson, 1953) hauteman zituen banaketa luzeak jasan zituzten haurretan, eta hauei buruz Bowlby-k bere banaketaren antsietateari buruzko lanean teorizatu egin zuen (Bowlby, 1959).

Ainsworth eta bere taldeak, Baltimor-en egindako ikerketa batean (Ainsworth, Bell, & Stayton, 1971), hiru erantzun mota ezberdin zituzten. Haurren multzo bat (% 22) ama mespretxatu edo saihesten zuten berriz elkartzen zirenean, nahiz eta askotan ama joaterakoan bere bila gelditzen ziren (A taldea - *atxikimendu ekiditzailea edo saiheskaria*). Haurren gehiengoak (% 66) hurbiltasuna, interakzioa edo kontaktua bilatzen zuten amarekin berriz elkartzean (B taldea - *atxikimendu segurua*). Haur gutxi batzuk (% 12) haserrearekin erantzuten zuten ama 3 minuturen ostean bueltatzen zenean. Negar egiten zuten eta kontaktua nahi zuten, baina ez zuten ama besarkatzen besoetan hartzerakoan. Haur hauek anbibalentzia erakusten zuten ostikoak edo eskukadak emanez (C taldea - *atxikimendua anbibalentea*). Horrela, “Egoera Arrotzaren” klasifikazio sistema sortu zen (Ainsworth, 1978), geroago sailkapen honetan sartzen ez ziren beste talde berri bat (% 13) sortu zelarik: *D taldea – atxikimendu desantolatua*, haur hauek helduekin berriz elkartzean beldurra, nahasketa eta batzuetan depresioa, adierazten zuten bere jarreretan.

### **3.3.2. Atxikimendua helduaroan neurtzeko instrumentuak**

Atxikimendua helduaroan neurtzerako orduan baditugu ezaugarri ezberdinak dituzten hainbat instrumentu. Alde batetik, instrumentu mota kontuan hartzen badugu: elkarrizketak, teknika proiektiboak edo galdesortak aurki ditzakegu. Beste alde batetik, zein harreman aztertzen ari garen kontuan izan behar dugu, era honetan: gurasoekiko, bikotekidearekiko edo semearekiko harreman espezifikoak aztertzen dituzten instrumentuak aurki ditzakegu. Beste atxikimenduaren instrumentuen sailkapen bat harreman orokorrak edo zehaztugabeak neurtzen dituztenak ditugu. Azkenik, erabilitako emaitzen eredian ere desberdinu daitezke atxikimenduaren instrumentuak: dimentsionalak, kategorialak edo bi ereduak erabiltzen dituztenak. Hurrengo lerroetan helduaroan atxikimendua neurtzeko erabiltzen diren instrumentu nagusiak deskribatzen dira, bi multzo handietan banatuta.

***Elkarrizketak eta neurri proiektiboak***

*Adult Attachment Interview* (AAI; (George et al., 1996)). Elkarrizketa honek helduaren errepresentazio mentalak aztertzen ditu, haurtzaroko esperientziak kontuan izanda. Norbanakoak guraso bakoitzarekiko izan dituen esperientziak transkribatu egiten dira, geroago prozedura batez kodifikatu egiten dena. Erabilitako “gurasoekiko esperientzia” eskalak hurrengoak dira: maitasuna, errefusa, zabarkeria, tartean sartzea edo presioa egitea. “Egoera mentalen” eskalak baita ere puntuatu egiten dira, diskurtsoaren koherentziarekin lotuta: idealizazioa, oroitzapen falta etengabea, haserre aktiboa, gurasoen edo atxikimenduaren indargabetzea, galeraren beldurra, gainbegiratze meta-kognitiboa eta diskurtsoaren pasibotasuna. Transkripzioaren koherentzia totala ere kontuan hartzen da. Norbanakoak ziurra/autonomia, ekiditzailea, kezkatua edo “klasifikatu ezina” bezala sailka daitezke froga honekin. Galera, trauma edo abusuaren agerpena ematen bada “ebatzi gabea” etiketa ere gehitu ahal zaio sailkatutako atxikimendu motari. Elkarrizketa bera administratu eta honen puntuazioa era egokian interpretatzen ikasteko beharrezkoa da bi asteko iraupeneko formakuntza espezializatua egitea.

*Current Relationship Interview* (CRI; (Crowell & Owens, 1996)). Atxikimendua helduaroan neurtzeko elkarrizketa prozedura bat da, bikote harremanetan oinarritzen dena. Norbanakoak beraien bikote harremana deskribatu behar dute adibide desberdinak emanez. Deskribatutako egoera hauetan, haien bikoteak oinarri ziur moduan jokatu behar dute. Emaizak lortzeko transkripzio sistema erabiltzen da. Emaizak atxikimenduekin lotutako portaera eta pentsamenduan (intimitatea/menpekotasuna), haien gurasoen portaerak eta haien diskurtsoaren estiloan (haserre, indargabetzea, idealizazioa, diskurtsoaren pasibotasuna, galeraren beldurra eta koherentzia orokorra) oinarritzen dira.

*Adult Attachment Projective* (AAP; (George & West, 2001)). Atxikimendu egoerak erakusten dituzten zortzi irudiz osatuta dagoen instrumentua da, gaixotasuna, bakardadea, banaketa, galera eta abusuaren gaiak jorratzen dituztenak, eszena neutral batekin batera, berain atxikimendu sistema aktibatzeke helburuarekin. Marrazki hauen narrazioa transkribatu eta kodifikatu egiten da. Emaizak diskurtsoaren kalitatea, edukia eta prozesamendu defentsiboa ebaluatzen ditu, horrela norbanakoak atxikimendu ziur, saiheskor, kezkatu edo ebatzi gabea bezala klasifikatzea lortzen delarik.

***Galde-sorta atuoaplikatuak***

Elkarrizketez gain, badaude autoaplikatuak diren galdesortak, atxikimendua gurasoekiko harremanetan, harreman erromantikoetan eta beste harreman batzuetan aztertzen dituztenak. Erabilienak hurrengoak dira: *Adult Attachment Questionnaire* (AAQ; (Simpson, 1990)), *Adult Attachment Scale* (AAS; (Collins & Read, 1990)), *Attachment Style Questionnaire* (ASQ; (Feeney, Noller, & Hanrahan, 1994)), *Experiences in Close Relationships* (ECR-R), *Parental Bonding Instrument* (PBI), *Relationship Styles Questionnaire* (RSQ; (Griffin & Bartholomew, 1994)), *Relationship Questionnaire* (RQ; (Bartholomew & Horowitz, 1991)).



**6. taula. Atxikimendua helduaroan ebaluatzeko tresna nagusiak**

<b>Akronimoa:</b>	<b>Izen osoa:</b>	<b>Autoreak, urtea:</b>	<b>Mota:</b>
AAI	<i>Adult Attachment Interview</i>	George, Kaplan, & Main, 1996	E
CRI	<i>Curent Relationship Interview</i>	Crowell & Owens, 1996	E
AAP	<i>Adult Attachment Projective</i>	George & West, 2001	TP
AAQ	<i>Adult Attachment Questionnaire</i>	Simpson, 1990	G
AAS	<i>Adult Attachment Scale</i>	Collins & Read, 1990	G
ASQ	<i>Attachment Style Questionnaire</i>	Feeney, Noller, & Hanrahan, 1994	G
ECR-R	<i>Experiences in Close Relationships - Revised</i>	Friley, Waller, & Brennan, 2000	G
PBI	<i>Parental Bonding Instrument</i>	Parker, Tupling, Brown, 1979	G
RQ	<i>Relationship Questionnaire</i>	Bartholomew & Horowitz, 1991	G
RSQ	<i>Relationship Styles Questionnaire</i>	Griffin & Bartholomew, 1994	G

E = Elkarrizketa

TP = Teknika Proiektiboa

G = Galde-sorta

### 3.4. Atxikimendua helduaroan eta Mugako Nortasunaren Nahasmendua

Aldagai hauek kontuan izanda, zenbait ikerketa argitaratu izan dira azkeneko hamarkadetan. Literatura zientifikoak MNN helduaroako atxikimendu-antsietate maila altuarekin lotu izan du (Mikulincer & Shaver, 2007). Lehenengo eta behin, AAI elkarrizketaren bitartez MNN aztertu dituzten zenbait ikerketa aipatu dira.

Fonagy-ren ikerketa taldeak burututako ikerketa batean (Fonagy et al., 1996) MNN zuten pertsonak atxikimendu kezkatua bezala (*preoccupied*) eta galera edo abusu bategatik ebatzi gabeak (*unresolved*) bezala sailkatu ziren. Emaiza hauek ikerketa ezberdinetan erreplikatuak izan dira ikerketa talde ezberdinengatik urte ezberdinetan egindako lanetan.

2003. urtean (Barone, 2003), MNN zuten pertsonak kontrol talde batekin alderatu zituzten AAI elkarrizketa erabiliz. Emaitez bi taldeen arteko desberdintasunak erakutsi zituzten atxikimendu segurua eta ez seguruaren artean eta baita hiru edo lau atxikimendu moten artean ere. Era zehatzagoan, MNN zuten parte hartzaileen gehiengoak atxikimendu ez segurua aurkeztu zuen eta hauetatik erdiak baino gehiago “ebatzi gabekoak” izan ziren, trauma edo galera batek eraginda. Ondorioen artean, garapenean ematen diren harreman esperientziak, nahasmendu hau agertzeko arrisku faktore garrantzitsuak direla aipatu zuten.

AAI elkarrizketa erabili zuten beste ikerketa batean DSM-IV-ko lehenengo Ardatzeko nahasmenduekiko koerikortasuna aztertu zen, guztira MNN zuten 140 paziente parte hartuz. Lau taldetan banatu ziren parte hartzaileak nahasmendu ezberdinak kontuan izanda: Antsietate/aldarte nahasmenduak, substantzien kontsumoen nahasmenduak, alkoholaren kontsumoaren nahasmendua eta elikaduraren nahasmenduak. Talde ezberdinek, atxikimendu motak kontuan izanda, desberdintasun esanguratsuak aurkeztu zituzten (Barone, Fossati, & Guiducci, 2011).

Urte batzuk geroago, MNNren aurrekari familiarren eragina kontuan izanda (MNN duten amen seme-alabek MNN bera garatzeko arrisku altua dute), MNN zuten amak aztertu egin ziren kontrol talde batekin alderatuz, AAI instrumentuaren bitartez. Momentura arte argitaratu ziren ikerketak erreplikatu MNN zuten amak, “kezkatuak” edo “ebatzi gabeak” bezala sailkatuak izan ziren maiztasun handiagoarekin kontrol taldeko amak baino (Macfie, Swan, Fitzpatrick, Watkins, & Rivas, 2014).

AAI elkarrizketarekin burutu ziren beste ikerketa guztietan ere kezkatu (preoccupied) atxikimendu estiloa izan zen MNNrekin harremandu zen atxikimendu estilo nagusia eta ebatzi gabeak bezala identifikatu ziren kasu gehienetan (Levy, Meehan, Weber, Reynoso, & Clarkin, 2005; Patrick, Hobson, Castle, Howard, & Maughan, 1994; Rosenstein & Horowitz, 1996). Literatura enpirikoan argitaratutako ikerketak ados daude MNN duten pazienteak atxikimendu estilo kezkatua eta ebatzi gabearekin harremantzen direla, AAI instrumentua kontuan izanda. Elkarrizketa hau, helduaroko atxikimendua neurtzeko tresna osoena dela esan dezakegu. Horrez gain, autoaplikatuak diren eskalak ere informazio objektiboa lor dezakete. Instrumentu mota hauetatik erabilienetarikoa atxikimendua helduaroan neurtzeko ECR-R (7. Kapituluaren deskripzioa) instrumentua izan da.

Critchfield eta kolaboratzaileek (2008), MNNren agresibitatea eta ezaugarri honetan helduaroko atxikimendua duen eragina ikertu zuten. ECR-R instrumentua erabilia MNN zuen lagina atxikimendu-antsietate eta atxikimendu-saiheste maila altuekin harremandu zuten. Atxikimendu beldurtia (aldi berean atxikimendu-antsietate eta atxikimendu-saiheste maila altuak erakustea) agresibitate mota erreaktiboagoarekin erlazionatu zuten. Autolesioak atxikimendu-saihestearekin erlazionatu zituzten. Haserrea eta suminkortasuna, aldiz, atxikimendu-antsietatearekin elkartu zituzten.

Helduaroko atxikimendua eta MNNren ezaugarriekiko lotura ikertu zen ECR instrumentua erabilia, psikologiako ikasleen lagin handi bat aztertuz (Scott, Levy, & Pincus, 2009). Honen emaitzetan atxikimendu-antsietateak afektu negatiboarekin eta oldarkortasunarekin lotura zuela aurkitu zuten. Gainera atxikimendu-saihestea MNNko ezaugarriekin lotura eza zuela aurkitu zuten. Ondorio bezala, atxikimendu-antsietatearen eta MNNren arteko loturan, afektu negatiboa eta oldarkortasuna erlazio honen aldagai bitartekari osoak direla baieztatu zuten.

Lagin ez-klinikoan egindako ikerketa batek objektu trantsizionalekiko atxikimendua MNN izateko irizpideak betetzearekin elkartu zuten, horrez gain, pertsona hauek haurtzaroko trauma gehiago aurkeztu zituzten, beraien zaintzaileak sostengu baxuago batekin hautematen zituzten eta helduaroko atxikimendu arazo gehiago aurkeztu zituzten (Hooley & Wilson-Murphy, 2012).

Atxikimendu ez seguruak eragina aurkeztu zuen bai MNN-n zein nahasmendu somatomorfoan, baina kontrako joerarekin: MNN-n diserregulazio emozionala

aktibatzen zuela aurkitu zuten eta Nahasmendu Somatomorfoan berriz, diseregulazio emozionala desaktibatzen zuela. Bi muturreko joerak (bai hiperaktibazioa zein desaktibazioa) aurkeztu izan ziren bi nahasmendu hauek era komorbidoan ematen ziren kasuetan, atxikimendu desarautuaren seinale bezala interpretatu zuten (van Dijke & Ford, 2015).

Diseregulazio emozionalak, aldagai bitartekari bezala zelan jokatzeko zuten aztertu zuten haurtzaroko abusuak kontuan izanda helduaroko atxikimenduarengan eta MNNren ezaugarrien artean, italiar helduen lagin handi bat aztertuta ( $n=354$ ). Bai haurtzaroko abusuak eta bai helduaroko atxikimenduak, erlazio positiboa erakutsi zuten diseregulazio emozionalarekin eta mugako nahasmenduaren ezaugarriekin. Soilik abusu emozionala eta atxikimenduko dimentsio bakar bat (onartua izateko beharra), izan ziren harremana erakutsi zutenak aipatutako bi mendeko aldagaiekin. Diseregulazio emozionalak bitartekari efektua erakutsi zuten abusu emozionala eta “onartua izateko beharra” dimentsioak kontuan izanda, mugako nortasunaren nahasmenduko ezaugarrietan eragina izanda (Fossati, Gratz, Somma, Maffei, & Borroni, 2016).

Azkenik MNN zuten emakumeen talde bat beste edozein nortasunaren nahasmendu bat zuten emakumeen talde batekin konparatu zuten ikerketa batean, atxikimendua eta haurtzaroko trauma kontuan izanda. MNN zuten pazienteek beste NN bat zuten pazienteak baino trauma emozional, fisiko zein sexual larriagoa erakutsi zuten. Gainera MNN zuten pazienteek helduaroko atxikimendu-antsietate maila altuagoa erakutsi zuten. Erregresio analisiaren 1. erduan soilik haurtzaroko abusu emozionalak MNNren agerpena iragartzen zuten. 2. erduan, bestalde, asoziazio hau ez zen esanguratsua eta helduaroko atxikimendu-antsietatea MNNren agerpenarekin erlazionatu zen. Emaitza hauen ondorio gisa, ikerketa honek haurtzaroko abusu emozionalaren eta MNNren arteko erlazio espezifikoak erakusten du, helduaroko atxikimendu-antsietatea erlazio honen adierazle delarik (Frias, Palma, Farriols, Gonzalez, & Horta, 2016).

Laburbilduz, MNN eta helduaroko atxikimendu ez seguruaren arteko lotura frogatu izan da ikerketa ezberdinetan zehar, bai AAI elkarrizketaren bitartez (kezkatua eta ebatzi gabeko atxikimendua aurkeztuz), bai autoaplikatuak diren galdesorteen bitartez (atxikimendu-antsietate maila altuarekin elkartzuz).

## ***4. kapitulua: Kognizio Soziala***

#### **4.1. Definizioa**

Interakzio sozialetan bi noranzkoko prozesuak ematen dira: norbanakoak seinale sozialen igorleak zein hartzaileak dira. Seinale sozialak (era kontziente zein inkontzientean) era egokian hauteman zein prozesatzean datzan funtzioari kognizio soziala deritzo (Adolphs, 1999; Frith & Frith, 2007).

Garapenaren arlotik aztertuta, espeziea bizirauteko beharrezkoa den funtzioa dugu kognizio soziala. Honen emaitza bezala kooperazioa, altruismoa eta hainbat jarrera prosozial eman daitezke, baina baita ere hertsadura, iruzurra eta manipulazioetara eramanez. Seinale sozialak era egokian prozesatzea alde aurretiko baldintza da kontzienteki zein inkontzienteki erantzun aproposak sortzeko. Horregatik, kognizio sozial gaitasunak beharrezkoak dira pertsonen arteko interakzioak arrakastatsuak izan daitezen. Gaitasun hauek, gizakien arteko harreman esanguratsuak (iraupen laburrekoak zein luzekoak) ezartzen eta mantentzen laguntzen dute.

Gizakietan lengoia (edukia eta tonua) izango litzateke seinalerik nabarmenena, baina horrez gain, beste espezieetan ere ematen diren hainbat seinale barneratzen ditu: aurpegi-espresioaren eta gorputzaren adierazpenaren bitartez, adibidez, pertsona bat zelan sentitzen den jakin dezakegu (Vuilleumier & Pourtois, 2007). Begiradaren azterketak ere, informazioa eman dezake, pertsonak arreta non jartzen duen edo zer egiteko intentzioa duen inferitzen lagunduz (Frith & Frith, 2006). Seinale sozial gehienak automatikoki eta inkontzienteki prozesatu egiten dira, igorleari buruzko informazioa emanez. Hurrengo lerroetan, kognizio sozialak barneratzen dituen seinaleen deskribapen bat aurkezten da, Frith eta Frith (2007) autoreen errebisioan oinarrituta, bi multzo handietan banatuta: alde batetik, seinale inkontzienteak eta bestetik, seinale kontzienteak.

#### **4.2. Kognizio sozialaren seinale inkontzienteak**

Igorleak zein hartzaileak ez dira zertan seinale hauen hartu-emanaz ohartu behar eta kasu batzuetan, seinale hauek, ez dute baliozko informaziorik ematen. Sarritan ezezagunak arriskutsuak edo fidagarriak bezala tratatzen ditugu, hauen itxura baino informazio gehiagorik gabe. Pertsonen aurpegietan emozioak automatikoki irakurtzen ditugu, benetakoak edo antzeztuak diren kontuan izan gabe. Seinale automatiko hauen bitartez, igorleak interakzioan dagoen objektu edo pertsonari buruzko informazioa eman

dezake; adibidez: elikagai bat atsegina ez denean igorlearen nazka aurpegiak, beste pertsona batek elikagai hori saihestea eragin dezake.

Seinale sozialek, pertsonen arteko harremanari buruzko informazioa ere eman dezakete. Beste pertsona batekin hitz egiterakoan bestearen mugimenduak ispilu baten moduan errepikatzen ditugu. Inkontzientea den fenomeno honi “kameleoi efektua” deritzo eta beste pertsonarekiko *rapport* onaren seinale bezala hautematen dugu (Chartrand & Bargh, 1999).

Seinale hauek kontziente egiten direnean, interakzio sozialek talde akzioak nabarmenki hobetu egiten dituzte. Seinaleak seinale bezala hauteman egiten ditugu, beraien esanahia ulertuz eta horrela giza komunikazioa lortuz. Gizartean bizi garen izakiak izatearen abantailetako bat, gure esperientzia zuzenez gain, beste pertsonen esperientziez ikas dezakegula izan daiteke. Ikasketa sozialak pozoitsua den elikagai bat saihestea eragin dezake beste pertsonen gertaerei erreparatuta.

Ikasketa sozialaren osagarri garrantzitsuenetariko bat, *begiraden azterketa* da. Beste pertsona baten begiradaren direkzioa kontuan hartuta, interesgarria den estimulu bat aurki dezakegu. Prozesu hau automatikoki eta nahitaez ematen da.

Beste osagarri garrantzitsu bat, *aurpegi-espresioa* da. Aurpegi espresioak imitatu egiten ditugu emozio bat aurpegi batean ikusten dugunean. Era honetan, guk geuk emozio berdin hori sentitu dezakegu (Gallese, Keysers, & Rizzolatti, 2004). Fenomeno hau mina, beldurra eta nazkarekin frogatu egin da. Horrela, besteen emozioez baliatuta informazioa lortzen dugu. Adibidez: pertsona baten beldur-aurpegia ikusita arriskutsua den estimulu bat dagoela inferitu dezakegu eta era egokian erantzuteko prest egongo gara.

Egoera berrien aurrean beste pertsonen erreakzioaz baliatzea gure erantzuna emateko *erreferentzia soziala* deritzo. Fenomeno hau haurretan ematen da estimulu baten aurrean daudenean. Amaren beldur aurpegiak jostailua ukitzeari uko egitea eragin ahal dio, baina objektuaren aurrean gozamina erakusten badu objektua aztertzeari ekingo dio (Feinman, Roberts, Hsieh, Sawyer, & Swanson, 1992). Era berean, helduek ere asoziazio hau egin dezakete.

Seinale sozial hauek prozesatzean ez da goi mailako prozesu kontzienterik martxan jartzen. Bere eboluzioaren historiagatik, garuna alde zuzenetik prestatuta dago estimulu mehatxagarri arkaikoak ikasteko (adibidez: sugeenganako beldurra ikastea).

Ezezagunak ikusterakoan, hauen kompetentzia edo adeitasuna oso azkar epaitu egiten dugu. Ikerketa batek, 100 milisegundotan ikusten dugun pertsonaren aurpegia fidagarria den edo ez epaitzen dugula aurkitu zuen, iritzi hau aurpegia aztertzeo denbora gehiago izanda aldatzen ez delarik (Willis & Todorov, 2006). Fidagarria ez den pertsona bat ikusteak amigdalaren aktibazioa eragiten du, era honetan estimulu bateri balio bat (positiboa edo negatiboa) atxikitzen zaio: beldur emozioa sentitzen dugun aktibazio bera agertuz.

Badirudi aurpegi bat fidagarri bezala sailkatzeko adostasuna dagoela pertsona ezberdinen iritzia kontuan izanda, nahiz eta iritzi hau baliozkoa den frogatzeko ebidentziarik ez egon. Aipatutako egoera, justifikazio gabeko *aurreiritzi* baten adibidea da, ziurrenik kultur arauen eta jatorrizko lehentasunen eragina duena. Pertsona talde batzuk beste batzuk baino pribilegiatuagoak bezala hautematen dira, estereotipo positiboak erakarriz. Aurreiritziak automatikoak diren mekanismoak dira, ezberdintasunak areagotzen dituzte eta arrazoiaren eta justiziaren zentzuaren kontrakoak dira. Hauen jatorri ebolutiboa ulertzeko hurrengo teoria aurki dezakegu: aurkariaren informazio ezari aurre egiteko baliagarriak izan ziren (Hirschfeld, 1998). Sentimendu irrazional hauek garun irudien instrumentuetan islatzen dira. Arrazarekiko aurreiritziek amigdalaren aktibazioa eragiten dituzte, beldurraren erantzunak aktibatuz. Interakzio zuzenaren bidez ere besteez fidatzea edo mesfidatzea lor dezakegu (*esperientzia*).

Desioak edo *intentzioak* ikusezinak dira, baina haiei buruz jakin dezakegu besteen begirada aztertuta. Begien eta aurpegiaren informazioaz gain, gorputz osoak informazioa ematen digu, batez ere besoek eta eskuek. Besteen helburuak eta intentzioak haien mugimenduei erreparatuta hautematea *ispilu neuronekin* erlazionatzen da. Neurona hauek animaliak beste animalien portaera ikusita aktibatzen dira, aktibazio berdina agertzen delarik bai portaera egiterakoan zein besteetan ikusterakoan (Rizzolatti & Craighero, 2004). Gizakietan ispilu sistema hau zabalagoa da, beste pertsonen emozioak hautematean ere aktibatzen dira ispilu neuronak, hala nola: tristura edo mina hautematean. Litekeena da garuneko ispilu sistemek besteen helburuak eta intentzioak hautematean eragina izatea.



Kognizio sozialaren funtzio nagusietako bat mundu elkartu bat sortzea izan daiteke, gizakien arteko interakzioa lortuz. Aipatutako ispilu sistema, honen adibide sinplea dugu, sistema honen bitartez bi pertsonen sentimenduak parekatuta gelditzen dira. Kameleoi efektuak ere , bi pertsonen gorputz mugimenduaren errepikapenaren bitartez *rapport* onaren zentzazioa eman dezake. Komunikazioak interakzio hauek hobetu ditzake bi pertsonak hitz berak erabiliz, helburu berdinetara heltzera bideratzen bai ditu. Sentimendu berak konpartitzeaz gain, munduaren errepresentazio berdina izatea funtsezkoa da. Horretarako bi pertsonen atentzioaren eragin-guneak berdina izan behar du (*arreta partekatua*). Horrez gain, badaude era inkontzientean eragiten duten beste hainbat seinale interakzio sozialetan islatzen direnak, hala nola: begiradaren erabilera elkarrizketetan txandak markatzeko edo hitz berdinak eta sintaxiaren erabilera imitatzea.

### 4.3. Kognizio sozialaren seinale kontzientek

Aipatutako seinaleak intentzio gabekoak dira, igorleak bidali egiten ditu haien berri izan gabe. Gizartean, badaude beste seinale mota asko nahita bidaliak izaten direnak, batzuetan seinale hauek gorde edo moldatu egiten dira. Baieztapen honek, bidaltzen ditugun seinaleak kontrolatu ditzakegula esan nahi du eta besteek guri buruz dakitena mugatu.

*Mentalizazioa*, nahita eta kontzienteki giza mundu batean parte hartzeko derrigorrezkoa den aurrekaria da. Bateman eta Fonagy-ren definizioaren arabera, mentalizazioa horrela ulertuko genuke: “Mentalization, or better mentalizing, is the process by which we make sense of each other and ourselves, implicitly and explicitly, in terms of subjective states and mental processes.” (Bateman & Fonagy, 2004). Mentalizazioaren prozesuaren oinarria haurren 18. hilabetean hasten dela teorizatu da (Gergely, Egyed, & Király, 2007) , haurrak pertsona ezberdinek objektuekiko jarrera ezberdinak hartzen dituztela konturatzen direnean. Era honetan, objektuekiko erantzunak pertsoneri buruzko informazioa ematen dutela ohartzen dira. Aro honetan haurrek pertsonen egoera mentala irudikatzen dute, adibidez: pertsona gehienek atsegin duten objektu baten beldur direla ohartu ahal dira. Helduek komunikatzeko desioa dutela ikus dezakete. Behin fase hau gaindituta, igorleak zein hartzailak seinale sozialak komunikatzeko tresna moduan erabili dezakete. Haurrek seinaleak interpretatu dezakete, igorlearen komunikatzeko intentzioak hautemanez objektu bateri buruzko

informazio esanguratsua lortu dezakete, komunikazio ez berbalean (begiradaren norabidea edo seinalatzea) oinarrituta adibidez.

Izan daiteke mentalizazio era primitiboak aurkitzea lehenengo urtea bete aurretik, gogaitzeko gaitasunean eta gogaitzea ulertzeko gaitasunean (Reddy, 2007). Haurrek 10 hilabeterekin heldu baten begiradaren norabideari erantzuten diote atentzioa objektu berean jarriz eta heldu baten atentzioa bideratu dezakete objektu bat begiratu dezaten, hau seinalatuz, aurpegi-espresioekin edo ahoskerarekin.

Bizitzaren momentu hain goiztiarretan egoera mentalez ohartzeak beste gaitasun kognitiboetan eragina izan dezake. Guztiz garrantzizkoa da hitzak ikasteko, adibidez haurraren ama objektu bat izendatzen ari denean. Haurrek ere jakitunen eta ez jakitunen artean bereizi dezakete, jakitunen seinaleei soilik erreparatuz (Sabbagh & Baldwin, 2001). Gainera kontzeptu abstraktuak ikasten dituzte egoera mentalekin elkartuz, hala nola: desioak, pentsamenduak, intentzioak eta sinesmenak. Esanahia eta sintaxiaren laguntzak kontzeptu hauek lasterrago ikasten laguntzen dute.

Adimenaren Teoria (*Theory of Mind*), egoera mentaletan beste pertsonen jarrera aurreikusi eta azaltzeko gaitasuna da. Garapenean aldaketa kualitatibo garrantzitsu bat suposatzen du. Badirudi, bost urte baino gutxiagoko haurrak ez direla egoera mentalez jabetzen esplizituki (Wimmer & Perner, 1983). Behin komunikatzeko seinaleez jabetzerakoan eta seinale hauen esanahia ulertzean, seinale hauek besteen egoera mentalak manipulatzeko erabili daitezke. Era honetan, besteen iritzia kontrola daiteke. Ideiak transmititzeko ere erabil daiteke gaitasun hau. Bidaltzen ditugun seinaleak egia ala gezurra izan daitezke, adibidez: gezur bat esaterakoan beste pertsona bati sinesmen faltsuak ezartzeko seinaleak erabiltzen dira. Nahita iruzur egitearen gaitasuna 5. urtean ezartzen da.

#### **4.4. Azpi-arloak**

Kognizio soziala ulertzeko, eskizofreniaren eta autismoaren inguruan batez ere, hainbat ikerketa burutu dira. Ikerketa hauek bost azpi-arlo aztertu dituzte, eredu klinikoan oinarrituta: adimenaren teoria, pertzepzio soziala, ezaguera soziala, atribuzio estiloak eta prozesamendu emozionala.

#### **4.4.1. Adimenaren teoria (*Theory of Mind, ToM*)**

Egoera mentaletan beste pertsonen jarrera aurreikusi eta azaltzeko gaitasuna da. Teoria bat kontsideratzen da, norberaren eta beste pertsonen adimenari buruzko inferentzien behaketa zuzena ezinezkoa baita. 1960. urtean autismoaren zailtasun komunikatibo, sozial eta jarrerakoak azaltzen saiatu ziren, kognizioaren defizit bat proposatuz. Hipotesi hauetako bat autismoa zuten pertsonak egoera mentalak irudikatzeko zailtasunak zituztela izan zen, horrela adimenaren teoriaren kontzeptua sortuz (Premack & Woodruff, 1978). Nahiz eta “Adimenaren teoria”, ikerketetan behin eta berriz erabili izan den kontzeptu bat izan, zehaztasun kontzeptual eta operazional gabe aurkitzen da. Brune-ren definizioan (Brune, 2005): “norberaren eta beste pertsonen egoera mentalak irudikatzeko gaitasun kognitiboa, adibidez, pentsamendu, sinesmen edo intentzioen bitartez” (21. orr.), *self* kontzeptua aipatzen da, eztabaida sortu duen gai bat delarik, ez baitago argi norberaren egoera mentalen kontzientziak besteen egoera mentalen inferentzian eragina duenik. Ikerketa neurologiko batek funtzio bakoitza garun egitura ezberdin batekin erlazionatu zuen (Vogelely et al., 2001). Horregatik, *ToM*aren definizioan hurrengo funtziora mugatzen dugu: “besteen egoera mentalak inferitzeko edo ezartzeko gaitasuna beraien jarrera aurreikusteko”. Egoera mental bezala pentsamenduak, ezagutzak, beharrak, sinesmenak eta intentzioak barneratzen dira. Horrez gain, Sperber eta Wilson autoreek hitz literalez gain, diskurtsoaren esanahi garrantzitsua ulertzea suposatzen duela gehitu zuten (Sperber & Wilson, 2002). Esanahi ezkutua ulertzeko, besteen egoera mentala ulertu behar dela onartzen da.

#### **4.4.2. Pertzepzio soziala**

Gutxi definitu izan den kognizio sozialaren azpi-arloa dugu pertzepzio soziala, askotan *ToM*arekin lotuta dauden ezaugarriak (intentzioen atribuzioa eta ezkutuko lengoaia) eta prozesamendu emozionala izendatzeko erabiltzen dena. Hau ebaluatzeko afektuaren hautematearen ariketak erabiltzen dira.

Pertzepzio sozialaren definizioa: informazio soziala sistema kognitiboan sartzeko era da transformatua izan ahal izateko. Kode sozialen (barnekoak eta kanpokoak) kodifikazioarekin eta hauen interpretazioarekin lotu izan da, rol, arau eta testuinguru sozialen identifikaziorako funtsezkoak diren prozesuak. Honek norbanako

batek sentitzen dituen egoerak eta hauen aurrean erantzutean izaten dituen portaerak interpretatzeak posible egiten du.

Ikerketan, pertzepzio soziala kode sozial ez berbalen (gorputz keinuak, aurpegikoak, begiradaren norabidea, etab.), para-berbalen (intonazioa) eta berbalen (ahozko lengoaia) prozesamenduaren ikuspuntutik eta testuinguruko informazio sozialaren (linguistikoa eta ikus-espaziala) ikuspuntutik aztertu izan da.

Horrez gain, pertsonen arteko ezaugarrien bitartez ere ikertu izan da, hala nola: intimitate maila, status maila eta egiazkotasuna; eta pertsonen arteko harremani buruz egiten den pertzepzioa.

#### **4.4.3. Ezaguera soziala**

Pertzepzio sozialarekin harreman handia duen kontzeptua da, egoera sozial jakin baten aurrean ohikoa den portaeraren ezaguera suposatzen duelako, egoera horretan jokatzeko duten ezaugarriak identifikatuz. Literatura zientifikoan, askotan “eskema sozial” kontzeptua aipatzen da, norberari eta besteei buruzko sinesmenei buruz hitz egiteko, lau osagarriekin lotzen delarik: rola, arauak, helburuak edo helmugak eta akzioak. Osagarri hauek egoera sozialak moldatzen dituzte eta interakzioak gidatzen dituzte.

#### **4.4.4. Atribuzio kausala**

Egoera positibo zein negatiboen kausak zelan inferitzen diren erari, atribuzio kausala deritzo, “zeren eta...” terminoak dituen adierazpenak erabiliz. Bi eredu teorikotatik ikertu izan da atribuzio kausala.

Alde batetik, *babesgabetasun ikasiaren eredu birformulatuak* (Abramson, Seligman, & Teasdale, 1978), hiru dimentsio edo konplexutasun maila bereizten ditu: *a) Barneko-kanpoko atribuzioa*: maila honek gertakizunen atribuzioa norbanakoari berari edo kanpoko kausei (zirkunstantziak edo hirugarren pertsonak) ezartzeko joera bereizten du; *b) Egonkortasuna-ezegonkortasuna*: egoerak denboran zehar iraunkorrak diren ala ez finkatzen duen maila da; eta *c) Orokortasuna-espezifikotasuna*: soilik egoera jakin batean eragina duen edo eremu zabalago batean eragiten duen finkatzen duen maila da. Azken urteotan dimentsio hauez gain beste bi gehitu izan dira: kontroltasun-kontrolzintasuna, egoerak kontrolatzeko pertzepzioaren maila eta kausa pertsonal edo unibertsalari buruzko maila.

Bestetik, Kelley-ren (1967) *atribuzio sozialaren teoriaren* ikuspuntua dugu, atribuzioak egiteko hiru informazio mota kontuan izaten direla baieztatu zuen: a) *adostasun maila*: gehiengoak era jakin batean erantzuten duela hautematea; b) *bereizgarritasuna*: behatutako pertsonak antzerako egoeren aurrean, era ezberdinean erantzuten duela hautematea; eta c) *trinkotasuna*: pertsona batek estimulu baten aurrean beti era berdinean erantzuten duela hautematea.

#### 4.4.5. Prozesamendu emozionala

Hiru sailetan banatzen da: emozioen antzematea, emozioen ulermena eta erregulazio emozionala.

a) *Emozioen antzematea*: prozesamendu emozionalak osatzen dituen sailetatik ikertuena dugu emozioen antzematea. Estimuluen balio afektiboa, bai linguistikoa (hitzak/esaldiak irakurriak edo hitz egindakoa eta prosodia) zein ez linguistikoa (pertsonek irudia, aurpegi espresioak, begiradaren direkzioa, eszenak) hauteman, igarri eta epaitzeko gaitasuna bezala definitu da.


b) *Emozioen ulermena*: lengoai emozionalaren eta emozioei buruzko ulermena barneratzen dituen kontzeptua da. Hau da, egoera sozialen emozioen inferentziarekin erlazionatzen da, aldeztatik arrazoiak bat suposatzen duelarik. Horregatik, emozioen antzematea baino, prozesu konplexuago bat dela esan daiteke

c) *Erregulazio emozionala*: Prozesu hauen bitartez, norbanakoek bizitzen dituzten emozioetan eragina izaten dute (zeintzuk, noiz eta nola bizi eta espresatzen dituzte). Prozesu hauek egoera emozional baten aurretik eman daitezke, emozioan eragiten duen ezaugarriak aldatuz edo martxan jar daitezke emozio bat bizitzen denean, kurtsioan dagoen esperientzia emozionalaren erabilera, bere espresioa eta erantzun fisiologikoa suposatzen duelarik.

#### 4.5. Kognizio sozialaren egitura neurologikoa

Frith eta Frith autoreek (2007) argitaratutako kognizio sozialaren azterketa zehatzak, prozesu konplexu honetan parte hartzen duten egitura neurologiko nagusiak aipatu eta deskribatu egiten ditu (2. Irudia). Hurrengoak dira proposatutako egiturak:

## 2. Irudia. Kognizio sozialean eragina duten egitura neuronal nagusiak (Frith & Frith, 2007).



a) *Amygdala*: objektu bati balioa atxikitzean aktibatua egiten da, adibidez: mesfidantza aurpegi zehatzetan atxikitzean.

b) *Medial prefrontal cortex* (MPFC): gune hau aktibatua izaten da norberaren eta besteen egoera mentaletan pentsatzerakoan.

c) *Anterior cingulate cortex* (ACC) eta *Anterior insula* (AI): gune hauek aktibatua izaten dira emozioak norbere buruan edo besteetan sentitzean, hala nola: mina edo nazka.

d) *Inferior frontal gyrus* (IFG) eta *Interparietal sulcus* (IPS): akzio bat gauzatu edo behatzerakoan aktibatzen dira.

f) *Temporo-parietal junction* (TPJ): ikuspuntua (espaziala eta mentala) hartu eta sinesmen faltsuak ulertzean aktibatzen da.

g) *Posterior superior temporal sulcus* (pSTS): akzioak behatzean eta akzioetatik intentzioak irakurtzerakoan aktibatzen da.

### 4.6. Instrumentuak

Enpatia kognitiboaren isuriak neurtzeko teknika proiektibo klasikoak erabili zituzten lehenengo ikerketa psikoanalitikoek: *Rorschach-en Test*-a (Rorschach, 1964) eta *Thematic Apperception Test*-a (TAT; (H. A. Murray, 1943)) besteak beste. Geroago tresna espezifikoak sortu izan ziren, kognizio soziala edo mentalizazioa bezalako kontzeptuak neurtzeko. Hauen artean, hurrengoak azpimarra ditzakegu:

*Hinting Task* (Corcoran, Mercer, & Frith, 1995). Tresna hau benetako intentzioak inferitzeko abilezia neurtzeko sortu zen, elkarrizketan ematen diren mezu implizituak aztertuz. 10 istorio laburrez osatuta dago, non istorio bakoitzean bi pertsonen arteko elkarrizketa ematen den. Istorioak pertsonaietako baten iradokizun argi batekin amaitzen dira. Aztertuei pertsonaiak esan duenarekin benetan zer nahi duen galdetzen zaie. Erantzuna egokia bada bi puntu ematen zaizkio eta hurrengo istorioarekin jarraitzen da. Okerra bada iradokizunari buruzko informazio gehiago ematen zaio, horrela puntu bat lortzeko aukera emanez. Bi erantzunak okerrak badira zero puntu izango lituzke item horretan.

*The Understanding "Faux pas" task* (Baron-Cohen, Jolliffe, Mortimore, & Robertson, 1997). Pentsamenduak eta intentzioak neurtzen dituen 20 istorioez osatutako tresna da. Istorio bakoitzean hizlari bat eta entzule bat aurkezten dira eta parte-hartzaileek istorio bakoitzeko "faux pas"-a (hanka sartzea) igarri behar dute.

*The "Strange stories" task* (Happé, 1994). Harropuzkeria, akatsak, gezur gupidatsuak eta pertuasioa aurkezten duten istorioez osatuta dago. Baditu ere, kontrol moduan funtzionatzen duten istorio neutralak, egoera ez-mentalak irudikatzen dituztenak. Istorioak irakurri ostean parte hartzaileei pertsonaien intentzioei buruzko galderak egiten zaizkie.

*The "Strange Stories Film Task"* (SSFT; (K. Murray et al., 2017)). Happé-ren instrumentuan oinarritutako instrumentu berri bat da. Aktoreek istorioak antzezten dituzte kamerari begira, ikusleari hitz egingo baliote bezala. Filmatutako bertsio honek seinale sozial gehiago aurkezten ditu, adibidez: testuingurua (egongela, sukaldea, etab.) eta aurpegi-emozioen espresioa.

*The Cartoon task* (Brune, 2005). Marrazki bizidunen irudiak aurkezten dira kooperazioa, iruzurra eta hirugarren pertsona bat kaltetzen duen kooperazioa gai bezala dutenak. Parte hartzaileek istorioak orden logiko batean ordenatu behar dituzte.

*Movie for the Assessment of Social Cognition* (MASC; (Dziobek et al., 2006)). Adimenaren teoria (ToM; *Theory of Mind*) edo mentalizazio gaitasuna neurtzen duen ordenagailuko instrumentua da. Froga honetan, aztertuek 15 minutuko filma ikusi behar dute. Film honetan, pertsonaia ezberdinak afari batean elkartzen dira, adiskidetasuna eta harremanen gaiak jorratuz. Pertsonaia bakoitzaren esperientziak emozio ezberdinak

sentiarazten ditu, hala nola: lotsa, nazka, afektua, haserrea, jeloskortasuna, eskerematea, anbizioa eta beldurra. Pertsonaien harremana ezezagunak izatetik lagunak izatera eraldatzen da, hortaz erreferentzia sozial sistemak eta intimitate mailak irudikatzen dira, egoera mentalen inferentziak emanez. Filma 45 puntutan gelditzen da, puntu hauetan aztertuek pertsonaien egoera mentalei buruzko galderak erantzuten dituzte (adibidez: pentsamenduak, sentimenduak eta intentzioak). Lau erantzun aukera ematen dira: mentalizazio eza, mentalizazio baxua, hipermentalizazioa eta mentalizazio zehatza. Instrumentuak guztizko puntuazio bat ekoizten du eta lau azpi-eskala, lau mentalizazio aukera bakoitzeko bana.

*Awkward Moment Test* (AMT; (Heavey, Phillips, Baron-Cohen, & Rutter, 2000)). Erresuma Batuko telebista iragarkietan eta saioetako klipetan oinarritutako kognizio sozialeko tresna da.

*Reading the Mind in the Film Task* (RMFT; (Golan, Baron-Cohen, Hill, & Golan, 2006)). Filmetan oinarritutako 22 klip laburrez osatutako kognizioa sozialeko instrumentua da.

*Moral Dilemmas Film Task* (MDFT; (Barnes, Lombardo, Wheelwright, & Baron-Cohen, 2009)). Amerikar telebista saio batetik (*House*) ateratako lau klipetan oinarritzen den instrumentua da. Klip hauetan bi pertsonaia aurkezten dira interakzioan. Pertsona hauen interakzioan dilema moralak eta eduki emozionalak ematen dira, ikusleak eszenaren eduki osoa hautemateko mentalizatzeko gai izan behar dira.

*The Awareness of Social Inference Test, part 2 and 3* (TASIT; (Mathersul, McDonald, & Rushby, 2013)). 31 klipez osatutako instrumentua da, hartu-eman sozial anbiguoak aurkezten dira.

*The Ambiguous Intentions Hostility Questionnaire* (AIHQ; (Combs, Penn, Wicher, & Waldheter, 2007)). 15 binetaz osaturiko testa da, emaitza negatiboak dituzten egoera sozialak deskribatzen dituztenak. Subjektuek binetak irakurri ondoren galdera batzuk erantzun behar dituzte pertsonaien intentzioei buruzkoak eta egoera berdinen aurrean nola erantzungo zuten esan behar dute. Binetak hiru kategoriatan banatuta daude, emaitza negatiboen kausaren arabera: “halabeharrezkoa”, “nahitakoa” edo “anbigua”.



*Social Cognition Screening Questionnaire* (SCSQ; (Roberts, Fiszdon, & Tek, 2011)). Bost azpi-eskalaz osaturiko instrumentua: oroimen verbala, inferentzia eskematikoa, ToM, metakognizioa eta etsaitasun isuria. Ariketak 10 bineta labur ditu asmatutako pertsonaia baten eta irakurlearen arteko interakzioa aurkeztuz. Subjektuek interakzioari buruzko galderei erantzun eta beraien erantzunen konfiantza maila ebaluatu behar dute.

**7. taula. Kognizio soziala ebaluatzeko instrumentu nagusiak**

<b>Akronimoa:</b>	<b>Izen osoa:</b>	<b>Autoreak, urtea:</b>	<b>Mota:</b>
—	<i>Hinting Task</i>	Corcoran, Mercer, & Frith, 1995	I
—	<i>The Understanding “Faux pas” task</i>	Baron-Cohen et al., 1997	I
—	<i>The “Strange stories” task</i>	Happé, 1994	I
<b>SSFT</b>	<i>The “Strange Stories Film Task”</i>	Murray et al., 2017	AB
—	<i>The cartoon task</i>	Brune 2005	I
<b>MASC</b>	<i>Movie for the Assessment of Social Cognition</i>	Dziobek et al., 2006	AB
<b>AMT</b>	<i>Awkward Moment Test</i>	Heavey et al., 2000	AB
<b>RMFT</b>	<i>Reading the Mind in the Film Task</i>	Golan, Baron-Cohen, Hill, & Golan, 2006	AB
<b>MDFT</b>	<i>Moral Dilemmas Film Task</i>	Barnes et al., 2009	I
<b>TASIT</b>	<i>The Awareness of Social Inference Test, part 2 and 3</i>	Mathersul et al., 2013	AB
<b>AIHQ</b>	<i>The Ambiguous Intentions Hostility Questionnaire</i>	Combs, Penn, Wicher, & Waldheter, 2007	I
<b>SCSQ</b>	<i>Social Cognition Screening Questionnaire</i>	Roberts, Fiszdon, & Tek., 2011	I
—	<i>Rorschach Inkblot Method (Exner’s comprehensive system)</i>	Rorschach, 1964; Exner, 1986	TP
<b>TAT</b>	<i>Thematic Apperception Test</i>	Murray, 1943	TP

I=Istorioak      AB=Audiobisuala      TP=Teknika Proiektiboa

#### 4.7. Kognizio soziala eta Mugako Nortasunaren Nahasmendua

Atal honetan, azken urteetan kognizio sozialaren eta MNNren inguruko ikerketen azterketa bat egiten da, ikerketa hauen ondorio nagusiak deskribatuz.

Argitaratutako lehen artikulu batean, MNNren ezaugarriak zituzten gazteen talde bat Depresio Nagusia zuten beste talde kliniko batekin konparatu egin zen (Jennings, Hulbert, Jackson, & Chanen, 2006). MNNren ezaugarri nagusiak eta bere etiologian eragina dutenak kontuan hartu zituzten MNN zuten pertsonen perfil klinikoa zehazteko asmoz. MNN zuten pertsonen kognizio sozialeko zailtasunak neurtzeko *Interpersonal Negotiation Strategies* (INS) eredu erabili zuten, self-eskemaren neurri batekin batera. MNN taldeak Depresio Nagusiko taldeak baino altuago puntuatu zuen hurrengo eskemetan: “mesfidantza/abusua”, “auto-kontrol gabezia” eta “eskubidea”. Horrez gain, MNN taldeko parte-hartzaileek atxikimenduekin erlazionatutako antsietate eta saiheste maila altuak izan zuten ezaugarri. Atxikimendu mailan taldeen arteko desberdintasunetan, Depresio Nagusiko taldearekin soilik saiheste altuago bategatik desberdindu izan ziren MNNko partaideak. Beste alde batetik, Depresio Nagusiko taldeak baino maila baxuagoa aurkeztu zuten pertsonen arteko gatazken erantzunetan eta pertsonen arteko funtzionamendu txarragoa ere aurkeztu zuten.

Kognizio soziala neurtzeko Preißler, Dziobek, Ritter, Heekeren, and Roepke (2010) autoreek MASC tresna berria erabili zuten, MNNko talde bat instrumentu honekin lehenengo aldiz aztertuz. Ikerketa honek ekologikoki baliogarria den eta kognizio soziala osatzen duen elementu gehienaz osatuta dagoen tresna barneratu zuen. MNN taldeak kontrol taldeak baino zailtasun handiagoak zituela frogatu zuen instrumentu konplexu baten aurrean (MASC) emozioak, pentsamenduak eta intentzioak hautematean, baina errendimendu berdina erakusten zutela froga simple batekin aztertuz (RME). Zailtasun hauetan eragiten zuten faktoreen artean: trauma osteko estres nahasmenduarekin (PTSD), sintoma intrusiboekin eta trauma sexualaren historiarekin koerikortasuna izatea aipatu ziren. Ikerketa talde berdinak, enpatia kognitiboa (kognizio soziala) eta enpatia emozionala (ardura enpatia) neurtzeko instrumentu baten bitartez: Multifaceted Empathy Test (MET (Dziobek et al., 2008)) MNNko talde bat aztertu zuen funtzionamendu psikofisiologiko eta neuronalarekin batera. MNN zuten pazienteek enpatia kognitiboan zein emozionalean zailtasunak erakutsi zituzten, aktibazio neuronal zehatzekin lotuta zeudelarik.

MNN duten pazienteen artean kognizio sozialaren gaitasunak aztertuta, literaturak emaitza ezberdinak islatzen ditu, gehien bat emozioen antzematean oinarritutako frogak erabilitako ikerketetan. Zenbait autorek zailtasunak aurkitu dituzte MNN duten pertsonen emozioen antzemate mailan (Bland, Williams, Scharer, & Manning, 2004; Levine, Marziali, & Hood, 1997; Unoka, Fogd, Fuzy, & Csukly, 2011) beste autore batzuek, berriz, kontrol taldearen emaitza berdina aurkitu dituzte (Domes et al., 2008; Dyck et al., 2009; Minzenberg, Poole, & Vinogradov, 2006) eta badaude emozio antzemate maila altuago batekin lotu dituzten autoreak ere (Lynch et al., 2006). Egoera honi erantzun bat emateko, ikerketa batean konplexutasun maila ezberdina zituzten hiru kognizio sozial ariketa mota aztertu zituzten aktibitate neuronalarekin batera: aurpegi neutralen prozesamendua, emozioen antzematea eta intentzio emozionalen atribuzioa edo ToM afektiboa (Mier et al., 2013). Ikerketa honetan, MNN zuten pazienteek ez zuten desberdintasunik aurkeztu jarrera mailan kognizio sozialean. Kontrol taldean ispilu sistema neuronalean aktibazio igoera eman zen ariketen konplexutasunarekin batera. MNNko taldean, aldiz, ispilu sistema neuronaleko hipoaktibazioa eman zen eta amigdalaren hiperaktibazioa, ariketen konplexutasun mailak eragina izan ez zuelarik. Ikerketa honek, MNN duten pazienteek prozesamendu emozionaleko ariketa estandarizatueta lortzen dituzten emaitza altuen azalpen posible bat ematen du. Aldi berean, eguneroko bizitzaren interakzio sozialean dituzten zailtasunak uler daitezke.

Beste ikerketa batek, MNN-n pentsamendu dikotomikoa (muturreko ebaluazioak: “zuria edo beltza”) aztertu zuten beste pentsamendu mota batzuekin batera: eszisioa (besteak guztiz onak edo txarrak bezala hautematea), negatibitatea eta pentsamenduaren konplexutasuna (Arntz & ten Haaf, 2012). Pentsamendu maila guzti hauetatik, pentsamendu dikotomikoa izan zen MNNrekin espezifikotasuna erakutsi zuen bakarra.

Estresaren eragina kontuan izan zuen ikerketa batean, aurpergi-emozioen antzematea eta ebaluazio soziala ikertu zuten MNNko talde bat, Cluster C-ko beste talde batekin eta kontrol-talde batekin konparatuta (Deckers et al., 2015). MNNko taldean estresak eragin handiagoa izan zuen emozio negatibo subjektiboa kontuan hartuta, hala ere talde guztietan eragin berdina izan zuen estresak, besteei buruzko ebaluazio negatiboak areagotuz. Estresak aurpegi-emozioen ezagutza hobetu zuen taldeen arteko diferentziarik gabe.

MNN-n auto-lesioen larritasuna aztertu zuten ikerketa talde batek kognizio sozialean zuen eragina behatuz. Emaitzetan, autolesio larriagoak zituzten partaideak inpultsibitate handiagoa eta funtzio exekutiboetan eta aurpegi-emozioen antzematean zailtasun handiagoak aurkezten zituztela aurkitu zuten (Williams et al., 2015).

Atxikimendua eta kognizio sozialaren arteko harremana ikertua izan da MNN-n, Nortasun Antisozialean eta Nostasun Saiheskorrean (Beeney et al., 2015). Ikerketa honetan, mentalizazioa eta self-besteen arteko mugak, atxikimenduari lotutako antsietatea eta MNNren arteko erlazioan artekari bezala jokatzeko dutela aurkitu zuten. Ikerketa honek atxikimendu ez segurua kognizio sozialeko zailtasunekin lotzen du eta MNNk bere eredu bereizgarria duela proposatzen du.

Kognizio sozialeko zailtasunen arrazoiak ikertzeko, bi paziente talde (MNN eta eskizofrenia) MASC frogaren bitartez, beste froga batzuen artean, ebaluatu zituzten (Andreou et al., 2015). Emaitzek hipotesi modura proposatu zuten eredu islatu zuten, MNN hipermentalizazioarekin lotura erakutsi zuten, eskizofrenia mentalizazio baxuarekin lotzen zen bitartean. Ikertutako ezaugarrien artean, erantzunetan izandako gehiegizko konfiantzak hipermentalizazioa iragartzen zuten; beste alde batetik, mentalizazio baxua oroimen berbala eta emozio pertzepzioaren menpe egon zen.

Literaturaren azterketa sistematiko batek, oxitozina farmakoak MNN duten pazienteetan kognizio sozialean zer nolako eragina zuen ikertu zuten (Servan, Brunelin, & Poulet, 2018). Emaitzen arabera, oxitozina farmakoak eragin positiboa dauka MNN duten pazienteengan bai emozioen antzematean eta emozioen bereizketan, bai mehatxu sozialen aurreko hiperzaintzan. Bestalde, oxitozinak konfiantza eta kooperazioa oztopatu dezakeela aurkitu da azterketa honetan.

Azkenik, kognizio sozialaren zenbait dimentsio neurtzen dituzten instrumentu ezberdinak (*The Mentalization Questionnaire*, *Reading the Mind in the Eyes* eta *Social Cognition Rating Tool*) erabili zituen ikerketa batek, MNN duten pazienteek kognizio sozialean zailtasunak zituztela eta zailtasun hauek pertsonen arteko harremanetan eragina izan zezaketela baieztatu zuten (Anupama, Bhola, Thirhalli, & Mehta, 2018).

Azken hamarkadetan argitaratu diren ikerketak aztertu zituen azterketa sistematiko batek, hurrengo ondorioak atera zituen kognizio soziala eta MNNren inguruan (Roepke, Vater, Preissler, Heekeren, & Dziobek, 2012): Ikerketek era sendoan

MNN duten pazienteek egoera mentalen atribuzioetan isuriak aurkezten dituztela frogatu dute (adibidez, besteak gaiztoak bezala ebaluatzea). Bestetik, egoera mentalak inferitzean oinarritu diren ikerketek (adibidez, enpatia kognitiboa) ez dute emaitza hain sendorik lortu. Froga konplexu eta ekologikoki baliagarrien aurrean badirudi MNN duten pazienteek emozioak, pentsamenduak eta besteen intenzioak atribuitzeko zailtasunak dituztela. MNN duten pazienteek enpatia kognitiboan, enpatia emozionalean eta seinale sozialen espresioan asaldura espezifikoa aurkezten dute. Autore hauek, kognizio sozialak igorlean eta hartzailean duen garrantzia ikusita pertsonen arteko harreman iraunkorrek mantentzeko eta aliantza terapeutikoa ezartzeko, defizit hauek etorkizunean ikertu beharko lirakeela planteatzen dute. Azterketa sistematiko honetan, argitaratu diren ikerketa ezberdinen emaitzetan oinarrituta, MNN ulertzeko kognizio sozialeko zailtasunak duten eraginaren eredu integratzaile bat proposatzen da.

## ***5. kapitulua: Aurpegi-Emozioen Antzimatea***

### 5.1. Definizioa eta kontzeptuaren garapena

Aurpegi-Emozioen Antzematea (AEA), aurpegietan emozioak detektatzean eta era zuzenean identifikatzean datzan gaitasunari deritzo. Kognizio soziala osatzen duen osagaietako bat da, prozesamendu emozionalaren azpi-arloan kokatzen dena.

Emozioen eta aurpegi-emozioen ikerketaren aitzindaria Paul Ekman psikologoa izan zen. Ekman-ek oinarrizko emozioen teoria garatu zuen, sei oinarrizko emozioen existentzia proposatuz: poza, tristura, beldurra, haserrea, harridura eta nazka (Ekman, 1992a, 1992b). Mespretxua, erruduntasuna, lotsa, alhadura eta hunkidura zalantzan utzi zituen eta geroago mespretxua bere zerrendan barneratu zuen. Oinarrizkoak ez diren beste emozio guztiak (emozio konplexuak) oinarrizko emozioen nahasketa bat bezala ulertu zituen. Oinarrizko emozioak unibertsalak direla eta kulturarekin loturarik ez dutela proposatu zuen, hauen funtzioa eguneroko bizitzan agertzen diren erronkei erantzun azkarra ematea delarik. Era honetan, Charles Darwin-en 1870eko hamarkadan jorratu zuen teoria defendatu zuen (Darwin, 1873), emozioak bizirauteko garatu izan diren mekanismoak bezala ulertzen baitzituen, jatorriz biologikoak diren ezaugarriak suposatuz.

Ekman-en (2005) hitzetan “aurpegi-espresioak komunikatzeko tresna bezala, pertsonen arteko informazioa barneratzen dute, lotura emozionala sustatuz eta pertsonen arteko harremanak erregulatuz”. Oinarrizko emozioek bere jokaera eredu bereizgarria daukate, haien artean ezberdinak direnak. Adibidez, beldurraren aktibazioak gorputzaren erantzun bat eragingo du, beste oinarrizko emozioek eragiten ez dutena.

Oinarrizko emozioen agerpenak, emozio mota bakoitzak bere erantzun bereizgarria zuela suposatuz, emozio espezifikoekiko erantzun hauen ikerketak garatzea eragin zuen. Emozio hauen existentzia frogatzeko era bat, emozioen antzematean datzan ariketen bitartez izan da, unibertsalak diren emozioak edonorengatik identifikatuak izan beharko lirakeelako, kultura eta arrazarekin loturarik izan gabe.

Sexua kontuan izanda, badirudi emakumeek erantzun zuzenen proportzio handiagoak lortzen dutela. Meta-analisi batek (Hall, 1978) aurkitu zuen argitaratutako ikerketen % 80ak emakumeen aldeko emaitzak erakusten zituela. Hala ere efektuaren tamaina txikia zuten ikerketak izan ziren. Hoffman eta kolaboratzaileek (2010), sexu diferentzia hauek ikertzea erabaki zuten aurpegi-emozioen antzemate bi ariketa mota



ezberdinekin: lehenengoan, aurpegi-espresioak % 100eko intentsitatearekin edo % 50eko intentsitatearekin aurkezten ziren; bigarrean, aurpegi-espresio intentsitate maila ezberdinak aurkezten ziren % 40 eta % 100eko intentsitate maila tartean. Emaitzetan emakumeek gizonek baino erantzun zuzen gehiago eman zituztela aurkitu zuten, baina soilik aurpegi-espresioen intentsitatea leuna zenean. Intentsitate altuko emozioetan ez zen desberdintasunik izan.

Ikerketaren analisisien lehenengo urratsa, bi taldeen arteko aldagai soziodemografikoen konparaketa egitea izan zen. Aldagai soziodemografiko hauek eragina izan dezakete bai aztertutako giroko aldagaietan (parentalitate lotura eta helduaroko atxikimendua), bai kognizio sozialeko frogan aurrean, hala nola aurpegi-emozioen antzematea neurtzen duten frogetan. Literatura zientifikoaren arabera (Andric Petrovic et al., 2019; Bulgari & Bava, 2019), diferentzia hauek emaitzetan isuria eman dezakete. Aztertutako lagin osoan, bi taldeen arteko diferentziak aurkitu ziren adinean, sexuan, hezkuntza mailan, enpleguan eta egoera zibilean. Horrez gain, inteligentzia-kozientean (IQ) desberdintasun nabarmenak eman ziren, MNNko taldean maila baxuagoa lortuz kontrol taldearekin alderatuz. Bestalde, aurpegi-emozioen antzematea neurtzen zuen frogan, *Benton Facial Recognition Test* (BFRT), ez ziren desberdintasunik eman, froga honen emaitzak aurpegi-emozioen identifikaziorako zailtasunak zituzten partaideak baztertzeko erabili ziren.

Aldagai soziodemografiko ezberdinen emaitzen artean, azpimarra dezakegu emakumeen proportzio altua (% 71) MNNko taldean. Proportzio altu honen azalpena, MNN duten gizon eta emakumeek aurkezten dituzten ezaugarri ezberdinetan egon daiteke eta sintomak aurkezteko era ezberdinetan, bi sexuen arteko prebalentziako desberdintasunean baino (Sansone et al., 2010). Adimen-kozientea eta hezkuntza maila



baxuagoak eman ziren MNNko taldean kontrol taldearekin konparatuta. Hiru aldagai hauek (sexua, adimen-koizientea eta hezkuntza maila) burututako analisi estatistikoetan kontuan hartu izan ziren eta koaldagai gisa barneratu ziren, aldagai hauek emaitzetan isuria sortu ahal zutela kontsideratuz. Aldagai nahasle berdina hauek, psikosiaren lehen gertaera, MNN eta kontrol talde baten arteko aurpegi-emozioen antzematea, *Degraded Facial Affect Recognition task* (DFAR) froga erabilita, aztertu zituen aurretiko ikerketa batean ere erabili ziren (Catalan et al., 2016).

## 9.2. Ezaugarri klinikoak eta nortasunaren dimentsioak

### *MNNko ezaugarri klinikoak*

MNNko pazienteen azpi-lagin klinikoko ( $n=76$ ) analisiak, lagin honen erdiak (% 51,9) nahasmendu psikiatrikoen familia aurrekariak izan zituztela aurkitu zuen. Datu honek literaturan aurkitu izan diren MNN eta nahasmendu psikiatrikoen familia aurrekariaren arteko lotura baieztatu egiten du, azterketa sistematiko bateko ondorioak erreplikaturik (White et al., 2003). Argitaratu berri den beste ikerketa batean pareko emaitzak lortu zituzten MNNA zuten senitartekoak aztertuta % 57ko prebalentzia aurkituz nahasmendu psikiatrikoen bat haien bizitzan zehar izanda (Ruocco et al., 2018). Emaitza hauek eragin genetikoaren aldeko datuak biltzen ditu, horrez gain giroak duen eragina ere azpimarra dezakegu.

Suizidio saiakeren presentzia aztertutako azpi-lagin klinikoan % 51,6koa izan zen. Datu honek iraganeko ikerketa epidemiologikoekin bat dator, MNN pazienteetan ematen den portaera bat da, batez ere tratamendu ambulatorioan daudenak eta gutxienez ospitaleratze psikiatriko bat izan duten pazienteen artean. Ikerketa zehatz batean ospitaleratuak zeuden MNN pazienteen % 73ak suizidio saiakerak aurkeztu zituztela aurkitu zuten (Soloff et al., 1994). Ikerketa berdina honetan, nahasmenduaren larritasunarekin erlazionatutako ezaugarriak (oldarkortasuna, aurretiko suizidio saiakerak, nortasun antisoziala eta aldarte depresiboak) suizidio saiakerekin elkartzen zirela aurkitu zuten. Tesiaren ikerketa proiektuan, ambulatorio mailako pazienteek osatutako lagina izanik, pazienteen ezaugarri klinikoaren larritasuna aurretiko ikerketakoak baino leunagoak izatea izan daiteke, era honetan lortutako suizidio saiakeren portzentaje baxuagoa azalduz. Badaude beste ikerketa epidemiologiko batzuk MNN duten pazienteen bizitzan zehar % 70-79ko suizidio saiakeren prebalentzia aurkitu dutenak (Black et al., 2004; Zanarini et al., 2008).

Autolesio portaeren presentziaren portzentaje altua (% 43,5) aurkitu izan da MNNko azpi-laginean. Aurretiko ikerketetan MNNko ezaugarri kliniko honen prebalentzia % 50-80 arteko tartean ezarri zen (Snir et al., 2015). Literatura zientifikoaren datuak kontuan izanda, gure ikerketan autolesio portaeren portzentajea ere espero zena baino baxuagoa izan da, MNN-n ematen diren datuekin konparatuta, baina hala ere, portzentajea altua izan da.

Azpi-lagin klinikoak elikaduraren nahasmenduekin eta sustantzien kontsumoaren nahasmenduekin koerikortasun maila altua aurkeztu zuen, bi nahasmendu hauek tratatzeko eguneko ospitaleko unitate espezializatuetatik ikerketa proiekturako bildu baitziren. Antsietate nahasmenduak (% 27,8) eta, maila baxuagoan, nahasmendu depresiboak (% 16,7) ere aurkeztu zituzten. Azpi-lagin honetan, zehaztu gabeko beste nahasmendu batzuk ere eman ziren (% 27,8), MNNren heterogeneotasuna agerian utziz. Nortasunaren nahasmenduen koerikortasuna aztertu dituzten ikerketek, cluster B-ko nahasmenduak koerikortasun altuena lortzen zutela aurkitu zuten I ardatzeko nahasmenduekin, hala nola: distimiareekin, nahasmendu bipolarrekin, nahasmendu aldizkako-leherkariarekin eta AFHSarekin (Lenzenweger, Lane, Loranger, & Kessler, 2007).

### ***Nortasunaren dimentsioak eta beste NNekiko koerikortasuna***

IIP-64 instrumentua lagin klinikoaren zati batean bakarrik administratu izan zen ( $n=56$ ) eta kontrol taldearen azpi-lagin batean ( $n=16$ ). Bi talde hauen konparaketa egiterakoan desberdintasun nabarmenak eman ziren testak biltzen dituen nortasuneko dimentsio ezberdin guztietan. Espero zen bezala, pertsonen arteko arazoetan emaitza altuagoak MNNko taldean aurkitu ziren. Pertsonen arteko arazoak, nortasunaren nahasmenduak dituzten pertsonen psikoterapia bat hasteko arrazoi nagusia izaten da. IIP-64 testak neurtzen dituen dimentsioen desberdintasunak talde klinikoaren eta kontrol taldearen artean, nortasunaren nahasmenduak azaltzen dituzten teoria eta definizio ezberdinekin bat dator.

Argitaratu berri den metaanalisi batean, 127 ikerketa aztertu izan ziren pertsonen arteko arazoak aztertu zituztenak *Circumplex* ereduan oinarrituta. Analisi honek, Nortasunaren Nahasmendu bakoitza ereduko pertsonen arteko estilo ezberdinekin elkartzen zirela aurkitu zuen. Metaanalisiaren ondorioen arabera, MNN korrelazio neurrizko-altua aurkeztu zuen pertsonen arteko arazo mota guztiekin, “ez asertiboa” eta

“gehiegizko hazkuntza” (*overnurturance*) estiloekin izan ezik (Wilson, Stroud, & Durbin, 2017).

MNN eta beste nortasunaren nahasmenduak kontuan izanda, aztertutako azpilagin kliniko honek, saiheskari, obsesibo-kompulsibo eta paranoide motako nortasunaren nahasmenduekin aurkeztu zuen koerikortasun maila altuenak. Lortutako emaitzak aurretiko ikerketekin bat datoz. Nortasun nahasmendu ezberdinen arteko koerikortasuna aztertu zituen ikerketa batek (Nysaeter & Nordahl, 2012), MNN nortasunaren nahasmendu guztietatik koerikortasun maila altuena zuela finkatu zuen, eta asoziazio espezifikoak aurkitu zituen ikerketa proiektu honetan aipatu ditugun nahasmendu berdinekin, beraz emaitza hauek baieztatu izan dira.

### **9.3. MNN eta kontrol taldearen arteko desberdintasunak parentalitate loturan**

#### ***PBI eskala kualitatiboak: Zaintza eta Gehiegizko babes***

Burututako ikerketa proiektu honetan, MNN duten pazienteek zaintza maila baxuagoa identifikatu zuten haien gurasoetan eta gehiegizko babes maila altuagoa, bai aita zein amaren testaren bertsioan kontrol taldearekin konparatuta. Emaitza berdin hauek zenbait ikerketetan ere eman ziren eta atal honetan deskribatzen dira. Tesiaren emaitzak arlo honetan, literatura zientifikoak emandako datuak baieztatzen ditu.

PBI instrumentua MNN zuten pertsonetan erabili zuen lehenengo ikerketa batek (Goldberg, Mann, Wise, & Segall, 1985), MNN zuten pazienteek beste paziente psikiatrikoekin eta kontrol talde batekin konparatuta zaintzan baxuago eta gehiegizko babesean altuagoa puntuatzen zutela adierazi zuen. MNN zuten pazienteak, paziente eskizofrenikoekin eta kontrol talde batekin konparatu zituen beste ikerketa batean (Byrne, Velamoor, Cernovsky, Cortese, & Losztyn, 1990), MNN zuten pazienteek kontrol taldeak baino zaintza maila baxuagoa eta gehiegizko babes maila altuagoa identifikatu zutela aurkitu zuten, gurasoen bi bertsioetan. Eskizofreniako taldearekin ere desberdintasunak eman ziren amarekiko zaintza baxuagoa eta aitarekiko gehiegizko babes altuagoak aurkeztuz. S Torgersen and Alnæs (1992) MNN aedo/eta nahasmendu eskizotipikoa zuten pazienteen haurtzaroko gurasoekiko parentalitate pertzepzioa aztertu zuten. Emaitzetan bi nahasmendu motek zaintza mailan puntuazioa baxuak izan zituztela aurkitu zuten, baina MNN zuten pazienteen kasuan gehiegizko babes maila altua aurkeztu zuten kontrol taldearekin konparatuta, nahasmendu eskizotipikoaren

kasuan kontrol taldeak baino gehiegizko babes maila baxuagoa erakusten zuten bitartean. Ikerketa hauetan eman den joera behin eta berriz errepikatu izan da ikerketa ezberdinen emaitzetan, MNN zuten pazienteak MNN ez zuten talde klinikoekin konparatzerakoan (Infurna et al., 2016; Zweig-Frank & Paris, 1991). MNN duten pazienteek haien aitak eta amak zaintza maila baxuagoarekin hautematen dituzte eta gehiegizko babes maila altuagoarekin MNN ez duten pazienteak eta pertsona osasuntsuak baino.

Aipatutako ebidentziez gain, badaude beste ikerketa batzuk soilik PBIko dimentsio batean aurkitu izan dituztenak. MNN zuten emakume talde bat aztertu zuen ikerketa batean soilik zaintza dimentsioa kontrol taldearekin desberdintzen zela aurkitu zuten, desberdintasun hauek batez ere amaren kasuan eman ziren, aitaren kasuan joera motako asoziazioa lortuz. “Gehiegizko babes” dimentsioan eman ziren desberdintasunak ez ziren esanguratsuak izan (Paris & Frank, 1989). Izu-nahasmendua eta agorafobia zuten pazienteak aztertu zituen ikerketa batek (Latas, Starcevic, Trajkovic, & Bogojevic, 2000), aurkezten zituzten nortasunaren nahasmenduak kontuan izanda taldeetan banatu ziren, NNk zuten pazienteak zaintza maila baxuagoa lortu eta gehiegizko babes maila altuagoa aurkeztu zuten. Erregresio logistikoaren ostean soilik gehiegizko babesa cluster B-ko NNekin asoziatu zen, bereziki MNNrekin. Azpimarratzekoa da azken bi ikerketa hauek MNN zuten pazienteak beste pazienteen talde klinikoekin konparatu zela, eta ez ziren konparatuak izan pertsona osasuntsuen kontrol talde batekin.

Tesi honen emaitzak egunera arte argitaratu izan diren ikerketekin bat datoz PBI instrumentuaren dimentsio kuantitatiboak kontuan izanda: MNN duten pazienteek haien gurasoetan zaintza maila baxuagoa hautematen dutela adieraziz eta gehiegizko babes maila altuagoa pertsona osasuntsuekin konparatuta.

***PBI eskala kualitatiboa: Optimoa, Afektu gabeko kontrola, Hertsatutako afektua eta Arduragabea (parentalitate estiloak)***

PBI instrumentuaren eskala kualitatiboa aztertuta, taldeen arteko desberdintasun esanguratsuak eman ziren, kontrol taldean estilo optimoak errepresentazio altuagoa lortuz bai aitaren zein amaren bertsioan. Parentalitate estilo ez-optimoak MNN-n portzentai altuagoan eman ziren bai aitaren zein amaren kasuan. MNNko taldean aitaren

kasuan arduragabe estiloa izan zen portzentaje altuena lortu zuena, amaren kasuan berriz, “afektu gabeko kontrol” estiloa izan zen prebalenteena.

Literaturako azterketa batean, 46 ikerketa aztertu ziren talde kliniko ezberdinetan (antsietate nahasmenduak, eskizofrenia, nahasmendua bipolarra, nortasunaren nahasmenduak eta drogazaletasuna) PBI froga erabili izan zituztenak. Azterketa honetan “afektu gabeko kontrola” parentalitate estilo prebalenteena izan zela aurkitu zuten, nahasmendu bipolarrean eta nortasunaren nahasmendua saihezkarian izan ezik (Favaretto & Torresani, 2011). Emaitzetan, “parentalitate lotura” aldagaiak beldurrezko nahasmenduaren, MNNren eta drogazaletasunaren artean desberdinu egin zezakeela aurkitu zuten. Tesi honen ikerketa proiektuak, argitaratu diren ikerketekin bat dator, MNN taldean “afektu gabeko kontrola” aurkitu delarik estilo prebalenteena bezala amaren bertsioan, baina ez aitaren bertsioan.

Ikerketa talde honek burututako aurretiko ikerketa batean, proiektu honen lagin klinikoaren zati bat aztertu zen MNN ( $n=36$ ), paziente psikotikoen talde batekin ( $n=61$ ) eta kontrol talde batekin konparatuta ( $n=173$ ) antzeko emaitzak lortu ziren. “Afektu gabeko kontrol” estiloa prebalenteena izan zen MNN taldean bai amaren zein aitaren bertsioan. Ikerketa honek, MNN taldeak parentalitate optimoko portzentaje baxuena lortu zuen, paziente psikotikoak eta kontrol taldeak baino portzentaje baxuagoa lortuz. Tesi honetan, MNNko lagin kopurua handitu egin da eta emaitzetan amaren estiloa baieztatu dugu, “afektu gabeko kontrola”, baina aitaren bertsioan berriz emaitza ezberdinak lortu izan dira, “arduragabe” estiloa prebalenteena bezala identifikatuz. Orokorrean ikerketek PBI instrumentuaren eskala kuantitatiboak erabili izan dituzte laginak aztertzeko, beraz ez dago ebidentzia nahikorik gure emaitzak kontrastatzeko.

Tesiaren emaitzak MNN azaltzen dituzten teoriekin bat datoz, familiako giroak eta batez ere lehen mailako zaintzaileekiko harremanak nahasmenduaren garapenean garrantzia ezarriz. Horrez gain, parentalitate kalitate maila baxua MNNrekin elkartu izan da (Keinänen, Johnson, Richards, & Courtney, 2012).

#### **9.4. MNN eta kontrol taldearen arteko desberdintasunak helduaroko atxikimenduan**

##### ***ECR-R eskala kuantitatiboa: Atxikimendu-antsietatea eta Atxikimendu-saihestea***

Tesi honen ikerketa proiektuan, MNN duten pazienteek atxikimendu-antsietate eta atxikimendu-saiheste maila altuagoak lortu zuten kontrol taldearekin konparatuta. Aurkikuntza hauek aurretiko ikerketekin bat datozen partzialki, orain arte argitaratu izan diren ikerketak autoaplikatuak diren helduaroko atxikimenduko frogak erabilia MNNren ezaugarrien eta atxikimendu-antsietatearen arteko asoziazioa aurkitu izan dutelako, baina ez atxikimendu-saihestearekin (Aaronson, Bender, Skodol, & Gunderson, 2006; Alexander, 1993; Brennan & Shaver, 1998; Dutton, Saunders, Starzomski, & Bartholomew, 1994; Eurelings-Bontekoe, Verschuur, & Schreuder, 2003; Levy, 2005; Meyer, Pilkonis, & Beevers, 2004; Nickell, Waudby, & Trull, 2002). Tesi honen ikerketa proiektuko MNN taldeak atxikimendu-saihestean puntuazio altua ere lortu zuen, MNNko lagin bat kontrol taldearekin konparatuta aztertu zuen beste ikerketa batean eman ziren emaitzak baieztatuz (Critchfield et al., 2008).

Argitaratutako emaitzen berdintasun eta desberdintasun hauen azalpen posible bat laginaren oinarrian egon daiteke. Tesi honen talde klinikoko partaideak MNNren diagnosia zuten pazienteak ziren, arlo honetan argitaratu diren ikerketa gehienak, berriz, populazio orokorreko laginak erabili dituzte eta hauetan MNNko ezaugarriak kontuan hartu dituzte. Horregatik, izan daiteke soilik MNNko ezaugarriak dituzten pertsonak atxikimendu-antsietatearekin erlazionatzen direla baina MNNko diagnosia daukatenak baita ere atxikimendu-saiheste maila altua izan dezakete. MNNko larritasun mailak ere eragina izan dezake helduaroko atxikimenduan. Beste azalpen posible bat ikerketako MNN taldeak duen koerikortasun altua izan daiteke. MNNko pazienteak hiru unitate ambulatorioetan egon dira tratamenduan, eta kasu batzuetan tratamendu psikoterapeutiko espezifikoa jasotzen ari ziren elikaduren nahasmenduetarako edo sustantzien kontsumoen nahasmenduetarako. Bi nahasmendu komorbido hauek, gure emaitzetan aurkitu den atxikimendu-saiheste maila altua azaldu dezakete.

***ECR-R eskala kualitatiboa: Segurua, Kezkatua, Beldurtia eta Ekiditzailea (Atxikimendu estiloak)***

ECR-R instrumentuak eskaintzen dituen lau atxikimendu estiloak aztertuta (segurua, kezkatua, beldurtia eta ekiditzailea), desberdintasun esanguratsuak lortu izan dira MNN taldearen eta kontrol taldearen artean. MNN taldeko portzentajerik altuena (% 50) “kezkatu” (atxikimendu-antsietate altua eta atxikimendu-saiheste baxua) estiloan eman da. Emaizta berdina hauek ECR-R instrumentua MNNko talde batean erabili zuen aurretiko ikerketa batean eman ziren (MacDonald, Berlow, & Thomas, 2013). Emaizta hauek ere, autoaplikatuak diren tresnak erabili zituzten beste ikerketen emaitzekin bat datoz, orokorrean korrelazio bat aurkitu zutenak MNNko ezaugarrien eta “beldurti” edo “kezkatu” estiloekin eta haserre/etsai- atxikimenduarekin (Frias et al., 2016; Levy, Ellison, Scott, & Bernecker, 2011; Levy et al., 2005). AAI instrumentua erabili dituzten ikerketetan ere estilo “kezkatua” izan da gehien aurkitu izan dena MNN-n eta trauma edo galera bategatik “ebatzi gabeak” bezala identifikatu izan dira (Barone, 2003; Barone et al., 2011; Fonagy et al., 1996; Levy, 2005; Macfie et al., 2014; Patrick et al., 1994; Rosenstein & Horowitz, 1996).

Kontrol taldearen kasuan, berriz, atxikimendu estilo “segurua” izan zen errepresentazio altuena izan zuena (% 78,9). Aurkitutako emaitza populazio orokorrean estimatzen dena baino altuagoa izan da, Ipar Amerikan egindako aurretiko ikerketa epidemiologiokoekin konparatuta, AAI instrumentua erabilia atxikimendu seguruaren % 58a aurkitu zelarik (Bakermans-Kranenburg & van I Jzendoorn, 2009).

**9.5. MNN eta kontrol taldearen arteko desberdintasuna aurpegi-emozioen antzematean**

Ikerketa proiektu honetan jasotako emaitzek MNN duten pazienteek aurpegi-emozioak neurtzen dituen eskala totalean desberdintasunik ez dituztela frogatzen dute. Emaizta hauek aurpegi-emozioen antzematea eta MNN aztertu dituzten aurretiko ikerketen emaitzak baieztatzen dituzte, kontrol taldearekin diferentzia eza aurkitu izan dutenak eskala orokorrari erreparatuta (Dyck et al., 2009; Lynch et al., 2006; Minzenberg et al., 2006; Robin et al., 2012; v Ceumern-Lindenstjerna et al., 2007). Bestalde, aurpegi-emozioen antzematea eta MNNko arloan literaturako emaitza ezberdinak ikusita, ikerketa honetan izandako emaitzak MNNko laginetan aurpegi-emozioen antzematerako zailtasunak aurkitu dituzten ikerketekin (Dyck et al., 2009;

Unoka, Seres, Aspan, Bodi, & Keri, 2009) eta baita ere aurpegi emozioak antzemateko sentsibilitate altuagoa aurkitu duten ikerketekin kontrastatu egiten dute (Lynch et al., 2006; Wagner & Linehan, 1999).

Arlo honetan egin den azterketa sistematiko baten ondorioetan (Domes et al., 2009) MNN duten pazienteek hurrengo joera dutela baieztatu zuten: zailtasun leunak aurkezten dituzte oinarrizko emozioak antzematerakoan, “negatibotasuna” (*negativity*) edo haserrea ikusteko isuria eta sentsibilitate altuagoa dute emozio negatiboak antzematerakoan. Urte batzuk geroago, arlo honetan meta-analisi bat burutu izan zen (Daros et al., 2013) hurrengo ondorioak baieztatuz: MNN pazienteek zailtasunak aurkezten dituzte emozio negatiboak antzematerakoan eta errakuntzak izan dezakete emozioak aurpegi neutroetan ezarriz. Bi ikerketa hauek emozio negatiboekiko zailtasun espezifikoak aipatzen dituzte eta emozio negatiboak gehiegi hautemateko joera. Hipotesi honekin jarraituta emozio espezifikoak aztertu genituen ikerketa proiektu honetan: poztasuna, beldurra, haserrea eta aurpegi neutroak aztertuz. Lortutako emaitzek, aipatutako azterketa sistematiko eta metaanalisiaren ondorioak baieztatzen ditu, MNNko taldean aurpegi neutroekiko emaitza baxuagoak lortuz kontrol taldearekin konparatuta. Emozio espezifikoak kontuan izanda, aurretiko hiru ikerketetan eman ziren emaitza berdinak lortu ziren aurpegi neutroekiko zailtasunak aurkituz MNN-n (Catalan et al., 2016; Dyck et al., 2009; Wagner & Linehan, 1999).

Analisi estatistikoa metodoaren kapituluan aipatu den bezala, ajustatu egin zen eragina izan ahal zuten aldagaiak kontrolatzeko (IQ, hezkuntza maila eta sexua). Analisi honen ostean, aurpegi neutroen desberdintasunak mantendu izan ziren. Horrez gain, analisiak desberdintasun berri bat aurkeztu zuen: MNN pazienteek beldur aurpegiak antzematerakoan emaitza hobekoak lortu zituzten kontrol taldearekin konparatuta. Emaitza berdin hauek aurretiko ikerketetan eman ziren (Lynch et al., 2006; Wagner & Linehan, 1999). Horrez gain, lehen aipatutako azterketa sistematiko eta metanalisiaren ondorioekin bat datozen (Daros et al., 2013; Domes et al., 2009). Gure emaitzen atzean hurrengo azalpena egon daiteke: MNN duten pazienteek negatibotasuna edo emozio negatiboak aurpegi neutroetan hautemateko joera daukate eta emozio negatiboak antzemateko sentsibilitate altuagoa. Honek, gure ikerketa proiektuko MNNko laginak aurpegi neutroak antzematean izan dituzten zailtasunak azaldu ditzakete eta era berean beldur aurpegiak (emozio negatiboak) antzemateko hobekuntza.



MNN duten pazienteen eta kontrol taldeak emandako emaitzen joerak aztertzeko, DFAR instrumentuan emandako erroreak aztertu izan ziren. Errore hauek aztertzerakoan, gure teoria baieztatu egin zen, MNNko taldean aurpegi neutroetan eta poza aurpegietan emozio negatiboak hautemateko joera aurkituz. Erroreen analisiak ere MNNko taldeko beldur aurpegiak antzemateko hobekuntza azal dezake, kontrol taldeak beldur emozioaren antzematea minimizatu egin zuten, aurpegi hauei neutroak bezala hautemanez.

### **9.6. Parentalitate lotura eta helduaroko atxikimenduaren arteko asoziazioa**

Lehen mailako zaintzaileen eta helduaroko atxikimenduaren arteko asoziazioa teoria ezberdinek aipatu izan dute Bowlby-ren (1969) atxikimenduaren teoria garatu zenetik eta azken hamarkadetan ikertua izan den arlo bat izan da, ikerketa longitudinal ezberdinekin (Klohnen & John, 1998; Main, Kaplan, & Cassidy, 1985; Waters, Merrick, Treboux, Crowell, & Albersheim, 2000). Hala ere, literaturaren azterketa bat egin ondoren, ez dugu orain arte bi aldagai hauen arteko harremana MNNko lagin batean egindako ikerketarik aurkitu. Espero genuen bezala, ikerketa proiektu honetan aztertu diren bi giroko aldagaien galdesorta autoaplikatuak kontuan izanda (parentalitate lotura PBI instrumentuarekin eta helduaroko atxikimendua ECR-R instrumentuarekin), haien artean korrelazio esanguratsuak lortu izan dira, bai MNNko taldean zein kontrol taldean.

Lehendabizi, MNNko taldeko emaitzak azalduko ditugu. Ikerketa proiektuko MNN pazienteen taldeak asoziazio espezifikoak aurkeztu zituen amaren zaintza eta atxikimendu-antsietatearen artean eta amaren zaintza eta atxikimendu-saihestearen artean. Bi kasu hauetan, korrelazioa negatiboa izan zen, hots: amaren zaintza altuak atxikimendu-antsietatearen maila baxuarekin eta baita ere atxikimendu-saiheste maila baxuarekin elkartu zen. Amaren zaintza, helduaroko atxikimenduan eragina izan dezakeela esan dezakegu faktore erresiliente baten moduan jokatuz atxikimendu-antsietatea eta atxikimendu-saihestea ekiditeko, eta era honetan atxikimendu estilo ez-seguruak ekiditeko. Azpimarratzekoa da, gure ikerketan MNN taldean soilik amaren irudia izan dela helduaroko atxikimenduko dimentsioekin harremana aurkeztu duena, eta ez aitaren irudia.

Nahasmendu Obsesibo-Konpulsiboa (NOK) duten paziente eta paziente depresiboen bi talde aztertu zituen ikerketa batean, NOK pazienteek kontrol taldeak baino maila altuagoa aurkeztu zuten atxikimendu ez-seguruan, baina ez zuten inolako

asoziaziorik aurkitu atxikimendu ez-segurua eta parentalitate loturen oroitzapenen artean (Myhr, Sookman, & Pinard, 2004). Honen azalpen posible bat, esperientzia goiztiarrak espezifikoki borderline ezaugarriak garatzea eragin dezaketela izan daiteke.

Ondoren, kontrol taldeko emaitzak azalduko dira. Amaren eta aitaren kasuan, atxikimendu-antsietatearekin eta atxikimendu-saihestearekin asoziazioak eman dira: atxikimendu-antsietatea amaren eta aitaren gehiegizko babesarekin asoziatu zen, eta baita ere amaren zaintzarekin era negatiboan. Emaitza hauek atxikimenduaren teoriarekin bat datoz, atxikimendu disfuntzional estiloak gehiegizko babes altuarekin eta zaintza maila baxuarekin harremantzen duenak. Atxikimendu-saihestearen kasuan, zaintzan maila baxuago batekin asoziatu ziren amaren eta aitaren bertsioan, “zaintza” dimentsioarekin espezifikotasuna aurkeztuz.

Populazio orokorrean egindako ikerketa batean, ikasle unibertsitarioak partaide bezala erabili zituenak (Berry, Band, Corcoran, Barrowclough, & Wearden, 2007) PBI eta helduaroko atxikimenduaren neurrien (Psychosis Attachment Measure; PAM) arteko asoziazioa aurkitu zen, atxikimendu-antsietatea amaren eta aitaren gehiegizko babesarekin harremana aurkituz eta amaren zaintzaren asoziazio leuna ere. Atxikimendu-saihestearen kasuan, amaren zaintzarekin soilik aurkitu zuten asoziazioa. Tesi honen ikerketa proiektuan aurkitutako emaitzek aipatutako ikerketa honen emaitzak baieztatzen ditu, harreman erromantikoetan oinarritzen den helduaroko atxikimendua neurtzen duen instrumentu berri batekin emaitzak erreplikatur (ECR-R).

### **9.7. Atxikimenduaren neurrien eta aurpegi-emozioen antzematearen arteko asoziazioa**

Ikerketa proiektu honetan atxikimenduarekin harremandutako neurrien eta aurpegi-emozioen arteko asoziazioa aztertzen da MNNko lagin batean. Parentalitate lotura neurtzen duen instrumentuak (PBI) soilik asoziazio bat aurkeztu zuen aurpegi-emozioen antzematearekin: aitaren gehiegizko babesa haserre aurpegi antzemate maila baxuago batekin elkartu zen. Kontrol taldean, aitaren zaintzaren eta poztasun aurpegiak antzemateko zailtasunekiko lotura aurkitu zen. Helduaroko atxikimenduaren instrumentua (ECR-R) kontuan izanda ez ziren asoziaziorik eman atxikimenduko dimentsioen eta aurpegi-emozioen antzematearen neurrien artean MNN taldean zein kontrol taldean. Parentalitate lotura eta helduaroko atxikimenduan lortutako emaitzak

era bereiztuan azalduko dira atal honetan, hala ere bi kontzeptuak atxikimenduaren teoriaren parte kontsidera genezake.

### ***Parentalitate lotura eta aurpegi-emozioen antzematea***

Parentalitate aldagaia eta aurpegi-emozioen antzematea aztertuta, nortasunaren nahasmendua duten pazienteetan gutxi ikertu izan den arlo bat izan da. Argitaratutako ikerketa batean antzemandako parentalitate lotura PBI instrumentuarekin aztertu zen eta aurpegi emozioen antzematea *Ekman Japanese and Caucasian Facial Expressions of Emotion* (JACFEE) instrumentuarekin NNko lagin batean. Emaitzek NNko pazienteetan amaren zaintza era negatiboan haserre aurpegiaren antzematea iradokitzen zuela aurkitu zuten (Zheng et al., 2011). Tesiaren emaitzetan, harreman bera lortu izan da baina parentalitatearen beste dimentsioarekin, aitaren gehiegizko babesak haserre aurpegiaren negatiboki asoziatu egin zen. Aitaren zaintza, kontrol taldean era negatiboan asoziatu egin zen gure ikerketan poztasun aurpegiak antzematean.

Tesi honek, aurkitu izan den aurretiko ikerketa bakarraren datuak partzialki baieztatzen ditu, aitaren parentalitateko dimentsioak aurpegi-emozioen antzematearekin lotzen dituenak. Gure emaitzei erreparatuz, parentalitate lotura aurpegi-emozioen antzematean eragina izan dezakeela esan dezakegu; espezifikoki aitaren dimentsioak emozio espezifikoki antzematean eragina izan dezake. MNNren kasuan, aitaren gehiegizko babesak asoziazio negatiboa aurkeztu du haserre aurpegiaren antzematearekin eta kontrol taldean aitaren zaintza asoziazio negatiboa aurkeztu du poza aurpegiaren antzematearekin.

### ***Helduaroko atxikimendua eta aurpegi-emozioen antzematea***

Argitaratutako ebidentziarekin kontrastatuz, tesi honen emaitzetan ez dira aurkitu helduaroko atxikimenduaren eta aurpegi-emozioen antzematearen arteko asoziaziorik. Hurrengo lerroetan helduaroko atxikimenduaren eta aurpegi-emozioen antzematearen arteko ebidentziak aurkitu zituzten ikerketak deskribatzen dira: 132 emakume gazteekin burututako ikerketa batean (Hunefeldt, Laghi, & Ortu, 2013), ECR eta RME instrumentuez baliatuta “theory of mind” neurriak lortzeko, atxikimendu-antsietatearen eta “theory of mind” puntuazioen arteko lotura aurkitu zuten, neutroak ziren egoera mentalak eta antzemateko zailak ziren egoera mentalak hobeto identifikatuz. Argitaratu berri den ikerketa batean, (English et al., 2018) baita ere

populazio orokorreko emakume lagin bat aztertuta ( $n=126$ ) ECR instrumentua eta AEAKo ariketa bat erabilia, atxikimendu-saiheste maila beldurraren antzemate azkarragoarekin elkartzen zela aurkitu zuten. Atxikimenduaren dimentsioak aztertu zituen hirugarren ikerketa batek, haurtzaroko traumarekin eta mentalizazioarekin batera ikertu zituen MNNko lagin batean ( $n=79$ ) eta parekatutako kontrol talde batekin batera (Van Heel et al., 2019) RMET erabilia, atxikimendu-saihestea era negatiboan aurpegi neutroen antzematearekin asoziatzen zela aurkitu zuten, batez ere kontrol taldearen kasuan.

Tesiaren emaitzek helduaroko atxikimenduaren eta AEAREN arteko aldagaien asoziazio eza adierazten dute. Bestetik, literatura zientifikoaren emaitzak aztertuta bi aldagai hauen arteko harremana dagoela dirudi, atxikimendua kognizio sozialeko hainbat neurriekin lotura aurkeztu baitu. Horregatik, tesiaren hipotesi nagusia atxikimenduko neurriak AEAREkin elkartuko zirela izan da. Aurpegi-emozioen antzematearen kognizio sozialeko azpi-arloaren kasuan, ebidentzia atxikimenduko neurriekiko harremanean ez da hain sendoa, baina zenbait ikerketek harreman hau baieztatu izan dute (English et al., 2018; Van Heel et al., 2019). Tesi honek ez ditu emaitza berdin hauek aurkitu, helduaroko atxikimendua, espezifikoki harreman erromantikoetan oinarritutako helduaroko atxikimendua, ez zen asoziatua izan aurpegi-emozioen antzematearekin MNNko pazienteen laginean ezta kontrol taldean. Izan daiteke, kognizio sozialean biltzen diren dimentsio ezberdin guztietatik, aurpegi-emozioen antzematea helduaroko atxikimenduarekin harremana ez izatea. Sintoma ezberdinen eragina egon daiteke AEAKo zailtasun edo antzemate hobea azaldu ahal dutenak. Argitaratu den ikerketa berri batean, parentalitate lotura, helduaroko atxikimendua eta “theory of mind” aztertu zuenak, haurtzaroko parentalitate lotura disfuntzionalak helduaroan atxikimendu ez-segurua edo alexitimiaren agerpena ekar dezakeela baieztatu zen. Ikerketa berdin honek alexitimia “theory of mind”-eko gabeziarekin harremandu zuen (Lyvers, Mayer, Needham, & Thorberg, 2019). Ondorio hauekin jarraituz, atxikimenduaren harremana kognizio sozialean beste kognizio sozialeko dimentsioekiko espezifikotasuna izan dezake, aurpegi-emozioen antzematean izan baino, adibidez alexitimiaren presentziarekin.

## **9.8. Ezaugarri kliniko / nortasunaren dimentsioen eta AEAREN arteko asoziazioa MNN-n**

### ***AEAREkin aztertutako ezaugarri klinikoak***

Tesiaren ikerketa proiektuan ez dira asoziaziorik aurkitu aztertutako MNNko ezaugarri kliniko eta emozio espezifiko zein guztizko aurpegi-emozioen antzematearekin. Nahasmenduaren larritasuna adierazten duten ezaugarri kliniko datuak bildu izan ziren. Ezaugarri kliniko berdin hauek iraganean ikertuak izan ziren, AEAKo neurriekin asoziazio ezberdinak aurkeztuz. Haurtzaroko ezbeharrak (Nicol, Pope, & Hall, 2014), traumaren esposizioa (Lowyck et al., 2016), haurtzaroko trauma (Catalan et al., 2018) eta autolesio jarrerak (Williams et al., 2015) aurpegi-emozioen antzematearekin asoziatuak izan dira. Beste ikerketa batzuk MNNko larritasunaren eta AEAREN hobekuntza batekin elkartu zuten (Meehan et al., 2017; Merkl et al., 2010) eta haurtzaroko abusu sexualarekin (Wagner & Linehan, 1999). Beste ikerketa batek ez zituen asoziaziorik lortu suizidioa bilatzen ez duten autolesioen eta AEAREN artean (In-Albon, Ruf, & Schmid, 2015).

Ikerketen emaitza ezberdin eta kontrajarriak MNNren ezaugarrien eta AEAREN arteko lotura zalantzan uzten du. Gure ikerketak, MNNren ezaugarri kliniko (bereziki: suizidio saiakerak, autolesioak, nahasmendu psikiatrikoen familia aurrekariak, beste nahasmenduekiko koerikortasuna, psikiatriako ospitaleratzeak eta tratamenduan egondako denbora) eta AEAREN arteko harremanik ez dagoela indartzen du.

### ***Pertsonen arteko arazoak eta AEAREN arteko lotura***

IIP-64 instrumentuaren azterketa kontuan izanda, “Circumplex” ereduko zortzi nortasunaren dimentsioetatik bik asoziazioa aurkeztu zuten AEAKo neurriekin: nortasunaren dimentsio “ez asertiboa” aurpegi neutroen antzemate hobego batekin asoziatu zen, nortasunaren dimentsio “ustigarria” (*exploitable*) era negatiboan poztasun aurpegi antzematearekin asoziatu zen bitartean. Literaturaren azterketaren ondoren, esan dezakegu “Circumplex” eredu erabilia AEAKo ariketa batekin nortasunaren dimentsioak MNNko lagin batean ikertu izan den lehenengo aldia izan da.

## 9.9. Ikerketaren mugak eta etorkizuneko ikerketarako iradokizunak

Ikerketa proiektuko honetan egon diren mugak hurrengo lerretan aipatzen dira . Lehenengo eta behin, lagin hautaketaren metodoa aipatu genezake. Ikerketa proiektu honetako partaide guztiak gune geografiko konkretu batetik hautatu izan dira, Bizkaiko probintzia. Honek hautaketako isuri bat suposatu dezake, populazio orokorrera emaitzak orokortzeko zailtasuna ekarriz. Laginarekin jarraituz, kontrol taldeko partaideek talde kliniko partaideekiko desberdintasunak aurkeztu zituzten aldagai sozio-demografikoetan. Desberdintasun hauek (adina, sexua eta hezkuntza maila), parekatutako kontrol talde bat erabilia ebatzi ahal izan zen, aipatutako aldagaiek aurpegi-emozioen ariketan eragina omen baitute, adibidez zenbait ikerketek emakumeetan gizonetan baino emaitza hobetoak aurkitu dituzte aurpegi-emozioen antzemateko frogetan (Andric Petrovic et al., 2019; Wingenbach, Ashwin, & Brosnan, 2018). Beste garrantzizko aldagai nahasle bat, eta azterketa estatistikoetan kontuan izan ez duguna, tratamendu farmakologikoaren eragina izan daiteke. Aurretiko ikerketetan, medikazioak aurpegi-emozioen antzemateko frogetan eragina daukala frogatu izan da (Bilderbeck, Atkinson, Geddes, Goodwin, & Harmer, 2017).

Ikerketa proiektuan zenbait hipotesi frogatu dira. Hipotesi hauetariko batzuk aurretiko ikerketa sendoen aurkikuntzetan oinarritzen ziren, adibidez parentalitate eta atxikimenduan dauden desberdintasunak MNNko pazienteen eta kontrol osasuntsuen artean. Beste alde batetik, parentalitate eta AEAREN edo atxikimendua eta AEAREN arteko lotura ez da bat ere argia, eta arlo honetan ikerketa zientifikoen gabezia dago, horregatik etorkizunean ikerketa gehiago eman beharko liriteke tesi honetan lortutako emaitzen ebidentzia frogatu ahal izateko.

Ikerketa proiektuan erabilitako instrumentuen inguruan, zenbait muga ere aipa genezake. Lehendabizikoa, erabilitako instrumentu motan egon daiteke. Aldagai klinikoaren informazioa lortzeko, elkarrizketa klinikoaren erabili izan da, era honetan partaideek informazio subjektiboa eman zuten haien gertaeren inguruan eta aldagai dikotomiko bezala bildu izan dira kasu gehienetan. Informazio honen balio enpirikoa hobetzeko, instrumentu psikometriko espezifikokoak barneratzea erabilgarria izango zen, hala nola: haurtzaroko trauma neurtzeko *Childhood Trauma Questionnaire* (CTQ) (Bernstein & Fink, 1998), suizidio saiakerak edo autolesioak neurtzeko instrumentuak, informazio objektiboago eta fidagarriagoa lortuko zuten. MNNko larritasun maila ere

garrantzizko aldagai bat izan daiteke, aldagai hau neurtzeko instrumentuen erabilerak ere ikerketa hobetu ahalko luke, adibidez SCL-90-R (Derogatis & Unger, 2010) instrumentuaren barneratzea etorkizuneko ikerketetarako interesgarria izan daiteke.

Ikerketan erabilitako instrumentuekin jarraituz, autoaplikatutako galdesorten erabilerak ere isuria sor dezake. Haurtzaroan gurasoekiko hautemandako parentalitate lotura eta harreman erromantikoekiko helduaroko atxikimendua neurtzeko autoaplikatutako neurriak erabili izan dira. Froga mota hauek isuria eman dezakete, besteak beste: gizartean egokia den erantzun bat emateko desiragatik edo introspekzio abileziaren gabeziagatik. Horregatik, interesgarria izan daiteke atxikimendua neurtzeko sortu zen elkarrizketa espezifikoa barneratzea, galdesorta autoaplikatuen emaitzekin kontrastatu ahal izateko: *the Adult Attachment Interview* (AAI; (George et al., 1996))

Aurpegi-emozioen antzematea ikerketako mendeko aldagai nagusi bezala hartuta, informazio bisuala eskaintzen duen AEAKo froga simple bat erabili izan da. Beste AEAKo frogaren bat proiektuan barneratzea, adibidez RME eta AEAKo froga konplexuren bat gehitzea, hitzaldiaren edukia edo prosodiarekin batera eta kognizio soziala era orokorrean neurtzen dituzten frogak ere informazioa hobetu ahalko lukete, adibidez MASC froga.

Ikerketa proiektuaren ondorioak aztertzeko, ikerketa transbertsal bat izan dela kontuan izan behar da, bi talde momentu jakin batean konparatzen dituen ikerketa bat. Aldagaien arteko lotura ikertzeko analisia korrelazioa izan da, beraz emaitzak interpretatzerako orduan hau kontuan izan behar dugu eta kausazko ondorioak ekidin.

Ikerketaren sendotasun gisa, lortutako lagin-tamaina eta lagin klinikoaren erabilera aipa genezake, alde batetik talde kliniko MNNko irizpideak betetzen zituzten 116 pazienteek osatu zuten eta kontrol taldea 220 partaidek. Erabilitako lagin-tamainak potentzia estatistiko sendoa bermatzen du. Horrez gain, MNN duten pazienteen talde kliniko baten emaitzak islatu dira ikerketa honetan. Ikerketan ezaugarri klinikoetarako buruzko informazio subjektiboa, instrumentu psikometrikoekin eta kognizio sozialeko froga batekin konbinatu izan dira, MNN duten pazienteetarako buruzko informazio ezberdina lortuz eta era honetan MNN duten pazienteen ikuspuntu errealista eta osoago bat lortu izan da.

## 10. kapitulua: Ondorioak

### ONDORIOAK

Doktorego tesi honek, giroko aldagaiak psikopatologian duten garrantziaren ebidentzia indartu egiten du, zehazki Mugako Nortasunaren Nahasmenduaren garapenean duten eraginaren ebidentzia. Horrez gain, emaitza berriak aurkezten ditu giroko aldagai zehatzen eta kognizio sozialeko atal baten arteko asoziazioa bilatuz, haurtzaroan izandako parentalitate estiloak eta helduaroko atxikimendua, aurpegi-emozioen antzematearekin batera aztertu egiten dira MNN duten pazienteen talde kliniko batean eta kontrol talde batean.

1- Lehenengo mailako zaintzaileekiko harremanaren eta helduaroan ematen diren psikopatologiako adierazpenen arteko lotura ikertua eta frogatu izan den gai bat da, tesi honetan datu berdin hauek lortu izan ditugu. Tesiaren emaitzetan MNN zuten pazienteek haien gurasoak parentalitate disfuntzional estiloekin identifikatzen zituztela aurkitu genuen, kontrol taldeko partaideak baino gehiegizko babes maila altuagoa eta zaintza maila baxuagoak lortuz. MNN taldeko partaideak gehien bat haien amak afektu gabeko kontrol estiloarekin identifikatzen zituzten eta haien aitak, berriz, arduragabe estiloarekin, kontrol taldean estilo optimoaren errepresentazio orokorrarekin kontrastatuz.

2- Helduaroko atxikimendu erromantikoa kontuan izanda, MNN zuten pazienteek atxikimendu-antsietate eta atxikimendu-saiheste maila altuagoak aurkeztu zituzten era esanguratsuan kontrol taldearekin alderatuta. Atxikimendu estilo nagusia MNN zuten pazienteetan estilo kezkatua izan zen, kontrol taldearen estilo seguruarekin kontrastatuz.

3- Aurpegi-emozioen guztizko eskala kontuan hartuta, MNN zuten pazienteek ez zituzten desberdintasunik aurkeztu kontrol taldearekin alderatuta. Bestalde, emozio zehatzei erreparatuta, talde klinikoko partaideek aurpegi neutroen antzematean zailtasunak aurkeztu zituzten eta beldur aurpegiak antzematean, berriz, hobekuntza kontrol taldearekin alderatuta. MNN zuten pazienteek emozio negatiboekiko joeraren isuria aurkeztu zuten, era honetan talde klinikoaren eta kontrol taldearen arteko emozio zehatzak antzemateko desberdintasunak azal daitezke. Emaitza hauek orain arte argitaratutako aurkikuntzekin eta MNN duten pazienteek aurpegi neutraletan emozioak ezartzeko joeraren aldeko suposizioarekin bat datoz.



4- Giroko aldagaien harremana aztertuz, parentalitate lotura adierazten zuten neurriek helduaroko atxikimenduko neurriekin asoziazioa aurkeztu zuten, haurtzaroan izandako parentalitate estiloek etorkizunean ematen diren harremanetan eragina dutela baieztatzen duten teorien ebidentzia indartuz.

5- Parentalitate neurriak, aitaren bertsioan soilik, AEAKo neurri zehatzekin elkartu ziren bai talde klinikoan zein kontrol taldean. Ez ziren helduaroko atxikimenduko eta AEAREN arteko asoziazio esanguratsuak aurkitu. Aurretiko ikerketek ebidentzia hau frogatu zuten, beraz etorkizunean atxikimenduaren eta AEAREN arteko harremana ikertzea komeni da, bai MNNko laginetan zein populazio orokorrean. Baliteke kognizio sozialean barneratzen diren prozesu guztietatik aurpegi emozioen antzematearen kasuan helduaroko atxikimenduarekin harreman espezifikorik ez izatea.

6- Aurretiko ikerketekin kontrastatuz, aztertutako MNNko ezaugarri klinikoak ez ziren AEAKo neurriekin asoziatu. Asoziazioak aurkitu izan ziren *Circumplex* ereduko pertsonen arteko bi arazo moten eta bi emozio zehatzen antzematearen artean: dimentsio “ez asertiboa” aurpegi neutroekin asoziatu zen eta dimentsio “ustiagarria” era negatiboan poza aurpegiekin.